

**URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA
ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN
ERANTZUNA**

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/05/02
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua emateko Erakunde / Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 2
	XABIER LEJARZEGI IRAZABAL
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Helburu orokorren betetze mailari buruzko jasangarritasun-adierazleak izeneko 1.3.2 artikuluan Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan ekoizpen nekazaritzako, ekologiko, biologiko edo organiko normalizatuaren eredia betetzen duten partzelen azalerari buruzko adierazle bat txertatzea planteatzen da (Erregistroa: 834/2007 EE).

B Alegazioa:

Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremua -T1- izeneko 2.3.3.1 artikuluan txertatzea planteatzen da,

1. Ekoizpen nekazaritzako, ekologiko, biologiko edo organiko normalizatuaren ereduari (Erregistroa: 834/2007 EE) dagokionez lehentasun bat finkatzea, azpikategoria horren emankortasuna eta osasuna bermatzeko xedez erabiltzen diren beste ekoizpen-eredu batzuen aurrean.
2. Lurretik kanpo landatzeko debekua negutegietara ez ezik, aire zabaleko laborantzetara ere hedatzea.

C Alegazioa:

Zalantzak planteatzen dira 4.3.2.1 artikuluari dagokionez. A.2 eremuko Ingurumena lehengoratzeko. Zalantzakoa da Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ekosistemak lehengoratuta zein egoera geratuko den, eta agerian geratzen da Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurren ezaugarriak mantentzeko dagokionez denboran zehar nekazari burututako lan orekatua. Ingurumena lehengoratzean lurralde aldetiko desoreka sorrarazteko kezka dagoela adierazi da eta erabilera hori gauzatzeko nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak ere kontuan hartzea

proposatu da ekoizpen nekazaritzako, ekologiko, biologiko edo organiko normalizatuaren eredia (Erregistroa: 834/2007 EE) bultzatuz.

D Alegazioa:

Ekoizpen nekazaritzako, ekologiko, biologiko edo organiko normalizatuaren eredia (Erregistroa: 834/2007 EE) finkatzea planteatzen da aisialdiko baratzeak (E.1.10) erabiltzeko.

E Alegazioa:

Eucalyptus espeziaren laborantza debekatzea eta Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako (T1. PRT) Trantsizioko Landa-paisaiatan baso-erabilera (C.4.1) ekoizpenari dagokionez debekatzea planteatzen da.

F Alegazioa:

Tren Sarearen (D.1.7) erabileran herbiziden erabilera mugatzea planteatzen da.

G Alegazioa:

Trenbidearen parean, paraleloki, luzatuko den bidegorri bat eraikitzea proposatzen da.

H Alegazioa:

Bizitegi-eraikinak hartzeko partzeletan itxiturak debekatu eta itxitura horiek nekazaritza edo abeltzaintzako erabilerekin lotuta soilik onartzea planteatzen da.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Planteatutako adierazlea egokitzat jotzen da Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidarien (EKEG) helburu orokorren betetze-maila neurtzeko. Adierazle hori garapen iraunkorreko adierazleen artean (1. puntuan) jasotzen da dagoeneko, modu orokorrago batean. Era berean, bertan aipatzen den ustiaguneen azalera gaineratu beharko litzateke. Egokiagoztat jotzen da egungo idatzia mantendu eta gauzatzera unean baterako azterketa bat burutzea, izan ere, 1.3.2 artikuluan adierazten denez, adierazleei buruzko proposamena irekia da eta gauzatzera unean ordeztu edo osatu egin ahal izango dira.

B Alegazioa:

Alegazioa burutzen duen pertsonak Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremua (T1) izeneko 2.3.3.1 artikulua aipatzen du alegazioaren xede gisa. Haatik, atal honetan planteatutako bi alegazioen edukia Nekazaritzako erabilera (C.1.1) izeneko 4.4.3.2 artikuluko edukiarekin dator bat.

1. Gaur egun Urdaibaiko Biosfera Erreserban erabiltzen den nekazaritza-eredua kontuan hartuz, Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremua (T1) azpikategoriari dagokionez derrigorrezko modura aipatzen den eredia txertatzea Urdaibaiko Biosfera Erreserbako nekazaritza sektoreari eta egun bertan erabiltzen den ekoizpen-ereduari begira kaltegarria izan daitekeela uste da. Haatik, Biosfera Erreserba modura gero eta iraunkorragoa izango den nekazaritza-eredu baterantz jo behar dela uste da. Hori arauzko zehaztapenetik harago sustatu behar da.
2. Laborantza hidroponikoa debekatzeari buruzko proposamena ezetsi egiten da, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Natura Ingurune Sailak egindako alegazioari erreparatu ostean. Alegazio horrekin Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan laborantza hidroponikoa onartzea eskatzen da, adieraziz sistema horiek baliabideen birziklapen eta birzirkulaziorako eta kudeaketa iraunkorrerako elementu eta ekipamendu guztiekin hornituta daudela.

Haatik, kontuan hartu behar da, zenbaitetan, laborantza hidroponikoak berekin ekar dezakeela lurzorua iragazgaizteko lanak egiteko premia zolata edo antzekoekin. Lan horiek ekiditeko premia azpimarratzen da nekazaritzari dagokionez balio handikoa den lurzoruaren ahalmen edafologikoa mantentze aldera. Horrenbestez, 4.4.3.6 artikuluko laugarren atala aldatu eta horrela geratu da:

(...)

4. *Oin berriko horrelako instalazioak eraiki ahal izango dira lurzoruaren kalifikazioak honakoak badira:*
 - a. *Zelai eta laborantza Zonak (N3.4).*
 - b. *Trantsizioko Landa-paisaia Zonak (T1. PRT).*
 - c. *Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako balio agrologiko handiko Zonak (T1.A1) ~~lurzorurik gabeko laborantzakoak salbuetsita (hidroponikoak), betiere, horiek gauzatzeko ez bada beharrezkoa zolatak ezarri edo lurzoruak iragazgaiztea.~~*

C Alegazioa:

Ingurumena lehengoratzea (A.2) izeneko 4.3.2.1. artikuluan horrela definitzen da erabilera: *Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ondare naturala ingurumen balio handiagoko agertokiak eramateko erabileraren garapena, ingurumen aldetik balio garrantzitsua izan arren, mota eta maila ezberdineko aldaketa antropiko itzulgarriak izan dituzten espazioetan ondare naturalaren egoera ekologiko ona xede duten lehengoratzeko esku-hartzeen bidez.* Halaber, erabilera hori Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparru osoan baimendu gisa ezartzen da. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparruan dauden edota egon daitezkeen nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerak EKEG egitامuan aintzatetsi dira eta antolamendu-kategoria bakoitzaren arabera arautu dira.

Nekazaritza arloko ekoizpen-eredua, proposatzen dena izan zein beste edozein izan, erabilera honen babesean ingurumena lehengoratzeko gauza daitezkeen esku-hartzeetatik apartekoa dela uste da. Lehengoratutako espezie eta habitaten eta nekazaritza arloko ekoizpen-eredu jakin baten edo beste baten artean sinergiak sor badaitezke ere, uste da errealitate bat nekazaritza erabilerari dagokiona dela eta beste bat, oso ezberdina, aipagai den Artikuluan adierazten den ingurumena lehengoratzeko erabilerari dagokiona. Horregatik, modu berezian tratatu, definitu eta arautzen dira EKEG egitامuan. EKEG egitامuaren espiritua, nola geratzen moduan ikusita, bi erabilerak bateragarriak izatea da, eman nahi zaien antolamendu-kategoriaren baitan. Nekazaritza arloko erabilera ez da baimendutzat jo kategoriaz guztietan eta ingurumena lehengoratzeari dagokiona, aldiz, bai. Bi erabilerak baimentzen direnean biak bateragarri izan beharko dira.

Orobat, ez da uste ingurumena lehengoratzeko erabilerak desoreka sorraraz dezakeenik Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurretan. Aitzitik, gizakiarentzat ekosistema erako zerbitzu gehiago sorraraziko dituela uste da eta, zehazki, nekazaritza arloko ekoizpen-eredu iraunkor baterako baldintzak hobetzea ekarriko du ziurrenera (laboreetarako espezie onuragarriak areagotzea, esate baterako, organismo polinizatzaileak areagotuz, paisaia hobetuz, nekazaritzaren bizi-kalitatea hobetuz, etab.).

D Alegazioa:

Kontuan hartuz baratze horien helburua, nagusiki, ludikoa eta prestakuntza arlokoa dela eta, gainera, herritarrek jasangarritasunaren inguruan sentsibilizatzeko tresna oso baliagarria dela, egokitzat jotzen da zenbait printzipio aipatzea, jarduera hori bideratu beharko luketenak.

Gernika-Lumoko udal baratze ekologikoen erabilerarako udal Ordenantzetako 3. artikuluan ezarritako helburuak oinarritzat hartuz, bete beharreko helburuak aipatzea proposatzen da.

E Alegazioa:

Basozaintzako aprobetxamendua jarduera garrantzitsua da Urdaibain eta egun lurzoruaren % 60 hartzen du. Erabilera horrek, erabiltzen diren manei-tekniken eta jarduera burutzen den gunearen arabera, ingurumena kalte ditzaketen eraginak ekar ditzake. Dekretuak baso-erabilerarako planteatzen duen araubidearekin baliabide naturalen kudeaketa iraunkorrago baterantz jo nahi da, ingurumen-interesa eta zaugarritasuna kontuan hartuta hala eskatzen duten eremuetan erreparatuz, esate baterako, Gune eta Gunearen Babes Gainkategoria, Natura 2000 Sarea barneko eremuei edo haiekin zuzenean lotutakoei dagozkienak.

Gainkategoria horietatik kanpoko baso-erabilerari dagokionez, jardun iraunkorrago baterantz aurreratzeko neurri batzuk planteatzen dira, espeziea kontuan hartu gabe.

F Alegazioa:

Tren-sarearen inguruan gaur egun herbizidak kontrolik gabe edo masiboki erabiliko balira (alegataileak ez du horri buruzko daturik ematen), jardun horrek eragin kaltegarriak izan ditzake ekosistemen osotasunari so eta, horrenbestez, 5/1989 Legeko 1. artikuluan ezarritakoa urratzen da. Zuhurtasun-printzipioa betez, esparru horretan herbizidak aplikatzeari buruzko balizko jarduna arautu egin behar da.

G Alegazioa:

Trenbidearen parean, paraleloki, bidegorri bat eraikitzeke proposamena interesgarria izan arren, EKEG egitamuaren esparrutik haragokoa da. Egitamu hori, 5/1989 Legearen 15. artikuluan ezartzen den moduan, 5/1989 Legearen 1. artikuluan deskribatutako helburu eta xedea jasotzen duen dokumentu bat da, lurrazaleko zein lurrazpiko uren babesean bereziki erreparatzen duena, ura kargatzeko zonak, tokiko landaredi-masak eta lurraldearen ohiko erabilerak barne. Halaber, kutsagarri izan daitezkeen ekintzei ere erreparatuko zaie. Proposamena bat etor liteke 5/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritako Jarduera Sozioekonomiko eta Arloko Planen Egokitzapen eta Garapenerako Programarekin (PADAS).

H Alegazioa:

Alegazioak planteatzen duenez, bizitegi-eraikinak hartzeko partzeletako itxituren ondorioz hesi efektua sorrarazten da, paisaiatz gozatzea ekiditen duena.

Itxiturei dagokionez proposatzen den erregulazioak tamaina txikieneko faunak sartu ahal izatea eta haiek paisaian txertatu ahal izatea ahalbidetzeko dimentsio eta material batzuk erabiltzea (tradizionalki erabiltzen direnak) eskatzen du.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A, B, C, E, G eta H alegazioak:

Alegazioak **desegokitzat** jotzen dira **eta ezestea erabaki da**.

Proposamena:

D Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta partzialki onestea erabaki da**, honela:

Aisialdiko baratzeak (E.1.10) izeneko 4.4.5.12 artikuluko 1. atala aldatzea proposatzen da.

4.4.5.12 artikulua.- Aisialdiko baratzeak. E.1.10.

1. Baratze-komplexuak dira, neurri txikiko azpi-lurzatitan banatuak eta instalazio komunez hornituak, hiri-biztanleriaren aisiarako modutzat sortuak. (...)

2. Ekipamendu horiek lagungarri izan behar dira bioaniztasunerako espazioak sortzeko, laborantzarekin lotutako jardun onak bultzatzeko, ingurune naturalaren eta giza jardueren arteko harremanak finkatu eta balioesteko, elikadura osasuntsua eta aztura osasuntsuagoetarako aldaketa bultzatzeko eta herritarren artean tokiko produktuak eta produktu ekologikoak ekoitzi eta kontsumitzeko kontzientzia sortu eta sustatzeko.

(...)

F Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea erabaki da**.

Proposamena:

Tren-sarea (D.1.7) izeneko 4.4.4.8 artikuluan 6. atal berria barneratzea.

“6. Tren-sarea mantentzeko jardueretan herbiziden tratamenduak aplikatzeko neurri egokiak hartu beharko dira, kutsagarriak izan daitezkeen dosiak ekiditeko moduan.”

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/05/10
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua emateko Erakunde / Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 10
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	URDAIBAI ON KOOP. ELK. TXIKIA (IÑAKI MARKUERKIAGA)

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Itsasontzien Zirkulazio Kontrolatua (B.2.4.4) izeneko 4.4.2.15 artikularen 5. atala kentzea eta, beharrezkoa balitz, Dekretu-proposameneko artikuluko bereko 6. atalean EKEG egitamuari dagokionez adierazten dena aplikatzea planteatzen da.

B Alegazioa:

Urdaibai On Kooperatibak adierazten duenez, 4.4.2.6 artikuluko 1. atalean aipatzen diren jarduerak onartu egiten dira, hau da, argi- edo piroteknia-ikuskizunak burutzea edo soinu-instalazioak kokatzea edo zarata sortzen duten kontzertu edo ekitaldiak antolatzea. Haatik, artikuluko bereko 2. atalean aipatzen denez, jarduera horiek salbuetsita daude 5.3.3 artikuluari dagokionez. Alegazioan adierazten den moduan, 5.3.3 artikulua aipatzen da. Baina artikuluko hori ez dago EKEG egitamuaren zirriborroan.

Hori dela eta, EKEG egitamuaren zirriborro berri bat idatzi eta berriro informazio publikora ager dadila eskatzen da, izapide administratiboak modu argi eta gardenean egin dezan aurrera.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Ulertzen da:

Itsasontzien Zirkulazio Kontrolatua (B.2.4.4) izeneko 4.4.2.15 artikulua 5. atalean ezarritako erregulazioa egokitzen jotzen da, izan ere, 5/1989 Legearen helburu eta xedearekin bat dator. Itsasontzien zirkulaziorako ezarritako denbora-mugak migrazio edota kumeen hazkuntzako garai kritikoetan hegazti-fauna babesteko premiarekin justifikatzen dira.

Gainera, erreferentziako denbora-erregulazioa ezarrita dago Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren Garrantzizko 4 Leku Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE) izendatzeko eta KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak onartzeko indarreko dekretuan (ekainaren 4ko 358/2013).

B Alegazioa:

Adierazi behar da 4.4.2.6 artikulua idazketan akats bat dagoela, izan ere, 5.3.3 artikulua aipatzen da eta 4.5.3 artikuluko 3. atala aipatu beharko litzateke. Atal honetan gaur egun Urdaibai eta Gaztelugatxeko Donieneko eremuan dauden Batasunaren Garrantzizko 4 Leku Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE) izendatzeko eta KBE horien eta Urdaibaiko itsasadarreko HBBEaren kontserbazio-neurriak onartzeko ekainaren 4ko 358/2013 Dekretuan adierazitakoa jasotzen da. Hori zuzendu egin behar da.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzen** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

B Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzen** jotzen da **eta ezestea erabaki da**. Haatik, testua zuzendu egin da:

“4.4.2.6 artikulua.- Argi-ikuskizunak, piroteknia-ikuskizunak, soinu-instalazioak edo kontzertuak edo zarata sortzen duten ekitaldiak antolatzea. B.1.5.

1. Argi-ikuskizunak edo piroteknia-ikuskizunak egitea da, edo soinu-instalazioak edo kontzertuak edo zarata sortzen duten ekitaldiak antolatzea.
2. Erabilera hau baimenduta dago, 4.5.3.3 artikuluan ezarritako salbuespenekin.

**URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO
PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.**

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/05/13
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua emateko Erakunde / Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 26
	JUANJO PALOMARES BENGURIA
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Nekazaritza bultzatzea, nekazal lurzoruak hirigintza-presiotik babestea eta Patronatuaren eta nekazarien artean etengabeko harremana mantentzea proposatzen da.

B Alegazioa:

Herbiziden eta beste fitosanitario batzuen erabilera debekatzea eta espezie inbaditzaileak kontrolatzea proposatzen da.

C Alegazioa:

Iturriak eta haietako inguruneak babestea eta elementu horiekin lotutako katalogo bat argitaratzea eta, era berean, bide publikoen kudeaketa ona bermatzea proposatzen da.

D Alegazioa:

EKEG egitamuko zehaztapenen gaineko kontrola bermatzea proposatzen da.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Aipatutako helburuak oinarri modura erabili dira izapidean den EKEG egitamuaren proposamena idazteko.

Zehazki, proposamenean lurzoruaren gainean egindako sailkapenean T1.A1 kalifikazioa barneratzen da (balio agrologiko handiko Zonak), nekazaritza ahalmenaren ikuspegitik lurzoru

onenak dituzten zonekin bat datorrena. Lurzoru horien ezaugarriak dira propietate fisiko eta kimiko bikainak izatea, emankorrek izatea, nahiz erabilerrazak eta irisgarriak izatea. Zona horiek estrategikotzat hartzen dira nekazaritza alorrerako. Horregatik, zona horiek mantendu eta babesteari lehentasuna ematen zaio beste erabilera batzuen aurrean (2.3.3.1 artikulua), eta hartako artikuluetan 5/1989 Legearen 1. eta 15. artikuluetan ezarritakoaren arabera zona horiei eman beharreko erabilerak arautzen dira. Horrela, alegazioaren helburua dagoeneko Planean jasota dagoela ulertzen da.

B Alegazioa:

EKEG egitamuari dagokion Dekretu-proposamenean herbiziden (Lurrazpiko ur-masen babesa - LUMB- izeneko 4.5.1 artikulua) eta fitosanitarioen (Nekazaritza-erabilera -C.1.1- izeneko 4.4.3.2 artikulua) erabilera modu egoki eta berme-emaila batean arautzen dela ulertzen da.

Espezie inbaditzaileen gaineko kontrolari dagokionez, EKEG egitamuari dagokion Dekretu-proposamenean, Ingurumena lehenegoratzeari (A.2) izeneko 4.3.2.1 artikulua 5. atalean, espezie exotiko inbaditzaileak desagerraraztea ezartzen da eremu guztietarako lehentasunezko esku-hartze modura. Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak egindako alegazioen ondorioz, alderdi hori indartu egingo da hurrengo aldaketarekin:

3.3.1.2 artikulua. Eraikuntza-ekintzetan erabiltzeko materialen inguruko ingurumen-kontsiderazioak.

(...)

4. Lanetan neurri hauek hartuko dira:

- Flora-espezie inbaditzailearen propagulu edo hazirik gabeko landare-lurra erabiltzea
- Garbitasun-baldintza onetan dauden makinak erabiltzea, espezie inbaditzaileak txertatzea ahalbidetu dezaketen landare edo hazien arrastorik ez hedatzea bermatzeko
- Lanen bermealdian zehar lanak zaintzea eta finka daitezkeen flora inbaditzailearen aleak derrigorrez kentzea, zehazki, fallopia japonica, cortaderia selloana eta buddleja davidii espeziei dagokienez.
- Parke eta lorategietan 630/2013 Dekretuan edo hura ordeztzeko arauan baneratzaren diren florako aleak berriro hazi edo landatzeko debekua ezartzea.

C Alegazioa:

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparruko ur-hornidurako eremu eta azpiegiturak EKEG egitamuari dagokion Dekretu-proposamenaren 4.4.4.12, 4.4.4.13 eta 4.4.4.14 artikuluetan arautzen dira espezifikoki. Eta baita 4.5.1 artikuluan (Lurrazpiko ur-masen babesa -LUMB-) ere. Dauden iturburu-zonak babesteko ezartzen den erregulazioa Ur-hornidurarako Lurralde Ekintza Planean xehatzen da eta EKEG egitamuari dagokion Dekretu-proposamenak hari heltzen dio. Horrela, alegazioaren helburua dagoeneko Planean jasota dagoela ulertzen da.

Ur-puntuekin lotutako dibulgaziozko materiala argitaratzea proposamen interesgarritzat hartzen da. Haatik, kontuan hartzeko ekintza izan arren, ez da EKEG egitaman txertatzeko arauzko alderdi bat.

Bide publikoen kudeaketa tokiko erakundeek burutu beharko dute beren eskumenen arabera:

D Alegazioa:

Gaur egun ez da bideragarritzat jotzen Patronatuaren ikuskapen espezifikorako gorputz bat sortzea eta, gainera, gastu publikoaren arrazionalizazioaren aurkakoa da. Kontuan izanik gaur egun Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparruan eskumena duten administrazio ezberdinek

kudeatutako hainbat zaintza-gorputz daudela, komenigarriagozat jotzen da administrazio horien arteko koordinazioa bultzatzea. Alegazio ugariren ondotik, testua berrikusi egingo da alderdi hori indartzeko, horrela:

5.1.10 artikulua.- Ingurumenaren zaintza.

4. Hainbat lantalde sortuko dira, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparruan eskumena duten administrazio ezberdinen presentziarekin, ingurumena zaindu eta Plan hau betetzen dela ziurtatzeko lankidetzara eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren tresnak garatzeko, esate baterako, esku-hartzeko protokoloak, zaintza arloko prestakuntza edo informazioaren elkartrukea.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Alegazioak **ezestea** erabaki da.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/05/16
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua emateko Erakunde / Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 33
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	JOSE LUIS ALDAMIZETXEBARRIA AKORDAGOITIA

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Alegazioak aurkezteko epea luzatzea planteatzen da.

B Alegazioa:

Ibarrangeluko Udal Barrutiko 8. industrialdeko 184, 241, 245, 176 eta 177 zenbakidun partzelen kalifikazioa aldatzea planteatzen da Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuak (T1) kalifikaziora.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

EKEG egitamuak onartzen duen Dekretu-proiektu hau izapidetzeko Xedapen Orokorrak eratzeko prozedura zehazten duen abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako prozedura jarraitu da. Halaber, kontuan hartu da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren 5/89 Legean xedatutakoa, zehazki, 15.1 artikuluko bigarren lerroaldean adierazten dena. Horrela, normalean ematen dena baino hilabete gehiagoko epea eman zaie entzunaldi publikoko izapiderako eragindako udalerriei eta Bizkaiko Foru Aldundiari. Horrenbestez, testuaren hedadura eta konplexutasuna gorabehera, entzunaldirako emandako epea legez ezarritakoa izan da.

Orobat, testua ulertu ahal izateko herritarren eskura jarritako bitartekoak (besteak beste, informazio-saioak eta kontsulta pertsonalizatuak) azpimarratu behar dira.

B Alegazioa:

Ulertzen da:

8. industrialdeko 245. lurzati kalifikazio hauek dituzten lurretan kokatzen da: Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremua (N4), Ibai Sarearen Babes Eremuko (B4) Ibai Sarearen Babeserako Zonak (B4.1), Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko ekosistema osoak edo gutxi degradatuak dituen Zona (B3.2), Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko Zelai eta laborantza Zonak (B3.4).

8. industrialdeko 177. zenbakidun lurzati Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko ekosistema degradatu eta basoberritzeen Zonan (B3.3) eta Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko Zelai eta laborantza Zonan (B3.4) kokatzen da.

8. industrialdeko 184, 241 eta 176 lurzatiak Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko Zelai eta laborantza Zona (B3.4) kalifikazioari dagozkion lurretan kokatzen dira osorik.

Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremua (N4) Urdaibaiko Ibai Sarearen ES2130006 Kontserbazio Bereziko Eremuko (KBE) zona delikatuagoekin dator bat.

Ibai Sarearen Babes Eremuko (B4) Ibai Sarearen Babeserako Zonetan (B4.1) natura- eta paisaia-intereseko eremuak daude edo egon daitezke, haiek mantendu edo lehengoratzeari bermatzeko babes-neurriak eska ditzaketena. Helburua multzoa mantentzen dela ziurtatzea eta, are, multzoa birsortu eta hedatzea da. Gainera, multzoak mantentzeko helburuekin koherente izanik, Eremu horretan horren delikatu den ingurune natural bat behar bezala babesteari begira kaltegarritzat jotzen diren jarduera jakin batzuen erregulazioa barneratzen da. Nukleo-zona mantentzea ezin da soilik bermatu Nukleoaren Antolamendu Katetoria mugatzen duen zerrenda estu baten gaineko ekintza eraginkor batekin, izan ere, ezinbestekoa da, era berean, alboko zerrendaren gainean esku-hartzea, kalte konponezinak edo konpontzen zailak eta garestiak diren kalteak sorraraz ditzaketena erabilera eta jardueren presioak ekarritako eragin negatiboak ekiditeko.

Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko ekosistema osoak edo gutxi degradatuak dituen Zona (B3.2) Artadi Kantaurriarreko Babes Eremuko ekosistema oso edo gutxi degradatuekin dator bat.

Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko ekosistema degradatu eta basoberritzeen Zona (B3.3) bat dator Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuarekin. Azken horretan, giza jarduera

biziak edo istripu naturalek (normalean suteak) eraginda ingurune naturala asko aldatu da eta, gaur egun, degradaturik dago eremu hori edo, bestela, basoberritzeekin beteta.

Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko Zelai eta laborantza Zona (B3.4) bat dator Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuko lurrekin. Bertan nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera handiagoa da, lurraren ohiko erabileren ondorioz eraldatutako ekosistemak barneratuz, non badiren zuhaixka erako heskaiak eta fruta-arbola zaharrak hartzen dituzten gun txikiak.

Eremu eta Zona horiek guztiak 5/1989 Legearen 1. artikulua (legearen helburu eta xedeari buruzkoa) eta aipatu legeko 15.2c artikulua araberako sailkatzen dira.

Artadi Kantaurriarreko (B3) Babes Eremuaren iparraldeko muga, aipatu diren partzelen inguruan, bertan dagoen bidearekin finkatu da. Gainera, eremu garrantzitsuak dira paisaiaren ikuspegitik so.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

B Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/05/16
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Organismoa / Erakundea: Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 45
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	ARITZ URRIOLABEITIA ARRIEN eta IGOR ESPINOSA ARROSPIDE

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Muxikako Udal Barrutiko 14. industrialdeko 53 zenbakidun lurzatiaren kalifikazioa aldatzea planteatzen da Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako (T1) Trantsizioko Landa-paisaia Zonara (T1.PRT).

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Ulertzen da:

Lurzatia balio agrologiko handiko Zonak (T1.A1) kalifikazioari dagozkion lurretan kokatzen da. Balio agrologiko handiko Zona horiek bat datoz (T1.A.1) nekazaritza-potentzialaren ikuspegitik lurzoru onenak dauzkaten zonekin. Lurzoru horien ezaugarriak dira propietate fisiko eta kimiko bikainak izatea, emankorrak izatea, nahiz erabilerrazak eta irisgarriak izatea. Nekazaritza-alorrerako zona estrategikoak dira. Horregatik, zona horiek mantendu eta babesteari lehentasuna ematen zaio beste erabilera batzuen aurrean. Zona horiek 5/1989 Legearen 1. artikulua (legearen helburu eta xedeari buruzkoa) eta aipatu legeko 15.2c artikulua arabera sailkatzen dira.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/05/13
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Organismoa / Erakundea: Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 64
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	ZURIÑE ABERASTURI AZKARATE

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Plan Zuzentzailean Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako balio agrologiko handiko Zona (T1.A1) modura sailkatutako lurzoruetan dauden eraikinetan ere landa aterpetxe turistikoaren modalitatea gaitzeko aukera eskatzen da.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Plan Zuzentzailean ez da aurreikusten Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako balio agrologiko handiko Zonetan (T1.A1) dauden eraikinen erabilera landa aterpetxe turistikora aldatzea (4.4.5.18 artikulua). Horren helburua, ahal den heinean, nekazaritza-interes handiko lurzoruen eremuetan lurzoru horiek eraldatzea ekarriko lukeen (aparkaleku edota zerbitzu modura erabiltzeko) presioa areagotu dadila ekiditea da.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/05/16
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Organismoa / Erakundea: Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 71
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	EMILIA LARRINAGA TELLERIA ordezkatur, GASPAR LPPEZ DE ABECHUCO BILBAO

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Ibarrangeluko udal barrutiko landa-katastroko 005. industrialdeko 263 zenbakidun lurzatian dauden baserri arrastoak berreraiki ahal izatea eskatzen da, 3.2.2.7. artikulua aintzat hartuz.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Plan Zuzentzailean, 3.2.2.7 artikuluko 2. atalean, zehazten da eraikuntza batek funtsezkoak zaizkion egiturazko eta eraikuntzazko elementuak noiz galdu dituen Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 30. artikuluan eta, berreraiki ahal izateko, Premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 9.2 artikuluan barneratzen diren inguruabarrak aintzatesteko moduan.

Ez dagokio Plan Zuzentzaileari bertan ezarritakoa baserri arrasto jakin batzuekin betetzen den identifikatzea. Behin hura behin betikoz onartuta, alderdi hori balioetsi beharko da, artikuluetan ezarritakoa aplikatuz.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzen** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/05/13
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Erakundea / Entitatea Urdaibaiko Biosfera Erreserba Zerbitzua Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila Proposamenaren / alegazioaren kodea 77
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	AITZIBER GABIKAETXEBARRIA GOIKOETXEA

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Negutegiek edota bestelako instalazioek sorrarazitako ikusizko inpaktua murrizte aldera, landare-pantailak altxatzeko aurreikuspena ezartzea proposatzen da.

B Alegazioa:

B4-2 modura kalifikatutako lurak berriro kalifikatzea T2.F1 edo T2.F2 kalifikaziora Arratzun.

C Alegazioa:

Kortezubiko Udal Barrutiko 11. industrialdeko 75 eta 83 zenbakidun partzelen kalifikazioa aldatzea planteatzen da Trantsizioko Landa-paisaia Zonak (T1. PRT) kalifikaziora.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean paisaia-osagaia aintzatesten da, zuzenean edo zeharka, bertako zehaztapenetan. Zehazki, III. Tituluko 6. kapituluaren paisaia ikusi ahal izateko ikuseremua mugatzea ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea edo paisaia ireki eta naturaleko lekuetan edo behaketarako egokiak diren lekuetan kultura ondarearen ikuspegia eraldatzeko neurriak hartzea aurreikusten da.

Egia da negutegi inpaktua kontraesankorra izan daitekeela Urdaibaiko Biosfera Erreserbako paisaian, baina negutegi horiek edo beste instalazio batzuk ezkutatzeko zuhaitz-pantailak ezartzeko altuera handi samarreko elementuak behar dira; horrek, kasu batzuetan, instalazioetatik harago paisaia behatu ahal izateko ikuseremua mugatzea ekar dezake. Hori dela eta, instalazio jakin batzuk ezkutatzeko ez da egokitzat jotzen paisaia beste elementu batzuekin eraldatu eta behaketaren ikuseremua are gehiago mugatzea.

B eta C Alegazioak

Ulertzen da lurzatiak kalifikazio hauek dituzten lurretan kokatzen direla: ehuneko hogeita hamar eta berrogeita bost (% 30-45) bitarteko malda duten Baso-eremuetan (T2.F1); ehuneko berrogeita bost eta hirurogei (% 45-60) bitarteko malda duten Baso-eremuak (T2. F2); Ibai Sarearen eta Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuaren (N4) Babes Eremua (B4.1) eta Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremua (N4).

Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremua eta Ibai Sarearen (B4.1) eta Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuaren Babes Eremua (N4) 5/1989 Legearen 1. artikulua (bere helburu eta xedeari buruzkoa) eta Lege horretako 15.2c artikulua arabera sailkatzen dira eta Urdaibaiko Ibai Sarearen Kontserbazio Bereziko Eremuarekin (KBE) ES2130006 dator bat.

Ehuneko hogeita hamar eta berrogeita bost (% 30-45) bitarteko malda duten Baso-eremu (T2.F1) kalifikazioaren barnean sartzen diren lurretako batez besteko malda % 39,10ekoa da. Horrenbestez, ez dagokio kalifikazioa aldatzea.

Ehuneko berrogei eta bost eta hirurogei (% 45-60) bitarteko malda duten Baso-eremu (T2.F2) kalifikazioaren barnean sartzen diren lurretako batez besteko malda % 52,10ekoa da. Horrenbestez, ez dagokio kalifikazioa aldatzea.

Ehuneko hogeita hamar eta berrogeita bost (% 30-45) bitarteko malda duten Baso-eremu (T2.F1) kalifikazioan, EKEG egitamuari buruzko Dekretuaren proposamenean, alegazioa jartzen duen pertsonak egun burutzen duen abeltzaintza erabilera baimentzen da.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

B eta C Alegazioak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/02
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Erakundea / Entitatea Urdaibaiko Biosfera Erreserba Zerbitzua Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila Proposamenaren / alegazioaren kodea 78-88
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - HIRIGINTZA PLANGINTZA ZERBITZUA

ALDERDI OROKORRAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Gidalerroen (aurrerantzean LAG) 22.2.2.II.a atalean jasotako zehaztapen lotesleak, zuzenean aplikatzekoak, Ingurune Fisikoaren Antolamenduari dagokion 8. ataleko 7.A puntua, Legez Babestutako Espazioei buruzkoa, lotesle modura adierazten du. 7.A puntu horretan adierazten denez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren antolamendu eta kudeaketa espezifikoa Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen (aurrerantzean UBEL) arabera egingo da.

Hori, aldi berean, Gernika-Markina Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (aurrerantzean LPP) behin betikoz onartzeko martxoaren 1eko 31/2016 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasotzen da, eta baita hartako I. eranskinaren 24.3 artikuluan ere, eremu funtzionala antolatzeko arauei buruzkoan.

Bigarren Xedapen Gehigarria

Lurralde-plan partzial honen 24. artikulua arabera, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren antolamendua eta kudeaketa bere legeria sektorial espezifikoa jasota dauden tresnen arabera egiten da, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidarien (EKEG) bitartez arautzen dira lurzoru urbanizaezinen kalifikazioa, erabileren eta jardueren araubidea eta eraikuntza-ekintzen araubidea.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren esparruan, ekipamendu- eta asentamendu-proposamenak lurralde-plan partzial honetan adierazitakoak izango dira, bai eta azpiegituren eskemak ere. Hala ere, proposamen horien kokalekua eta behin betiko trazadura Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilpenerako eta Kudeaketarako Egitamu Gidarien (EKEG) arabera ezarriko dira, horko lurzoru urbanizaezinerako garapen-tresnak erabilia.

24. artikulua.- Babes figura bereziak dituzten Espazio Naturalak eta Elementu Bereziak.

(...)

3.- *Urdaibaiko Erreserbaren eremuko erabileren eta jardueren araubide aplikagarria, abuztuaren 3ko 242/1993 Dekretuak onartutako Urdaibaiko Biosfera Erreserba Erabili eta Kudeatzeari buruzko Egitamu Gidarian (EKEG) ezarritakoa da; egitamu hori Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legearen babesean idatzita dago. LPP planak informazio-ondorioetarako EKEK egitامuan ezarritako zonifikazioa adierazten du, zehaztaperen grafikoetan.*

Bestalde, UBEL Legearen 15. artikuluan, bere garapenean Urdaibaiko Biosfera Erreserba Erabili eta Kudeatzeari buruzko Plan Zuzentzaile bat idatzi eta onartzea aurreikusten da, besteak beste, hirigintza-plangintzaren aurretik lehenestekoa. Horrenbestez, hartako zehaztaperenak bateraezinak direnean indarreko hirigintza-araudian ezarritakoekin, azken hori ofizioz egokituko dute eskumeneko organoek.

ALEGAZIOAK ANALIZATZEA ETA HORIEI ERANTZUNA EMATEA

A Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Ulertzen da Erabilera Publikoko Mendiak (aurrerantzean EPM) ez dutela antolamendu-kategoria bat osatu behar. Aitzitik, lurzoru urbanizaezinerako kategoria ezberdinetan gainjarritako baldintzatzailetzat jaso beharko litzateke eragindako eremuen barnean.

Horri dagokionez, adierazten da Erabilera Publikoko Mendiak lurzoruaren jabetza publikoari erantzunez zedarrizten direla, eta kategoria hau finkatuta, basoen babes lehenestea gerta litekeela babes-maila handiagoko beste zona batzuen gainetik, esate baterako, Urdaibaiko Ibai Sarearen babes eremuen gainetik (B4.1 eta B4.2).

2. Analisia eta inguruabarrak

Mendi eta Babestutako Natura Guneen Administrazioari buruzko (aurrerantzean Mendietako Foru Araua) ekainaren 2ko 3/94 Foru Arauaren 9. artikuluan, erabilera publikoko mendien eta babesleen hirigintza-kalifikazioari buruzkoan, adierazten denez, erabilera publikoko mendiak babes berezikotzat eta ez urbanizagarritza jo eta kalifikatuko dituzte hirigintza-plangintzaren tresna ezberdinek. Gainera, adierazten denez, kalifikazio hori edozein modutan aldatzeko ezinbestekoa izango da Nekazaritza Sailaren onespen zehatza.

Plan Zuzentzaileak, hirigintza-plangintzaren gainetik lehenesteko tresna den aldetik, eta Mendietako Foru Arauaren 9. artikuluan nahiz Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 53. artikuluko 4. atalean adierazten denaren arabera, egokitzen jo du Erabilera Publikoko Mendiak antolamendurako beste azpikategoria baten modura txertatzea. Horretarako, eta UBEL Legearen arabera babes berezikotzat kalifikatutako lurzoruak, Natura Ondarearen eta Bioaniztasunari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen (aurrerantzean 42/2007 Legea) 70. artikulua aplikatuz, Nukleo Gaiak kategorian barneratu direla, Gaiak kategoria horretan beste kalifikazio bat osatzearen alde egin da, Erabilera Publikoko modura deklaraturako Mendietako Eremu izendatua.

Horri dagokionez, adierazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan (LAG) babes bereziko ingurune fisikoko lurzoruaren kategoria bakarra jasotzen

den bitartean, biosfera erreserba-ereduaren barnean (42/2007 Legea) babes bereziko lurzoruei dagokionez aparteko bi kategoria identifikatzen dituela uler daitekeela: bat nukleo erakoa, nagusiki kontserbaziora bideratua eta, nukleoa babesteko beste bat, non ingurune fisikoari dagokion jarduera zenbait burutu baitaitezke, betiere, nukleo guneak babesteko xedez.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Natura Ingurune Sailak egindako bederatzigarren alegazioari erreparatuz, egokiagotzat jo liteke Erabilera Publikoko Mendiak Nukleoa Babesteko Gainkategorian barneratzea.

42/2007 Legean aurreikusitakoarekin bat etorritz, eremu berean kalifikazio hori eta Nukleo Gainkategoria kalifikazioak elkartzen direnean, beste kalifikazioak lehenetsiko dira Erabilera Publikoko Mendiak kalifikazioen gainetik. Haatik, kalifikazio hori Gainkategoria bereko (Nukleoaren Babesa) beste kalifikazio batzuekin edo Trantsizio barnekoekin batera agertuz gero Erabilera Publikoko Mendiak kalifikazioa lehenetsiko da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

Haatik, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Natura Ingurune Sailak beste alde batetik proposatutakoari erreparatuz, Erabilera Publikoko modura deklaraturako Mendiak Eremua (EPM) Nukleoa Babesteko Gainkategoriatik mugitzea proposatzen da. Horretarako, 2.3.1.6 artikulua ezabatu eta II. Tituluko 3. kapituluko bigarren sekzioan beste artikulua bat sortzea proposatzen da:

~~2.3.1.6 artikulua. Erabilera Publikoko modura deklaraturako Mendiak Eremua (EPM) Eremua (N6).~~

~~1. Antolamendu-kategoria:~~

- ~~i. Erabilera Publikoko modura deklaraturako Mendiak Eremua (EPM) Eremua (N6). Bizkaiko Foru Aldundiak horrelakotzat deklaraturako eremua hartzen du, eremu horren barnean N.3, N.4 edo N.5 kalifikazioa duten zonak izan ezik. Eremu horretako erabileren erregulazioa Mendiak eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan dago jasota, edo horren ordezkotza edo garapenerako araudian. Erabileren baten kasuan erregulaziorik ez badago, 'B4.2. Ibai-sarera isurtzen duten arroetako babespeko zonak' kalifikazioaren kasuan adierazia aplikatuko da.~~

2.3.2.7 artikulua. Erabilera Publikoko modura deklaraturako Mendiak Eremua (EPM) Eremua (B7).

1. Antolamendu-kategoria:

- i. Erabilera Publikoko modura deklaraturako Mendiak Eremua (EPM) Eremua (B7). Bizkaiko Foru Aldundiak horrelakotzat deklaraturako eremua hartzen du, eremu horren barnean N.3, N.4 edo N.5 kalifikazioa duten zonak izan ezik. Eremu horretako erabileren erregulazioa Mendiak eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan dago jasota, edo horren ordezkotza edo garapenerako araudian. Erabileren baten kasuan erregulaziorik ez badago, 'B4.2. Ibai-sarera isurtzen duten arroetako babespeko zonak' kalifikazioaren kasuan adierazia aplikatuko da.

B Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Plan Zuzentzailean, Landa Guneetarako proposatzen den mugaketari dagokionez, adierazten da litekeena dela, zenbaitetan, hura ez bat etortzea Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean ziletzen diren hazkundeekin. Aipaturako mugaketak orientagarriak direla eta gunea udalerriko

Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean edo, hala badagokio, Plan Berezian antolatzea eta behin betiko mugaketa, zilegitutako hazkundearen arabera, ezar dadila adierazteko eskatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Bizitegi Kokaleku Nuklearren Eremuei buruzko 2.3.3.3 artikuluko 2. atalaren lehen puntuan adierazten denez, Landa Guneetako eremuetako (T3.NR) mugaketa *aldatu egin ahal izango da HAPO plana edo dagokion Plan Berezia onartuta*.

Ildo horretatik, Plan Bereziei buruzko 5.2.3 artikuluko 4.e. atalean jasotzen denez, tresna horiekin xehatuko da eta horietan barneratuko da Landa Gunearen perimetroaren mugaketa.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

C Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Bizitegi Kokalekuen Eremuan barneratutako Biztanlegune Kontsolidatutako Zonei dagokionez adierazten da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean landa guneetako bizitegi-elkartek aurreikusten direla soilik.

Gainera, adierazten da, eremu horietatik kanpo, nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiagunearekin lotuta ez dauden etxebizitzak finkatzea berariaz debekaturik dagoela, eta lurren landa izaera mantentzea ziurtatu beharko dela eta gutxienez lau bizitegi-eraikinen elkarketarekin sor daitekeen biztanleguneak eratzeko arriskua ekidin behar dela. Ondorioztatzen denez, hirigintzari buruzko legeria aplikatuz, egoera horretan (landa gunearen eremuetatik kanpo) dauden eraikinak ez datoz bat plangintzarekin, eta horien bizitegi-erabilerak izaera toleratua du.

Azkenik, adierazten da ez dela onargarria eremu horiek Bizitegi Kokaleku Nuklearren Eremuetan barneratzea, eta landa guneetarako asimila daitekeen erregulazio bat ematea nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiagunearekin lotuta ez dauden bizitegi erako eraikin berriak finkatzeko aukera dutenak salbuetsita.

Halaber, adierazten da ez dela onargarria beste erabilera batzuetarako ezartzea, gutxienez 2.000 m²ko lurzatiak, laborantzarako gutxieneko unitateak errespetatzen ez badira (3.5.1.3 artikulua), eta horrek partzelazioa ekar dezakeela etorkizunean hura betetzea eragotziz.

2. Analisia eta inguruabarrak

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan dauden biztanleguneak bizitegi-kokaleku nuklear modura kalifikatzeari buruz

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 29.1 artikulua arabera, landa gunea baserriz osatutako multzo bat da, nortasuna ematen dien herri gune baten inguruan bilduta dagoena, eta gutxienez sei baserri eta gehienez hogeita bost dituena. Horrenbestez, sei baserri baino gutxiagoko edo hogeita bost baserri baino gehiagoko multzoak ez lirateke landa gunetzat hartu behar, ezta sei eta hogeita bost baserri arteko multzoak, nortasuna ematen dien herri gune baten inguruan bilduta ez badaude.

Plan Zuzentzailean Landa Guneeko Zona modura kalifikatzen da soilik (2.3.3.3 artikuluko 2. ataleko lehen lerroaldea) Bizkaiko Foru Aldundiak 2016ko otsailean onartutako landa guneen inbentarioan barneratzen diren baserri multzoak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen

29.7 artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea garatzeko premiazko neurrien gaineko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 7. artikulua). Inbentario honek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean adierazitakora egokituko liratekeen 41 baserri multzo identifikatu ditu Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan.

Haatik, 1993. urtetik indarrean den Plan Zuzentzailean Biztanlegune Eremuetakoak barneratzen dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinerako kalifikazioen artean. 67. artikuluan horrela definitzen da kalifikazio hori:

Bata bestetik hurbil dauden eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babes eta Antolaketaari buruzko 5/1989 Legea indarrean sartu zenean egon zeuden nekazal eta egoitza-eraikinez osatutako eremuak dira eta gune bat eratzen dute.

Haien helburu nagusia lurraldeko ekoizpen-jarduerak burutzeko beharrezkoak diren eraikinak barneratzea da, ingurune naturalaren eragin-indar negatiboa gutxituz.

Hirigintzari buruzko legeriaren ondorioetarako, Egitamu Gidari honi jarraikiz kalifikatutako biztanlegune eremuak lurzoru ez urbanizagarri modura sailkatuko dira.

Indarreko Plan Zuzentzailearen IV. Eranskinean, lurzoru ez urbanizagarriaren zonifikazioari buruzkoan, behin betikoz antolatutako eta mugatutako biztanleguneak (NR) eta hala ez daudenak (NS) bereizten dira.

1993. urtean onartutako Plan Zuzentzaileak elkarrengandik hurbil zeuden 73 nekazal eta egoitza-eraikin gune identifikatu ziren; horietako 49 behin betiko antolamendu eta mugaketarik gabe (NS) kalifikatu ziren eta 24 behin betikoz antolatu eta mugatuak (NR). Beranduago, 2003. urtean, Plan Zuzentzailea aldatu zenean, IV. eranskinean 77 gune identifikatu ziren. Horietako 18 behin betiko antolamendu eta mugaketarik gabe (NS) kalifikatu ziren eta 59 behin betikoz antolatu eta mugatuak (NR).

Adierazi den moduan, landa guneen inbentario honek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean adierazitakora egokituko liratekeen 41 baserri multzo identifikatu ditu Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan. Horietako 39 indarreko Plan Zuzentzaileak behin betikoz antolatu eta mugatutako (NR) gune modura kalifikatutako biztanleguneei dagozkie eta bi (Kanala Sukarrietan eta Gautegiz-Arteaga, eta Akorda Ibarrangelun) antolamendu eta mugaketarik gabeko (NS) guneei.

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzaileak, 2.3.3.3 artikuluko 2. atalaren bigarren lerroaldean jasotzen den moduan, indarreko Plan Zuzentzailearen 67. artikulua arabera, biztanlegune bat osatzen duten gainerako 36 eraikin-eremuak Biztanlegune Kontsolidatutako Zona modura identifikatzen ditu.

Hots, informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean, Biztanlegune Kontsolidatutako Zona azpikategoria identifikatzean (II. Tituluko 3. kapitulua), lurraldearen errealitate bat aitortu baino ez da egiten, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren lurraldea antolatzeko tresnak (Plan Zuzentzailea) dagoeneko halakotzat identifikatua duela 23 urtetik. Errealitate hori horretarako berariazko kalifikazio batekin konfiguratzeko dela adierazten denean, gainera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 53.4.a artikuluan xedatutakoari egiten zaio erreferentzia. Bertan adierazten denez, lurzoruaren kalifikazioan, lurraldea antolatzeko tresnetan haietarako aurreikusitako kategoriak gaineratzeaz harago, plangintza orokorrean egokitutako antolamenduaren azpikategoriak barneratu ahal izango dira. Horri dagokionez, oroitarazi behar da Plan Zuzentzailea, aldi berean, lurraldearen antolamendua finkatzeko tresna ere badela (LAG eta LPP) eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren hirigintza-plangintzaren gaintik lehenestekoa dela (UBEL legearen 15. artikulua).

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 28.1.a artikuluan barneratzen den zehaztapenaren arabera¹, berariaz adierazten da

¹ **28. artikulua**– Erabilerak eta jarduerak.

1.– Lurzoru urbanizaezina bere osotasunean:

(2.3.3.3 artikuluko 2. atalaren bigarren leerroaldeko ii. azpiatala) Plan Zuzentzaileak (edo hura garatzeko tresnek) mugatutako biztanlegune kontsolidatutako zonetan (T3.NPC) ez dela nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiagunearekin lotuta ez dauden etxebizitza-bizitegien oin berririk eraikitzea baimenduko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 28.4.a artikuluan adierazten denez, arrisku hori dago, baldin eta bizitegi eraikin bat egiteak eragiten baldin badu udal plangintzak ezarritako distantzia parametroen barruan bizitegi erabilerako gutxienez lau eraikin egotea. Bizitegi-eraikin bat eraikitzea aurreikusten ez denez, nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiagunearekin lotutakoez aparte (Trantsizioko Landa-paisaia Zonetan -T1.PRT- ere baimenduak), Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeari so biztanlegunerik osatzeko arriskurik ez dagoela ulertzen da. Are gehiago dagoeneko biztanlegune bat denean, kasu honetan, kontsolidatua.

Adierazi behar da, Plan Zuzentzailearen helburua Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezin guztien landa izaera ziurtatu eta mantentzea dela. Horretarako, lurzoru berriak antropizatu eta eraldatu beharrean, aurretiaz dagoen eraikin ondarea berrerabiliz, lurzoru urbanizaezin batean egon beharreko hornidura eta ekipamenduak txertatzearen alde egiten da, aurretiaz dauden bizitegi-kokaleku nuklearretatik hurbil egon behar direnak, ingurumen arloko arazoak direla medio, zerbitzuetatik gertu egoteko edo lurzoruaren eraldaketa-maila aintzat hartuz. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen hornidura edo ekipamendu horiek landa guneetako zonetan kokatzea baimentzen ez bada ere (29.6 artikulua), beste kalifikazio batzuetan kokatzea baimentzen da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 28.5.a artikulua eta 105/2008 Dekretuaren 4.2. artikulua). Plan Zuzentzailean horiek lurraldean dauden bizitegi-kokaleku nuklearren beste azpimultzora bideratzea proposatzen da nagusiki; hau da, Biztanlegune Kontsolidatuen Nukleoetara (T3.NPC), izan ere, Urdaibaiko lurzoru urbanizaezinen barnean dauden eremu antropizatuenak eta zerbitzu gehien hartzen dituztenak direla uste da.

Aurrekoa gorabehera, eta halako irismena duen kalifikazio bat Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremurako soilik sortzea eztabaidagarria izan daitekeela ikusirik, eta administrazio eta elkarte ezberdinek planteatutako alegazio ugariak kontuan hartuta, kalifikazio hori kentzea eta lurraldean egon badagoen errealtate bat (landa gunearen ereduarekin bat ez datozen bizitegi multzoak) identifikatzeko balizko premiari eta landa ingurunean finkatu beharreko hornidura eta ekipamenduak jartzeko kokaleku egokiari buruzko gogoeta egitea proposatzen da, autonomia erkidego osoko lurralde-eskala batean.

Partzelazio aukerari eta partzelen gutxieneko azalerari buruz

Partzelazio aukerari eta Biztanlegune Kontsolidatuetan hornidura berrietarako zehaztutako gutxieneko lurzati-dimentsioei dagokienez, adierazi behar da Plan Zuzentzailean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 41., 38., 39. eta 40. artikuluetan xedatutakoaren arabera, bere aplikazio-eremuan edozein hirigintza-partzelazio debekatzen dela, zehazki, 3.5.2.1 artikuluko 1. atalean. Inguruabar hori dela medio, alegazioan aipatzen den partzelazioa ezinezkotzat jotzen da, erabat.

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean, indarreko Plan Zuzentzailean biztanleguneei buruz ematen den definizioarekin bat etorriz (67. artikulua), lurzoru urbanizaezinean nahiz nekazaritza eta abeltzaintza eta landazabaleko intereseko eremuetan (T1), gauzatzeko oin berriko nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak aurreikusten dira (abeltzaintza-jardueratik eratorritako produktuak arazteko instalazioak salbuetsita) 2.000 m²tik gorako azalerak bizitegi-kokaleku nuklearren eremuetan (T3) hartzeko partzeletan; beste hainbeste gertatzen da langaiak eta makina txikiak biltegitzeko instalazioen nahiz landare-

a) Ez da egokia hirigintza eduki edo helburua duten ekitaldien, erabileren edo jardueren euskarria izateko. Izan ere, aukeratutako lurzoria okupatzeko ereduaren arabera, desegokiak dira. Espresuki debekatuta dago eraikuntza berriak egitea, helburua etxebizitzak egitea bada.

Aurreko leerroaldeko arau horrek ez du eragotziko, dena den, baratzezaintza edo abeltzaintza ustiagune ekonomiko bat etxebizitza gisa erabiltzeko baimena ematea jabe eta kudeatzaileari, eta bere familia unitateari. Horretarako, beharrezkoa duela frogatu beharko du, eta etxebizitza ustiaketa horri lotuta geratuko da, funtzionalki eta era iraunkorrean.

espezieak landatu eta autokontsumitzeko instalazioetan (4.4.5.39. artikulua). Osasun eta maneirako instalazioen kasuan, oin berriko exekuzioa biztanlegune kontsolidatuetan (T3.NPC) soilik baimentzen da, edo bizitegi-kokalekuen eremu osoan baldin eta aurretiaz dauden Eraikinetan gauzatzen bada; bi kasuetan, lurzatiko gutxienez eskatzen den azalera 2.000 m²koa da.

Halaber, Eraikuntza multzo hauen landa izaerarekin bat etorriz, Plan Zuzentzailean gutxienez 2.000 m²ko azalera hartzeko lurzati bat proposatzen da basoko langaiak biltegitatu eta mantentzeko instalazioetarako (lore zaintzako mantenturako eta Eraikuntzak hartzeko partzeletan landareak inautesteko modalitateetan), oin berrikoak edo, aurretiaz dagoen erabilera aldatuz (4.4.3.22. artikulua) gauzatzekoak.

Lurzatiko gutxienerako azalera hori bera (2.000 m²) aintzatesten da lurzoru urbanizaezinen barnean zerbitzu eta irisgarritasun handieneko zonetan ezarri beharko liratekeen hornidura- eta ekipamendu-erabilerak txertatzeko, eta baita landa guneetan ere.

Adierazi behar da Plan Zuzentzailean biztanlegune kontsolidatu (T3.NPC) modura kalifikatutako lurzoruen multzoan dauden 2.000 m²tik gorako azalera partzelen portzentajea, kalifikazio horretako lurzati guztiak kontuan hartuz, ez dela % 27ra iristen.

Edozein kasutan, eta alegazio honetako aurreko atalean adierazitakoa kontuan hartuz, Biztanlegune Kontsolidatuko zonetan (T3.NPC) erabilerak txertatzeko aukerari dagozkion erreferentziak kentzea proposatzen da.

Bestalde, informazio publikora eramateko Plan Zuzentzaileak bere kalifikazioen artean Biztanlegune Kontsolidatuak (T3.NPC) identifikatzea eragin duen arauaren inguruabarretako² bati dagokionez, egiaztatu da dokumentuan erkidegoko konpostajerako (4.4.4.25 artikulua) eta biomasa kolektiboen (4.4.4.26 artikuluko 5. atala) azpiegituren planta berri bat txertatzea aurreikusten dela, beste kalifikazio batzuen artean, baita bizitegi-kokaleku nuklearren eremuetako (T3.NR) Landa Guneetako eremuetan ere. Era berean, T3.NR kalifikazioan ekipamendu soziokulturala txertatzea aurreikusten da (4.4.5.5 artikulua), erabilera aldatuz. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen (LHL) 29.6 artikuluan xedatutakoa ikusirik, zeinaren arabera landa guneetan hornidura edo ekipamendu berriak zehaztu ezingo den, hiru artikulua zuzendu egin beharko liratekeela uste da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan dauden biztanleguneak bizitegi-kokaleku nuklear modura kalifikatzeari buruz

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da.

Haatik, kontu horren irismena aintzat hartuz, Biztanlegune Kontsolidatuen Zonetako kalifikazioa (T3.NPC) kentzea eta horri buruzko azterketa Euskadi osora hedatzea proposatzen da. Horrenbestez, 2.3.3.3 artikulua berridatzi egin beharko litzateke:

2.3.3.3 artikulua. Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremua (T3).

1. Antolamendu-kategoria:

- *Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremuak (T3): Bata bestetik hurbil dauden eta gune bat osatzen duten bizitegi- eta nekazaritza-eraikinen multzoekin bat dator. Hirigintzari buruzko legeriaren ondorioetarako, Plan Zuzentzaile honi jarraikiz kalifikatutako bizitegi-kokaleku nuklearrak lurzoru ez urbanizagarri modura sailkatuko dira, eta ez da berriro sailkatzeko aukerarik izango.*

2. Antolamendu-azpikategoria:

² Plangintzaren arabera Landa Guneetan hornidura edo ekipamendu berriak zehazteko ezintasuna (LHL legearen 29.6. artikulua).

- T3.NR, Landa Guneko Zona: Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako Landa Guneen Inbentarioan barneratzen diren bizitegi-kokaleku nuklearrek osatzen dute. Betiere, horren ondorioz Gunearen edo Gunea Babesteko Gainkategorietan barneratzen diren lurzoruak gutxitzen ez badira, mugaketa aldatu egin ahal izango da HAPO plana edo dagokion Plan Berezia onartuta.
- ~~T3.NPC, Biztanlegune Kontsolidatuaren Zona:~~
 - i. ~~Kalifikazio honetan sartzen dira hurrenak:~~
 - ~~Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen aurreko legeriak antolatutako edo mugatutako guneak, eta aipatu Legearen aplikazioan eta 29. artikuluan aipatzen den Inbentarioan xedatutakoaren arabera, Landa Gunetzat hartuko ez liratekeenak.~~
 - ~~Bata bestetik hurbil dauden bizitegi eta nekazaritza-eraikinak, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko 5/1989 Legea indarrean sartzean egon bazoudenak, gune bat osatzen dutelarik eta 2/2006 legean zehazten diren baldintzetan Landa Guneen Inbentarioan sartzen ez direlarik, Plan honen arabera halakotzat mugatzen direnak.~~
 - ii. ~~Plan honetan, edo hura garatzeko tresnen bidez, mugatutako biztanlegune kontsolidatuaren zonetan ez da nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiagunearekin lotuta ez dauden etxebizitza-bizitegien oin-berririk eraikitzea.~~
 - iii. ~~Zona horiek Plan honen arabera interes publikoa duten eraikinak hartzeko balizko zonatzat hartuko dira.~~

Gainera, artikuluetan Biztanlegune Kontsolidatuaren Zonen (T3.NPC) inguruan egiten diren aipamen guztiak kendu egin beharko lirateke. Dokumentazio grafikoan zona horiek berriro kalifikatzea proposatzen da, Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa-paisaia Zona modura.

Partzelazio aukerari eta partzelen gutxieneko azalerari buruz

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da.

Haatik, LHL legearen 29.6 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, komenigarritzat jotzen da hauek berridaztea:

- 4.4.4.25 artikuluko 2.a eta 3 atalak:
- (...)
2. *Ingurumeneko sailburuordearen 2015eko urriaren 19ko 1/2015 Aginduan EAEko lurralde-eremuan erkidegoko konpostaje-instalazioek betetzeko administrazio-prozedurei edo hura ordeztzeko arauari buruz barneratzen den erregulazioaz gainera, plan honetan zehaztaper hauek barneratzen dira:*
 - a. *Instalazio hauen zerbitzuaren hartzaile diren Eraikinak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera Bizkaiko Lurralde Historikorako zehaztutako Laborantzarako Gutxieneko Unitatea izango da, baldin eta lurzati ez badago Bizitegi-kokaleku Nuklearron Eremuetan (T3.PNPC) kokatuta, kasu horretan 2.000 m²koa izango baita.*

(...)
 3. *Instalazio horiek Plan honetan Trantsizioko Landa-paisaia Zona (T1.PRT) modura kalifikatutako lurzoruetan, Bizitegi-kokaleku Nuklearron Eremuetan (T3) eta Sistemen Eremuetan (T4) kokatzea baimentzen da.*
- 4.4.4.26. artikuluko 5.b.iii eta 5.c atalak:
5. *Biomasa-instalazio kolektiboak-pellet edo ezpalak erretzeko instalazioak- jarri ahal izango dira, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezineko Trantsizio eta Gunearen Babes Gainkategorietan kokatutako aurretiazko Eraikunei zerbitzua ematearren. Era*

berean, horrelako instalazioak oin berriko Eraikuntzetan ezartzeko aukera aurreikusten da. Horrelakoak ezartzeko uneko zehaztapenak:

(...)

b. Era berean, biomasa-instalazio kolektiboak oin berriko Eraikuntzetan jarri ahal izango dira. Zehaztapen hauek bete beharko dira:

(...)

iii. Oin berriko biomasa-instalazio kolektiboak hartzeko lurzatiaren gutxieneko azalera nekazaritzako gutxieneko lurzattia izango da, ~~baldin eta lurzattia ez badago Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremuetan (T3) kokatuta, kasu horrotan 2.000 m²koa izango baita.~~

(...)

c. Plan honetan instalazio mota horien oin berriko eraikinak Urdaibaiko Biosfera Erreserban kokatzea aurreikusten du soilik Trantsizio Gainkategoria modura kalifikatutako lurzoruetan, Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremuetako Landa Guneetako Zonak (T3.NR) salbuetsita.

- 4.4.5.5 artikuluko 3.a atala:

3. Mota honetako jarduerak ezarri ahal izango dira erabilera baimenduak, toleratuak edo iraungiak dituzten eraikinetan, baldin eta ondoko zehaztapen hauek betetzen badira:

a. Eraikina Trantsizio Gainkategoriaiko lurzoruetan kokatuta egon beharko da, Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremuetako Landa Guneetako Zonak (T3.NR) salbuetsita. Halaber, lurzati hartzaileak, gutxienez, nekazaritzarako gutxienez ezarritakoa gainditzen duen azalera izan beharko du, ~~baldin eta lurzattia ez badago Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremuetan kokatuta, kasu horrotan azalera 2.000 m²tik gorakoa izan beharko baita.~~ Eraberritzeko edo berreraikitze esku-hartzeez gain, eraikin hauetan handitze-lanak egin ahal izango dira, azalera eraikinaren % 15eko batez.

D Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Sistema-Eremuari buruzko 2.3.3.4 artikuluko 1. atalean adierazten den edukia berridazteko eskatzen da. Derrigorrezkoak baino ezingo direla finkatu adierazi behar dela adierazten da, eta LHL legearen 28.5 artikuluan adierazitako moduan egin behar dela.

2. Analisisa eta inguruabarrak

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean, LAG, LPP, LAP ezberdinak eta LHL legearen 53.4 artikulua aintzatetsiz, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezina antolatzeke kategoriak eta azpikategoriak (eremuak eta zonak) identifikatzen dira, zehazki, II. tituluaren Bestalde, LHL legearen 28.5 artikulua eta 105/2008 Dekretuaren 4.2 artikulua aintzatetsiz, interes publikoko erabileren ezaugarriak zehazten dira 3.2.2.6 artikuluan.

Haatik, arauarekin lotutako gaizki-ulturirik gerta ez dadin, egokitzat jotzen da jasotzea, lurzoruari buruzko legean erabiltzen den terminologian, Sistema-Eremuak bat datozela Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean "finkatu beharreko" hornidurak hartzera bideratutako eremuekin.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea** erabaki da.

2.3.3.4 artikuluko 1. atala berridaztea proposatzen da, lurzoruari buruzko legean erabiltzen den terminologiara egokitzeko:

1. Antolamendu-kategoria:

- *Sistema-Eremua (T4). Bere izaera eta ezaugarriak kontuan hartuz, lurzoru urbanizaezinean kokatu daitezkeen beharrekoak diren eta lurraldearen garapenerako ezinbestekoak diren oinarritzko azpiegiturak eta erkidegoko ekipamenduak hartzera bideratutako eremuekin bat datoz.*

E Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Lehentasunaren arabera erabileren sailkapena (3.2.2.1 artikulua) aldatzea proposatzen da, informazio publikora eramateko Plan Zuzentzaileak burutzen duen erabilera berezi eta bateragarriaren ordeztu, erabilera bultzatu eta onargarria ipinita.

2. Analisia eta inguruabarrak

LAG gidalerroetan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan, haietan onargarri modura eta plangintza-tresna ezberdinekin arautzeko modura barneratzen diren erabilera guztiak aurreikusten dira, bizitegi erako erabilera isolatua salbuetsita, debekatu modura agertzen baita. LPP planak Plan Zuzentzaileari heltzen dio erabileren araubideari dagokionez (2. xedapen gehigarria).

Hori eta txosten honetako alderdi orokorretako atalean adierazitakoa kontuan hartuz, ez luke zentzurik izango erabilerak lehentasunaren arabera bultzatutako eta onargarri modura identifikatzea, izan ere, Plan Zuzentzaileak lurralde-eremua gainditu egiten du eta lurzatia, lurzoru eta Eraikinen erabileren araubidea, berezi eta bateragarri modura xehatzen ditu.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

F Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Adierazten da Plan Zuzentzaileak esku-hartze ugari ahalbidetzen dituela, baita erabilera ugari txertatzea ere iraungitako Eraikinetan, 3.2.2.7 artikuluan ezarritakoari erreparatuz.

2. Analisia eta inguruabarrak

3.2.2.7. artikuluko 2. ataleko bigarren lerroaldean adierazten denaren helburua premiazko neurriek buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan ezarritakoa zehaztea da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatuz. Zehazki, dekretu horretako 9. artikuluan, bigarren atalean, zera adierazten da:

Baserriak berreraikitze baimena, soilik, baserriak jotzeko modua ematen duen egitura eraikia gordetzen dutenean emango da. Eraikinen murruei hondarrak ezin izango dira inoiz ere berreraiki, ez baldin badira jatorrizkoen gailurrera iristen; eta, oro har, ezingo dira berreraiki jatorrizko higiezinaren oina jakiteko modurik ematen ez duten hondarrak, eta ezta ere jatorrizko higiezin horren jatorrizko bolumetria jakiteko modurik ematen ez dutenak.

Hori dela eta, Plan Zuzentzailearen artikulua horretan adierazten denez, Eraikinen oina eta jatorrizko bolumetria zein den jakitea zilegi izan beharko da haren jatorrizko perimetroaren bidez, eta fatxada nagusian edo atzekoan, alboetako murruei eta gailurraren jatorrizko egoera identifikatuz. Zehaztapen horren bidez, zehaztasun gehiago zein Eraikin mota berreraiki daitezkeen eta zein ez zehaztu ahal izango dela uste da. Horretarako, Plan Zuzentzailean Eraikin horiek, 105/2008 Dekretuaren 9.2 artikulua aplikatuz berreraikitze modukoak direnak, aurretiaz zeuden Eraikin modura identifikatzen dira (3.2.2.9 artikuluko 1. atala).

Bestalde, Plan Zuzentzailean, 3.2.2.2 artikuluko 1.F atalean, erabilera iraungia aurretiaz zegoen eta dagoeneko desagertuta dagoen jarduera modura zehazten da.

Hori guztiori kontuan hartuz, Plan Zuzentzailean erabilera iraungia duten eta aurretiaz zeuden Eraikinetan (iraungita ez daudenak eta, horrenbestez, berreraiki daitezkeenak LHL legearen arabera) erabilera jakin batzuk eta eraikuntzarekin lotutako esku-hartze jakin batzuk ahalbidetzen dira.

Plan Zuzentzailearen helburu nagusietako bat Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezineko premiei erantzutea eta beharrezkotzat jotako jarduerak txertatzea eta, horiek guztiak, nagusiki, aurretiaz eraikita dagoen ondarea erabili eta berreskuratzera bideratzea da. Gainera, lurralde-eremuan egiaztatu denez, ondare horren hartzaile diren partzeletan dagoeneko gainerako lurzoruan baino antropizazio eta zerbitzu gehiago dago, eta modu horretan landa ingurunea berriro eraldatzea ekiditen da.

Horretarako, eta LHL legera egokitzeko helburuarekin, Plan Zuzentzailean 30. artikuluko 1. atalean aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten Eraikinak (3.2.2.7 artikuluko 2. atala eta 3.2.2.2 artikuluko 1.F atala) berreraikitze modukotzat aipatzen diren eraikinak identifikatzen dira. Berreraiki ezin diren eraikinak iraungitako Eraikintzat hartuko dira (3.2.2.7 artikuluko 2. atala).

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan gaur egun 2.193 bizitegi-eraikin daude. Horietatik 576 (% 26,27) informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailearen III. Tituluan txalet eta etxebizitza kolektibo modura identifikatutako tipologiekin datoz bat. Gainerako bizitegi-eraikinak (1.617) kontuan hartuz, % 86 baserriekin datoz bat (familiabakarrekoak % 47,25 eta bi familiakoak % 38,47), % 8,97 ohiko etxe tradizionalarekin, eta gainerakoak (% 5,32) errota, dorretxeak eta jauretxe edo jauregiak dira.

1950. urtearen aurretiko bizitegi-eraikinen artean, 1999. urtean 192 eraikin abandonu³ egoeran zeudela egiaztatu ahal izan da (1950. urtearen aurretiko eraikin guztien % 11,87), eta 2013. urtean, berriz, 195 (% 12,06)..

Abandonatu edo utzitako eraikin horien artean, azken 14 urteotan iraungitako Eraikin egoeran dauden eraikinen portzentajea % 30,65 areagotu da (egoera horretan 62 eraikin izatetik 81 izatera pasa dira) eta aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten Eraikinak % 12,31 gutxitu dira. Haatik, azken datu horri dagokionez, adierazi behar da azken 14 urteotan utzitako 192 eraikin horietatik 28 berreraiki eta eraberritu egin direla (guztiak aurretiaz zeuden eta erabilera iraungia zuten Eraikinak ziren); horrenbestez, egiaz, aurretiaz zeuden eta erabilera iraungia zuten Eraikinen portzentajea % 9,23 areagotu da.

Inguruabar horren aurrean, Plan Zuzentzailean eraikin horiek berreraikitzea aurreikusten da, bakoitzaren tipologia eta kokapena kontuan hartuz, interes publikoko erabilerak emateko, hornidura eta ekipamendu erabilera hartuz (gune zoologikoak, soziokulturalak, eskola-alojamenduak, irakasleenak, osasun-alojamenduak, erlijio gurtzan erabiltzeko) edo izaera turistikoa bereganatuz (landetxe erako alojamentu turistikoak, etxeak, hotelak edo landa-aterpetxeak, edo jatetxeak). Era berean, haietan jatorrizko bizitegi-erabilera berrezartzeko aukera ahalbidetzen da.

LHL legean haiek aipatzen ez badira ere, abandonu egoeran dauden nekazaritza eta abeltzaintzako instalazioak ikusirik, eta aurretiaz eraikita dagoen eta berreskuratzeko modukotzat har daitezkeen ondarea berreraikitze xedez, Plan Zuzentzailean hainbat erabilera txertatzea aurreikusten da (lanabesen biltegia, ustiagunearekin loturarik ez duten lehen eraldaketako nekazaritzako elikagaien industriak edo baso-industriak, azken horiek ere lehen eraldaketakoak) aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten instalazioetan.

³ Egoera horretan sartzen dira erabilera desagertuta duten eraikinak edota eraikuntza-elementuak (estalkia, barneko egitura edota murrak) zati batean edo osorik galduta dutenak.

Aurrez adierazitakoa gorabehera, eta nahasteak ekiditeko xedez, egokitzen jotzen da 3.3.3.5 artikuluan argitzea aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten Eraikinak berreraikitze esku-hartzeak, Plan Zuzentzailearen ondorioetarako, eraberritzeko esku-hartze modura hartuko direla.

Azkenik, adierazi behar da partikularrek egindako alegazioak kontuan hartuz eta honakoarekin lotuta, egokitzen jotzen dela adieraztea iraungitako Eraikin modura zer hartu behar den zehazteko definizioa Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean gehien agertzen den tipologiari (baserria, bi edo hiru isurkiko estalkiduna erantzuteko xedatu dela. Hori dela eta, alegazioaren xede ez izan arren, ohiko etxe tradizionalaren tipologian sartzen diren eraikinen (lau isurkiko estalkidunak) portzentajea, gutxi gorabehera, 1950. urtearen aurretik zeuden eraikinen %9koa dela ikusirik, ezinbestekotzat jotzen da horien kasuistika aztertu eta erregulazio espezifiko bat aurreikustea estalkia desagertuta duten eta gailurraren jatorrizko egoera zehaztea ahalbidetzen duen elementurik galdu ez duten kasuetarako. Bakoitzaren tipologia formal espezifikoak kontuan hartuz, estalkietako isurialdeetarako gehienezko malda bat ezartzea eta 3.2.2.7 artikuluko 2. atalean agertzen den testuan beste atal bat txertatzea proposatzen da. Atal horretan erregulazio zehatz bat gaineratuko litzateke, zehazteko zein egoeratan erabaki behar den tipologia horretako eraikinek egiturazko eta eraikuntzako elementu funtsezkoak galdu dituztela iraungitako Eraikin modura hartzeko moduan.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzen jotzen da eta ezestea** erabaki da.

Haatik, eta Planean ohiko etxe tradizionalaren tipologiarekin (1950. urtearen aurretiko eraikinen % 9) eman daitekeen kasuistika jasotzeko xedez, 3.2.2.7 artikuluko 2. ataleko bigarren lerroaldea horrela berridaztea proposatzen da:

Eraikin batek egiturazko eta eraikuntzako elementu funtsezkoak galdu dituela ulertuko da eraikita geratzen den gainerako egiturekin ezin denean jakin zein den bere oina eta zein den bere jatorrizko bolumetria. Eraikinak, jatorriz, bi edo hiru isurkiko estalkia badu, hori egiaztatu egingo da jatorrizko perimetroarekin eta, bere fatxada nagusian edo atzekoan, alboetako murruekiko teilatu-hegalen eta gailurraren jatorrizko egoera identifikatuz; eta, jatorriz, lau isurkiko estalkia izanez gero, jatorrizko perimetroarekin eta, gutxienez, perimetroko bi murrutan teilatu-hegalen jatorrizko egoera identifikatuz. Bigarren kasu horretan, gailurraren egoera gehienez % 30eko maldako itxurazko estalkietako isurialdeen planoen intersekzioarekin kalkulatu da; halaber, kasu honetan, ezinbestekoa izango da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Plan Zuzentzailea indarrean sartu ondorengo argazkiak aurkeztea, estalkia jatorrizko egoeran islatzeko.

Era berean, 3.3.3.9 artikuluan beste atal bat gaineratzea proposatzen da, aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten Eraikinak berreraikitze esku-hartzeak, Plan Zuzentzailearen ondorioetarako, eraberritzeko esku-hartze modura hartuko direla adieraztekoa:

3.3.3.5 artikulua. *Eraikuntzak eta azpiegiturak berreraikitze eraikuntzako esku-hartzeak.*

(...)

7. *Plan honen ondorioetarako, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 30. artikuluan aipatzen diren 1950. urtearen aurretiko eraikinak berreraikitze esku-hartzeak eraisteko eta eraberritzeko esku-hartze modura hartuko dira.*

G Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Adierazten da Plan Zuzentzailearen 3.3.3.9 artikuluko 2.3 atalean, eraberritzeko esku-hartzeen artean, LHL legeko 30. artikuluan ezarritako esku-hartze ugari zilegitzen direla, jatorrizko higiezinaren osaera bolumetrikoari dagokionez.

2. Analisia eta inguruabarrak

LHL legeko 30. artikuluan, baserriak berreraiki eta onartzeari buruzkoan, lau atal barneratzen dira, eta lehenengo lauetan berreraiki daitezkeen eraikinak (lehen atala 105/2008 Dekretuko 9.2. artikuluekin ordeztu zen), horien gehienezko osaera bolumetrikoa eta onarpen-prozedura identifikatzen dira. Bosgarren atalean adierazten denez, inoiz ere ezin da baserriak birgaitzeko esku-hartze modura hartu lurzoru urbanizaezinean kokatutako eraikinak bizitegi erabilerarako eraberritzea edo birgaitzea, lehenago ez badute legez bizitegi erabilerarik izan.

Alegazio horretatik ondoriozta daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez 1950. urtearen aurretiko eraikin guztietan egiteko esku-hartze guztietara hedatu behar dela, edozein kasutan, jatorrizko higiezinaren osaera bolumetrikoa gehienezko modura errespetatzeko zehaztapena, esku-hartze horiek berreraikitze modura hartu zein ez LHL legeko 30. artikuluko 1. eta 2. ataletan adierazitako moduan.

Ez da interpretazio hori partekatzen, izan ere, LHL Legearen 30. artikuluko hirugarren atalean berreraikuntza-lanak adierazten dira zehazki, eta ez beste era bateko lanak, eraberritzekoak edo birgaitzekoak, kasu (artikulu bereko 5. atalean jasotzen direnak), artikulu bereko aurreko bi atalei erreferentzia eginez. Dena den, atalean aipatzen diren eraberritze-lanen irismena argitze aldera, berau berrikustea proposatzen da. Horrela lehen lerroaldea eta bigarren lerroaldeko lehen esaldia kentzea eta teilatu-hegalak eta gailurra 0,40 metro altxatzeko aukera berariaz zilegitzea planteatzen da; izan ere, esku-hartze horiek, LHL legearen 35. artikulua aplikatuz (etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen azken xedapenetatik seigarrenak aldatua), ez dira zenbakarri izango eraikigarritasuna areagotzearen ondorioetarako, eta zilegitzat hartu ahal izango liriteke, baita aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten Eraikinak eraberritzeko esku-hartzeetarako ere (ikus F alegazioa).

Alegazioan estalkian terrazak irekitzeko aukera planteatzen da. Horri dagokionez adierazi behar da, aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten Eraikinak eraberritzeko esku-hartzeak izan arren, terraza horiek gauzaturatuta jatorrizko higiezinaren osaera bolumetrikoa ez dela gaintutako.

Jatorrizko higiezinaren gehienezko osaera bolumetrikoa errespetatzeko premiari dagokionez adierazi behar da, gainera, alegazio ugari jaso direla informazio publikora eramateko Plan Zuzentzaileak berreraikitze esku-hartzeen bidez jatorrizko bolumetria mantentzeko ezarritako betebeharrari dagokionez, eta alegazioak onartu egin direla. Eskakizuna malgutzea eta jatorrizko bolumena gehienez % 80ean murriztea baimentzea proposatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

Haatik, eraberritzeko esku-hartzeen irismena argitu eta handitzeko esku-hartzeei dagokienez ezarritakoarekin kontraesanik ez sortzeko xedez, 3.3.3.9 artikuluko 2.e atala berridaztea proposatzen da:

3.3.3.9 artikulua. Eraberritzeko eraikuntzako esku-hartzeak.

(...)

2. Horretarako, kontserbazioko eta apaindurako, eta finkatzeko esku-hartzeetan jasotzen diren ekintzekin batera, eraberritzeko esku-hartzeetan zera barneratzen da:

(...)

- e. ~~Eraberritzeko lanek, gainera, teilatu-hegalaren eta gailurraren altuera gehienez Plan honetan oin-berriko erabilera bakoitzerako ezarritako altuera berotara igotzea eragin dezakete.~~

~~Esku-hartzea burutu aurretik, Aurretiaz dauden Eraikinen kasuan, horietako teilatu-hegalen eta gailurren altuerak erabilera bakoitzerako gehienez baimendutako gainetikeak direnean, jatorrizko eraikinaren altuera osoa, gehienez, 0,40 metro~~

areagotzea (teilatu-hegaletan nahiz gailurrean neurtuta) eragingo duten esku-hartzeak burutu ahal izango dira. Altueraren handitze hori ez da eraikitako azaleraren handitze modura hartuko, ezta haren bolumen, altuera edo solairu kopurua areagotze modura ere. Gainera, jatorrizko perimetroko murruari hura eustea ahalbidetzeko elementu bat finkatzeko eta estalkiaren kargak hobeto banatzeko premiarekin justifikatu beharko da.

(...)

Berreraikitze esku-hartzeetan jatorrizko bolumetria mantentzeko eskakizuna malgutzeko, gainera, 3.3.3.5 artikuluko 3.i ataleko lehen lerroaldea eta 3.ii atalak horrela berridaztea proposatzen da:

- *Ordezkatze esku-hartzeetan berreraikitako Eraikinaren solido ingurutzaille berria jatorrizko Eraikina hartzen duen lurzatiko beste kokapen batean kokatuko da, eta bolumetriari dagokionez bat etorri beharko da zaharrarekin, edo, hala badagokio, hasierako egoerarekin alderatuz bolumen-dimentsio txikiagoa (gehienez, hasierako egoeraren % 80koa) izan beharko du, eta sestra gainean altxatutako solairu kopuru bera izan beharko du. Ezingo da, inolaz ere, handiagotu jatorrizko Eraikuntzaren azalera eraikia.*

(...)

- *Berreraikitze esku-hartzeetan, berreraikitako Eraikuntzaren solido ingurutzailleak bat egin behar du, espazioari dagokionez, zaharrarekin, edo, hala badagokio, hasierako egoerarekin alderatuz bolumen-dimentsio txikiagoa (gehienez, hasierako egoeraren % 80koa) izan beharko du, eta sail eta espazio berean egon behar du, azalera bera okupatuz solairu guztietan, hots, sotokoetan zein lurretik gorakoetan, azalera eraikigarri eta solairu kopuru berberaz.*

H Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

3.3.3.10 artikulutik dimentsio handiko txaletak banatu eta etxebizitza kolektiboetako beheko solairuetan etxebizitza berriak sortzeko aukera kentzeko eskatzen da. Artikulu honetara, era berean, 3.3.3.9 artikuluari dagokionez adierazitakoak hedatzen dira (H alegazioa).

Gainera, adierazten da, ez dirudiela koherentea, zatitzeko esku-hartzeen kasuan, baserrietan eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu beste eraikin batzuetan baimendutako esku-hartzeek gainerako Eremu Funtzionalarekin alderatuz muga gutxiago dituen erregulazio bat izatea, eta gutxienez, LPP planean ezarritako baldintzetara egokitu beharko litzatekeela adierazten da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Txaletak banatu eta etxebizitza kolektiboetako beheko solairuetan etxebizitza berriak eraikitze aukerari buruz

Gaur egun Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurzoru urbanizaezinaren eremuan familiako 576 bizitegi-eraikin daude, hots, eremu horretan dauden eraikin guztien % 26,27. Horietako 185 landa guneko kalifikazioan kokatzen dira (Plan Zuzentzailearen ondorioetarako, Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremua -T3-). Gainerakoak kalifikazio horretatik kanpo daude eta 1993. urtean berrikuspenaren xede den Plan Zuzentzailea indarrean sartu aurretik eraiki ziren.

Horien artean tipologia ezberdinak ikusten dira, baina Plan Zuzentzailean indarrean sartu zenetik (Batzorde Iraunkorrek aldekotzat emandako 178 espediente) landa guneeetan eraikitako eraikinen artean ikusten diren ezaugarriak eraikin gehienetan errepikatu egiten dira (solairu kopurua, oinaren okupazioa, etab.). Eraikin horietako azalera eraikiari dagokionez ere nolabaiteko antzekotasuna ikus daiteke: esate baterako, azken sei urteetan eraikitako etxebizitzak (49) hartuko bagenitu, 2011. urtean eraikitako etxebizitzak (11) batez besteko azalera eraikia 263,52 m²koa izan zela ikus daiteke; 2012. urtean eraikitakoen (12) batez bestekoa 208,63 m²koa da; 2013an eraikitakoena (9) 251,01 m²; 2014koena (11) 210,58 m²;

2015ean eraikitakoena (4) 223,16 m²; eta 2016. urteko urtarriletik maiatzera eraikitakoena (2) 214,59 m²koa. Datu horietatik ondoriozta daitekeenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako eremuan azken 6 urteetan eraikitako familiabakarreko etxebizitza berrien batez besteko azalera eraikia 230 m² ingurukoa da.

Plan Zuzentzailearen 3.3.3.10. artikuluko 2.i atalean dimentsio handiko txaletak banatzeko aukera proposatzen denean, banatzeko modukoak izatekotan, azken 6 urteetan eraikitako familiabakarreko etxebizitza berrien batez bestekoaren (230 m² inguru) gainerako azalera izango luketen etxebizitza berriak banatuko lituzketen eraikinez ari da. Hori horrela da, dokumentuan bertan adierazten den moduan, tipologia honetara ezin delako hedatu gainerako bizitegi-eraikin tipologiak banatzea zilegitu duen irizpidea.

Plan Zuzentzaileak udal hirigintza-plangintzari heltzen dio dimentsio handiko txaletak banatzeko balizko erregulaziorako, izan ere, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak baitarutzen duen lurzoru urbanizaezineko eraikinen inbentariotik 1950. urtearen aurretiko eraikinei dagokienez atera daitekeen informazioarekin alderatuz, txalet tipologiako eraikinen gainean oso zaila da eraikitako azalera osoak ezagutzea.

Bestalde, etxebizitza kolektiboetako espazio hutsetan etxebizitza berriak gaitzeari dagokionez, beste behin, bizitegi-eraikinak banatzeko aukeraren bezalaxe, arrazoia hor dauden ondarea eta zerbitzuak berrerabiltzea da, eta eraikitze moduko lurzoru berriak sor daitezela ekiditea. Horri dagokionez, adierazi behar da Gernika-Markina Eremu Funtzionalako LPP planera txostena eratzeko fasean zehar Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Zerbitzutik lurzoru urbanizaezinean zeuden etxebizitzak barneratzeko eskatu zela jadanik, lurzoru urbanizaezinean hiri-lurzoruan baino biztanle gehiago dituzten udalerrien kasuan, gehienez baimendutako eraikuntza berriko etxebizitza kopurua kalkulatzeko aldagai modura.

Adierazi behar da Gernika-Markina Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betikoz onartzeko martxoaren 1eko 31/2016 Dekretuaren 59. artikulua 7. atalean aurreikusten denez, lurzoru urbanizaezinean beste eraikin batzuen antolamendua, baserriekin edo funtzionalki haien baitakoak diren elementu salbuesiekin bat ez datozenak, 2/2006 Legean edo hura ordezkatzeko duen legean adierazitakoaren arabera eta udal plangintzan jasotako erregulazioaren arabera arautuko direla. Horri dagokionez, uler daiteke LPP planak udal hirigintza-plangintzari heltzen diola txaleten tipologia banatzeko balizko erregulaziorako, Plan Zuzentzaileak egiten duen moduan. Dena den, LPP planean ez da horri buruz inolako erregulaziorik jasotzen, eta Plan Zuzentzailean, aldiz, bai.

Edozein kasutan, udalaz gairik administrazioek igorritako alegazioetan erreparatuta, bi inguruabar horiek ezabatzea eta, hala badagokio, inguruabar hori Euskadiko landa ingurune guztira hedatu arte itxarotea proposatzen da.

3.3.3.9 artikuluar dagokionez egindako eta 3.3.3.10 artikulura hedatzen diren gogoetei buruz

3.3.3.9 artikuluar buruz egin eta 3.3.3.10 artikulura hedatzen diren alegazioei dagokionez, soilik G alegazioan aipatutakoa adierazi behar da. Kasu honetan, aurrekoan bezala, 3.3.3.10 artikuluko 6c ataleko lehen lerroaldea eta bigarren lerroaldeko lehen esaldia kentzea eta teilatu-hegalak eta gailurra 0,40 metro altxatzeko aukera berriaz zilegitzea planteatzen da; izan ere, esku-hartze horiek, LHL Legearen 35. artikulua aplikatuz (etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen azken xedapenetatik seigarrenak aldatua), ez dira zenbakarri izango eraikigarritasuna areagotzearen ondorioetarako, eta zilegitzat hartu ahal izango lirateke, baita aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten Eraikinak eraberritzeko esku-hartzeetarako ere.

Plan Zuzentzailea LPP planaren aldean horren murriztailea ez izateari buruz

Zatitzeko esku-hartzeen kasuan, baserrietan eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu beste eraikin batzuetan baimendutako esku-hartzeek LPP planean gainerako Eremu Funtzionalarekin alderatuz muga gutxiago dituen erregulazio bat izateak itxuraz koherentziarik ez izateari buruz, haridura adierazi behar da.

Gernika-Markina Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betikoz onartzeko martxoaren 1eko 31/2016 Dekretuaren 59. artikuluan baserria, gehienez, lau etxebizitzatan banatzea baimentzeko aukera aurreikusten da, hainbat baldintzatzailearen baitan. Baldintzatzaile horiek, eraikinak hartzeko lurzoruaren kalifikazioei buruzkoa salbuetsita, bat datoz atal guztietan informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailearen 3.3.3.10 artikuluan ezarritakoarekin. Nabarmendu behar da Plan Zuzentzailean zehaztasun gehiagoz doitu eta xehatzen direla banatzeko esku-hartze hori gauzatzeko baldintzak. Horrenbestez, ezin da esan hartako araudiak LPP planak baino murriztapen gutxiago dituenik.

LPP planaren artikulua berean 1950. urtearen aurretiko bizitegi-eraikinen udal inbentarioa eratzeko premia aurreikusten da, horiek banatzeko aukera aztertzea.

Banatzeari buruzko eraikuntzako esku-hartze mota bat barneratzeko erabakia hartzeko, lau ikerketa hartu dira erreferentzia modura. Lehenik eta behin, Urdaibaiko Biosferaren Erreserba Zerbitzuak dituen bizitegi-eraikinen inbentarioa aztertu zen, Plan Zuzentzailea eratzeko eguneratu zena. Bertan jasotzen dira lurzoru urbanizaezinean dauden 2.193 bizitegi-eraikinak. Horietako % 26,27 txalet eta etxebizitza kolektiboko tipologiarekin datoz bat, eta gainerakoak 1950. urtearen aurretiko eraikinen tipologiarekin. Gainera, inbentarioan eraikinen kalifikazioak aipatzen dira.

Inbentarioan agertzen diren datuen arabera, LPP planean aipatzen diren kalifikazioetan (landa gunea edo Nekazaritza-Abeltzaintza babesa eta Landazabala - indarreko Plan Zuzentzaileko A1, A2, A3 eta SRC zonekin edo proposameneko T1.A1 eta T1.PRT zonekin letorke bat) 1950. urtearen aurretiko 1.222. eraikin daude (baserriak LPP planaren terminologian). LPP planean baserri bakoitzeko, gehienez, 4 etxebizitza aurreikusten dira. Horrenbestez, banatzeko esku-hartzearen ondotik 4.888 etxebizitza aterako lirarteke.

Arestian aipatu den moduan, bigarrenik 1950. urtearen aurretiko bizitegi-eraikinen tipologia ezberdinak aztertu ziren, eta bakoitzean hutsik geratutako espazioa eta espazio huts horietan etxebizitza berriak hartzeko gaitasuna balioetsi zen. Ondorioztatu zenez, aurretiaz zegoen etxebizitza kopurua (eta jabetza-erregistroan jasotzen zirenak) bikoiztu egin zitekeen, eta familiabakarreko baserri eta errota erako bizitegi-eraikinetarako, gehienez, bi etxebizitza ezarri ziren, eta lau etxebizitzako gehienezko kopurua finkatu zen bi familiako baserrien, etxe tradizionalen, dorretxeen eta jauregien kasuan. Nabarmendu behar da LPP planean lau etxebizitzako gehienezko kopurua ezartzen dela, erregistroan adierazitako etxebizitza kopurua kontuan izan gabe, eta Plan Zuzentzaileari dagokionez, berriz, informazio hori erabakigarria da bi etxebizitzatan edo lau etxebizitzatan banatu ahal izateko.

Beranduago, udalerrri mailako azterketa burutu zen, itsasadarraren bi ertzetan erreferente diren bi udalerritan (Busturia eta Kortezubi), lurraldea banatuta etxebizitza kopurua bikoizteak izan zezakeen eragina ikusteko. Ondorioztatu zenez, aurretiaz dauden zerbitzuek egungo eskaeraren bikoitzari aurre egiteko adinako karga-gaitasuna zuten.

Azken ikerketa baliagarri izan da eraikitako ondareari irtenbide bat emateko premia aitortzeko, hura desagertzea nahi ez bada. Ikerketa horretan F alegazioan aipatu diren datuen jatorri izan diren lurzoru urbanizaezinean abandonatuta zeuden eraikinak eguneratu dira.

Horren guztiorren ondotik, Plan Zuzentzailean jasotzen den proposamena ondorioztatu da. Ohartarazi behar da 1950. urtearen aurretiko bizitegi-eraikinak LPP planean aurreikusitako kalifikazio kopurutik gora eta aurrez aipatutako proportzioetan banatzea baimendu arren, ateratzen den kopurua 4.677⁴ etxebizitzakoa dela. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan LPP planeko zehaztapenak (4.888) aplikatzearen ondorioz aterako lirartekeenak baino askoz

⁴ LPP planaren arabera banaketa egitea ahalbidetutako kalifikazioetan 1950. urtearen aurretiko eraikin kopurua 1.267 eraikinekoa da. Kalifikazio horietan sartzen diren familiabakarreko baserriak banatzearen ondorioz 1.144 etxebizitza atera litezke, bi familiakoetatik 1.862 etxebizitza, etxe tradizioaletatik, dorretxeetatik eta jauregietatik 531, eta errotetatik (kalifikazio horietan bi baino ez daude) 4. Horrenbestez, EKEG egitamua aplikatuz, 3.541 etxebizitza aterako lirarteke LPP planaren bidez baimentzen den eremu bakarrean; hau da, % 28 gutxiago. Haatik, hainbat ikerketen ondotik egokitzen jo delako, Plan Zuzentzailean beste kalifikazio batzuetan ere banatzeko aukera aurreikusten da; beste kalifikazio horiek kontuan hartuz, guztira, 1.136 etxebizitza aterako lirartekeela ikusten da (384 familiabakarreko baserrietatik, 628 bi familiakoetatik, 102 etxe tradizioaletatik, dorretxeetatik eta jauregietatik eta 22 errotetatik).

ere gutxiago. Horrek agerian uzten du Plan Zuzentzaileak ez dituela LPP planak baino murriztapen gutxiago.

Halaber, adierazi behar da Gune Gaiunkategorian barneratutako lurzoruetan dagoen eraikin kopurua ez dela % 0,2ra iristen (4), bizitegi-eraikin guztian kontuan hartuz, eta Gunearen Babes Gaiunkategoriari dagokionez, % 15ekoa da portzentaje hori (351), eta horietako % 12 zona antropizatueta lekutzen da, esate baterako, itsasoko eta lurreko jabari publikoko zortasun-eremuan eta artadi kantauriarraren ertzeke gainerako zonetan.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da. Dena den, partzialki onestea** proposatu da.

Alde batetik 3.3.3.10. artikuluko 2.b.ii ataleko bigarren eta hirugarren leerroaldeak kentzea eta, beste alde batetik, 6.c. atala berridaztea proposatzen da:

3.3.3.10 artikulua. *Zatitzeko eta batzeko eraikuntzako esku-hartzeak.*

(...)

2. *Zatitzea, tipologiaren arabera:*

(...)

b. *Errotak, dorretxeak, jauregiak, etxe tradizionalak, txaletak eta etxebizitza-blokeak:*

(...)

ii. *Plan honetan Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean dauden bizitegi-eraikinen banaketa justifikatzen da eraikitako espazio hutsak bizitegi-erabilera berriekin okupatzeko aukerarekin, lurzoruak bizitegi erako beste erabilera batzuekin eraldatzea ekiditearekin eta, hala badagokio, zenbait jarduera desagertu izanaren ondorioz abandonu egoeran eta kaltetuta dagoen eraikitako ondarea kontserbatzea bermatzearekin. Dena den, txaleten eta etxebizitza-blokeen kasuan ez dago orokorki justifikatzerik jarduera jakin bat desagertu denik edo eraikin horietan espazio hutsak daudenik. Hori dela eta, Plan honetan ez da barneratzen tipologia horiek banatzeko aukera.*

~~*Haatik, landa guneko hirigintza-arau espezifiko bat aplikatuz egin ez diren dimentsio handiko txaloten kasuan, xehetasunezko azterketa egin ahal izango da udal hirigintza-plangintzan eraikina, gehienez, lau etxebizitzatan banatzeko aukera aztertuz; edozein kasutan, kanpotik, lurzatian, etxebizitza guztietarako baterako sarbide-zuzena izateko eskakizuna eta helburu horrekin fatxadan hutsuno berriak irekitzeko debekua finkatu beharko dira.*~~

~~*Behoko oinetan beste erabilera batzuk garatzen diren etxebizitza-blokeen kasuan, udalaren hirigintzako plangintzak aurrerakusi ahal izango du bizitza berriak ezartzea. Horrek ez du, baina, elementu komunetako ezinen zein lehendik dauden bizitzen dimentsioak murriztorik ekarriko.*~~

(...)

6. *Eraikinaren inguratzailean:*

(...)

c. ~~*Eraberritzeko lanek, gainera, teilatu-hegalaren eta gailurraren altuera gehienez Plan honetan oin-berriko erabilera bakoitzerako ezarritako altuera beretara igotzea eragin dezakete.*~~

~~*Esku-hartzea burutu aurretik, Aurretiaz dauden Eraikinen kasuan, horietako teilatu-hegalen eta gailurren altuerak erabilera bakoitzerako gehienez baimendutako gainetikoak direnean, jatorrizko eraikinaren altuera osoa, gehienez, 0,40 metro areagotzea (teilatu-hegaletan nahiz gailurrean neurtuta) eragingo duten esku-hartzeak burutu ahal izango dira. Altueraren handitze hori ez da eraikitako azaleraren handitze modura hartuko, ezta haren bolumen, altuera edo solairu kopurua areagotze modura ere. Gainera, jatorrizko perimetroko murruari hura eustea ahalbidetzeko elementu bat finkatzeko eta estalkiaren kargak hobeto banatzeko premiarekin justifikatu beharko da.*~~

(...)

Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

3.3.3.11 artikulua hainbat atal zuzentzeko eskatzen da, LHL Legea egokitzen ez direla eta.

2. Analisia eta inguruabarrak

Indarreko Plan Zuzentzailean eraikitako azalera % 25era arte handitzeko aukera aurreikusten da biztanleguneetan antolamendu egoeran dauden eraikinen kasuan, eta % 15era arte A1, A2, A3 eta SRC zonetan eta Biztanleguneetan dauden eraikin tolerantuen kasuan. Halaber, A2, A3 eta SRC zonetan eta Biztanleguneetan dauden instalazio tolerantuak % 25era arte handitzeko aukera aurreikusten da.

Indarrean sartu zenetik, handitzeko esku-hartzeekin lotutako 140 espediente egin dira, horietako 92 LHL legea indarrean sartu ondoren. 140 horietatik 1950. urtearen aurretiko eraikinetan burutu dira 76 (baserri, etxe tradizional, errota, dorretxe edo jauregien tipologietan), 42 txalet tipologiako eraikinetan eta gainerakoak ekipamenduetan edo bizitegi-eraikinen eraikin laguntzaileetan. Horietako % 20an aurkako txostena jaso da, handitzeko esku-hartzea ez zetorrelako bat Plan Zuzentzaileak baimendutako muga edo gehienekoekin.

Alegazio horretatik ondoriozta daiteke Bizkaiko Foru Aldundiaren ustez 1950. urtearen aurretiko eraikin guztietan egiteko esku-hartze guztietara hedatu behar dela, edozein kasutan, jatorrizko higiezinaren osaera bolumetrikoa gehieneko modura errespetatzeko zehaztapena, esku-hartze horiek berreraikitze modura hartu zein ez LHL Legearen 30. artikuluko 1. eta 2. atalean adierazitako moduan.

Ez da interpretazio hori partekatzen, izan ere, LHL Legearen 30. artikuluko hirugarren atalean berreraikuntza-lanak adierazten dira zehazki, eta ez beste era bateko lanak, artikuluko bereko aurreko bi atalei erreferentzia eginez. Dena den, atalean aipatzen diren handitzeko lanen irismena argitu eta G eta H alegazioetan adierazitakoarekin nolabait bat etortzeko xedez, berau berrikustea proposatzen da.

Horrela, 2. atalean handitzeari egiten zaizkion erreferentziak aldatu eta portxeen aipamen berariazkoa kentzea planteatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta partzialki onestea** proposatu da.

2. ataleko esaldia aldatu eta 5. ataleko azken zatia kentzea proposatzen da, biak ere 3.3.3.11 artikulukoak.

3.3.3.11 artikulua. *Handitzeko eraikuntzako esku-hartzeak.*

(...)

2. Ez dira kontsumitutako eraikigarritasun edo eraikitako azalera modura zenbatuko atzeko edo alboko fatxadetako beheko solairuan eraikitako perimetroa handitzea edo estalkia altxatzea dakarten esku-hartzeak, betiere, eraikinaren jatorrizko azalera eraikia handitzea eragiten ez badute.

Halaber, ez dira kontsumitutako eraikigarritasun edo eraikitako azalera modura zenbatuko estalkia, gehienez, 0, 40 metro altxatzearen ondorioz eraikitako azalera handitzen dituzten esku-hartzeak, jatorrizko perimetroko murruari hura eustea ahalbidetzeko, egiturazko egonkortasuna lortzeko eta estalkiaren kargak hobeto banatzeko elementu bat gaineratzeko premiari erantzunez.

(...)

5. Ez da handitzeko esku-hartzetzat hartuko azalera eraiki bera, atzealdeko fatxadari edo albo-fatxadei atxikia, berreraikitze esku-hartzea, ezta eraikin nagusiaren inguruan edo haren eranskin gisa dauden beste eraikin batzuk okupatzea ere, horiek antolamendutik kanpo ez badaude eta erabilera nagusiarekiko bateragarriak eta osagarriak diren erabilerak hartzen badituzte. Edozein kasutan, horien erabilera ezingo da bizitegi erakoak izan. ~~Halaber, ez da handitzeko esku-hartzetzat hartuko etxebizitzako fatxada batean gehienez 3 metroko zabalera eta 6 metroko luzerako dimentsioak dituen arkupedun zona egitea, ezta soberako azalera ez eraikia Plan honen aurreko hirigintza-araudiaren arabera gauzatzea, dagokion Eraikina egitea ahalbidetu baitzuen.~~

J-K Alegazioak:

1.- Alegazioaren laburpena

Eraikigarritasunarekin eta azalera eraikiarekin lotutako hainbat aipu egiten dira, eta eraikigarritasunaren irismena eta lurzati berean eraikigarritasun mota ezberdinak paratzeko aukera zehazteko, edo dimentsio jakin bateko portxeak azalera eraiki modura zenbagarriak ez direla dioen zehaztapena kentzeko eskatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Informazio publikora eramateko dokumentuan proposatzen den moduan, Plan Zuzentzailean ez da eraikigarritasun tope bat aurreikusten lurzati hartzaileen kasuan, eta lurzati berean aldi berean erabilera ugari dagozkion eraikigarritasunak gauzatzea baimentzen da.

Haatik, J alegazioan barneratzen diren iradokizunak egungo idatzian nahasgarri samarrak izan daitezkeen zenbait alderdiren inguruan argigarriagoak direla ulertzen da.

Bestalde, aurreko alegazioen azterketan jasotakoarekin koherentzia mantentze aldera, K alegazioa egokituz jotzen da, hots, azalera eraiki modura 3 x 6 metroko dimentsioko portxeak ez zenbatzeari buruzkoa.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokituz jotzen da eta partzialki onestea** proposatu da.

3.4.1.2 artikuluko hainbat atal aldatzea proposatzen da:

3.4.1.2 artikulua.- Eraikigarritasuna

- ~~1. Plan hau soilik Urdaibaiko Biosfera Erreserban urbanizaezin modura sailkatutako lurzoruari buruzkoa donez, lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea aplikatuz, soilik eraikigarritasun fisiko edo gordina arautuko da. Horregatik, eta planaren ondorioetarako, eraikigarritasun hori eraikigarritasuntzat identifikatuko da, besterik gabe.~~
2. ~~Horrenbestez, eraikigarritasun modura ulertzen da aurretiaz zegoen azalera eraiki osoa edo eraiki gabeko sestra gainekoa eta sestra azpikoa erdisotoan (plan honetan ezarritakoa), IV. tituluaren zona eta sektore batzuetan erabilera jakin baterako zehaztutako gutxienezko lurzati hartzaileetarako. Sotoan sestra azpian eraikitako azalera ez da konputatuko eraikigarritasunaren ondorioetarako; erdisotoan eraikitako azalera, aldiz, sestra gaineko oin guztien azalera bezala, % 50ean esekeserik zenbatuko da.~~
3. ~~Eraikigarritasuna eraikitako metro koadrotan adieraziko da lurzati hartzaileko lurzorua metro koadroko. Horri dagokionez, eskusiboki, lurzati hartzaileko azaleraren gainean kalkulatu da Eraikina gauzatu ahal daitekeen kalifikazioekin.~~
4. ~~Tresnak gordetzeko etxolen kasuan, Plan honetan dimentsioak, profilak eta altuerak seinalatuz adierazten da eraikigarritasuna.~~
5. ~~Lurzati hartzaile berean erabilera desberdinei dagozkien eraikigarritasun desberdinak izan daitezke batera. Horrela, plan honetako IV. tituluaren lurzati hartzaileetan gehienez gauza daitekeen eraikigarritasuna ezartzen da baimendutako erabilera bakoitzaren arabera. Edozein kasutan, Eraikuntzan sostengatutako erabilera ezberdinak baitaratzen dituen~~

lurzati hartzaile berean gauza daitekeen eraikigarritasuna, bertan baimendutako eraikigarritasun handieneko erabilerarako ezarritakoa baino 1,25 aldiz handiagoa izango da gehienez. Erabilera bakoitzerako araututako eraikigarritasuna garatzen duten zenbait erabilera metatzea ekar dezake horrek.

1. atala aldatu eta 2.d ataleko zati bat kentzea proposatzen da, biak ere 3.4.1.3 artikulukoak.

3.4.1.3. artikulua.- Azalera eraikia.

1. Azalera eraikia eraikitako metro koadro kopuru jakin batekin adieraziko da, eta sestra gainean eta erdisotoan eraikitako solairu guztietako azalera partzialak batuz lortuko da.

2. Neurketan honakoak sartuko dira:

(...)

d. Beheko oinetako portxe edo eranskin estalien % 100, alde itxiak bat, bi edo gehiago diren kontuan hartu gabe. ~~Espazio arkupedunak ez dira azalera eraikitzat konputatuko, gehienez etxebizitzako fatxadetako batean kokatuta badaude eta neurrietan gehienez 3 m zabal eta 6 m luze egiten badituzte.~~

L Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

3.4.2.1 artikuluan baserri, errota, etxe tradizional, jauregi eta dorretxe tipologiak 1950. urtearen aurretiko eraikinekin bat datozela espresuki adieraztea eskatzen da. Halaber, txaleten kasuan, 1950. urtearen ondorengoak izateari buruzko aipamena kentzea eskatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

3.4.2.1 artikuluan adierazten den moduan, Plan Zuzentzailea eratzen zen bitartean egiaztatu ahal izan zenez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren eremuan, Eraikinen inbentarioan barneratutako eraikinen artean, tipologia ezberdinak identifikatzen ziren, 105/2008 Dekretuko 9.1 artikuluan baserriari buruz egiten den definizioaren barnean sar litezkeenak.

Bizitegi-eraikinak banatzeko egindako ikerketaren ondotik, eta eraikinen tipologia banatzeko esku-hartzearen ondorioz atera zitekeen etxebizitza kopurua zehazteko erabakigarria izan zitekeela ikusirik, Plan Zuzentzailean tipologia bakoitzari zegozkion ezaugarrien definizioa gaineratzea erabaki zen, horien artean bereizi eta horietan gauza daitekeen erabilera-araubidea doitze aldera.

Berariaz, eta eraikitako ondareari lehentasuna eman eta, ahal den heinean, balizko kontraesanak ekidite aldera, tipologia horiek beren gauzatze-urteekin espresuki ez lotzea erabaki zen. Alegazioan adierazten den moduan, txaleten tipologiaren kasuan hori egin zen, eta horri buruzko edozein aipamen kendu egin behar dela ulertzen da.

Haatik, eta hirigintza-legeriarekin edozein kontraesan mota ekiditeko xedez, aurretiaz dauden eta erabilera iraungia duten, eta eraikuntzako esku-hartzeen xede izan daitezkeen Eraikinen kasuan, beharrezkotzat jotzen da esku-hartze horiek, soilik eraikinak 1950. urtearen aurretikoak badira, gauzatzeko aukera dagoela berariaz jasotzea.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzen jotzen da eta partzialki onestea** proposatu da.

3.4.2.1 artikuluko 3. atala aldatzea proposatzen da:

3.4.2.1 artikulua.- *Xedapen orokorrak.*

(...)

3. *Plan honek, gainera, bi tipologia identifikatzen ditu, nagusiki, 1950eko urtetik aurrera altxatutako bizitegi-eraikinei dagozkienak biak. Alde batetik, txalet deitua dago eta, bestetik, etxebizitza-blokeei dagokiena.*

Txaleten tipologia eraikuntzako tipologia edo tipologia estetiko zehatzik ez badu ere, Plan honetan, nagusiki, 1950eko urtetik aurrera altxatutako eta etxebizitza-bloke tipologiarekin bat ez datozen bizitegi-eraikinak barneratzen dira tipologia horretan, baitaratzen duen etxebizitza kopurua edozein izanik ere.

Etxebizitza-blokearen tipologiatzat identifikatzen da komunikazio-gune bat eta elementu komun batzuk dauzkana, eta solairu bakoitzean, eta errepikatzen den egitura bati jarraikiz, bizitegi-unitate bat edo batzuk banatzen dituena.

M Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Erabilera ugari adierazten dira (ekitaziorako instalazioak, nekazaritza eta abeltzaintzako ustia-gunearekin lotutako bizitegi-erabilera, ustia-gune batekin harreman zuzenik ez duten lehen eraldaketako nekazaritza elikagaien industriak, arriskutsuak ez diren hondakinak tratatu, birziklatu, berrerabili eta errebalorizatzeko plantak), IV. tituluan barneratzen direnak, eta horietako zenbait inguruabar jasotzen dira.

2. Analisia eta inguruabarrak

Ekitaziorako instalazioei buruz

Nekazaritza eta abeltzaintzako erabileren araubidea eratzeko, informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Arloko Plana (aurrerantzean Nekazaritza eta Basozaintzako LAP) behin betikoz onartzeko irailaren 16ko 177/2014 Dekretua hartu da erreferentzia modura.

Nekazaritza eta Basozaintzako LAP planaren 29. artikuluko 3.c. atalean, nekazaritzako ustia-gunearekin bateragarri diren jardueren garapenera bideratutako Eraikinen artea, landa ingurunearen aisia, gozamen eta dibulgazioarekin lotutako aisialdiko jarduerak barneratzen dira. Horien artean landa hipikak jasotzen dira.

Nekazaritza eta abeltzaintzako ustia-gunearekin lotutako bizitegi-erabilerari eta bere dimentsioei buruz

Nekazaritza eta Basozaintzako LAP planaren 12. artikuluan nekazaritzako ustia-gunearekin lotutako etxebizitza isolatuaren erabilera txertatzeko erregulazioa ezartzen da bere aplikazio-eremuan. Plan Zuzentzailean, 4.4.3.20 artikuluan, LAP planaren erregulazioa jasotzen da erabilera horretarako, eta erregulazio espezifiko bat ezartzen da, besteak beste, gutxieneko lurzati hartzaileei, kalifikazioei eta erregulazio estetikoari dagokienez. Azken horri dagozkion zehaztapenen artean, gutxieneko eta gehienezko okupazioari edota altuerari buruzko parametroak barneratzen dira.

Aipatutako zehaztapenak bat datoz Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan dauden familiabakarreko baserrietako dimentsioekin (oinean, gehienez kasuan, 12-14 metroko zabalera eta 16-18 metroko hondoa) eta baita bi familiakoekin (oinean, gehienez kasuan, 15-18 metroko zabalera eta 18-21 metroko hondoa) ere. Okupaziorako gehienezko edo gutxieneko dimentsio batzuk ezartzearen arrazoia eraikin berriek ingurunearekin eta arkitektura tradizionalarekin enpatia agertzea da. Horretarako, gainera, estalki, fatxada edota materialekin lotutako ezaugarriei buruzko zehaztapenak ezartzen dira; eta, are, iparralde-hegoalde orientazioa lehenestea ezartzen da.

Haatik, horri buruz jasotako alegazioak ikusirik, eta azken urteotan landa guneetako etxebizitzaren batez besteko tamaina 230 m² ingurukoa dela (H alegazioa), eraikin berriek ingurunearekin enpatia ager dezaten, beren forma eta materialei buruzko zehaztapenez gain,

azalerari buruzko zehaztapen hori aldatzea eta 250 m²ko gutxienerako azalera eraikia finkatzea proposatzen da.

Ustiagune batekin lotura zuzenik ez duten lehen eraldaketako nekazaritza elikagaien industriei buruz

Nekazaritza eta Basozaintzako LAP planaren 31. artikuluan, 2, atalean, ustiagune batekin zuzenean loturarik ez duten lehen eraldaketako nekazaritza elikagaien industriak barneratzen dira, eta onargarriz jotzen ditu Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko antolamenduaren kategoriako Trantsizioko Landa-paisaia Zonetan (62. artikulua, Erabilerak eta jarduerak arautzeko matrizea). Bestalde, Gernika-Markina Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala behin betikoz onartzeko martxoaren 1eko 31/2016 Dekretuan ere industria horiek sartzen dira III. eranskinean, eta trantsizioko landa-paisaia zonetan ere onargarriz jotzen ditu, aldezturik ingurumen arloko ondorioak eta kokapenerako alternatibak aztertuta.

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean soilik trantsizioko landa-paisaia zonetarako (T1.PRT) edo bizitegi-kokaleku eremuetarako (T3) aurreikusten da industria hauen ezarpena erabilera baimendu, toleratu edo iraungiak dauzkaten eraikinetan. Gainera, eraikina handitzeko ezintasunari edota lurzatiaren zerbitzu aldetiko hornidura mailari buruzko araudi espezifiko bat ezartzen da.

Arriskutsuak ez diren hondakinak tratatu, birziklatu, berrerabili eta errebalorizatzeko plantei buruz

Hondakinak tratatu, birziklatu, berrerabili eta errebalorizatzeko plantak Nekazaritza eta Basozaintzako LAP planean (37. artikulua eta Erabileren matrizea) nahiz LPP planean (129. artikulua, III. eranskina eta Erabileren Matrizea II. eranskinean) sar daitezke. LHL legeko 59.2.c artikuluari jarraikiz, egokitzen jotzen da 4.4.4.23 artikuluan jasotzen den gehienezko eraikigarritasuna handitzeko aukera kentzea.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzen jotzen da. Dena den, partzialki onestea** proposatu da.

4.4.4.23 artikuluko 4.b ataleko esaldia aldatzea proposatzen da:

4.4.4.23 artikulua - Arriskutsuak ez diren hondakinak tratatu, birziklatu, berrerabili eta errebalorizatzeko plantak D.5.1.

(...)

4. *Edonola ere, instalazioa egokitu egingo zaio ondoko erregulazio honi:*

(...)

b. Instalazioak hartzeko lurzatiaren gutxienerako azalera 5.000 m²koa izango da, eta eraikigarritasuna ez da 0,15 m²/m²tik gorakoa izango; ~~dena den, azken hau Plan Beroziaren bidez handitu ahal izango da, Plan honen V. Tituluarekin bat etorritik, interes publikoko arrazoiek justifikatzen badute.~~

N Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean kokatzeko interes publikoko erabileren gaineko azterketa zorrotzagoa egin beharko litzatekeela uste dela adierazten da. Kirol instalazioak, kultura edo artearen sustapenerako jarduerak hartzeko ekipamendu soziokulturalak, kultur ondarearen dibulgaziorako eraikinak, osasun, asistentzia eta gizarte arloko alojamendurako ekipamenduak, erlijio-gurtzarekin lotutako ofizioetarako ekipamenduak eta zerbitzu publikoetako ekipamendu bereziak aipatzen dira.

LPP planaren bigarren xedapen gehigarria aipatzen da, eta adierazten da bertan jadanik identifikatzen direla udalaz eta eskualdez gaindiko ekipamenduak eta, horrenbestez, interes publikoko erabileren araubidea horretara egokitu beharko dela.

Azkenik, adierazten da ez dela egokitzat jotzen % 15eko gehiengo batean ezartzea handitzeko aukera erabilera jakin batzuen kasuan. Horri dagokionez, adierazten da hori kasu bakoitzean aztertu beharko litzatekeela, eta handitzeko berariazko premia justifikatu egin beharko litzatekeela, LHL Legearen 35. artikuluekin bat etorritz.

2. Analisia eta inguruabarrak

4.4.5.2 artikuluan eta hurrengoetan barneratutako erabileren araubideari buruz

Arestian aipatu den moduan, LPP planaren bigarren Xedapen gehigarriak Plan Zuzentzaileari heltzen dio bere aplikazio-eremuaren baitan gauzatzeko erabilera eta jardueren nahiz eraikuntza-ekintzen araubidearen ezarpenerako.

Ildo horretatik, eta autonomia-erkidegoko gainerako zonetarako arloko araudiak ezarritako zehaztapenetara hurbiltze aldera, erabaki zen Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Arloko Plana behin betikoz onartzeko irailaren 16ko 177/2014 Dekretuan ezarritakoa erreferentziatzat hartzea, informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailea eratzeko. Horrela, eta interes publikoko erabilerei dagokienez, 42.⁵ artikuluan jasotako erabilera publikoko eta interes sozialeko erabileren zerrenda, eta interes publikoko zehaztapen berariazkoa, jaso eta lurralde arloko plan baten aurrean Plan Zuzentzaile bati dagokion xehatzea mailarekin zehaztu zen. Guztiori, hori gauzatzeko aukera ahalbidetzeko, LHL Legearen 28.5. artikuluari jarraikiz.

Horri dagokionez, adierazi behar da kirol instalazioetan aire zabalean eta estali gabe dauden igerilekuetan egiteko ur jardueren modalitatea salbuetsita, gainerako erabilerak gaur egun Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurzoru urbanizaezinean burutzen diren erabilerekin datozela bat, eta lagungarri direla biosferaren erreserbako landa ingurunearen antolamendu eta garapenerako: aipatu beharko lirateke, Basondo, Urbietako futbol-zelaiak eta pilotalekuak, Madariaga Dorrea, Urdaibai Bird Center izenekoa, Arrolako kastroa, Santimamiñeko Interpretazio zentroa, Lurraska edo Baratzeko zentroak, Muxika edo Busturiako zaharren egoitzak, Ereñozar, San Lorenzo edo San Esteban ermitak, Busturia edo Foruko hilerriak, edo Barrutiako LHI ikastetxea.

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean, Nekazaritza eta Basozaintzako LAP planean aurreikusitakoaren aurka, alojamendu turistikoko eta ostalaritzako erabilerak ez dira interes publikoko erabileren artean barneratzen. Campingak edo antzekoak ere ez dira barneratzen.

Hori horrela da, ulertzen delako Euskadiko turismo arloko araudian bertan (198/2013, 199/2013, 200/2013, 201/2013, 102/2001 eta 396/2013 Dekretuak) dagoeneko erabilera horien interes publikoa ezartzen dela nolabait lurzoru urbanizaezinean, landa ingurunera erartzen dituenean.

Haatik, eta nahasketak ekidin, eta alderdi horretan, Urdaibaiko araudia Euskadiko gainerako araudira hurbiltzeko xedez, alojamendu turistikoko, ostalaritzako eta campingetako erabilerak interes publikoko erabileren artean barneratzea proposatzen da. Horretarako, 3.2.2.6 artikulua aldatu eta 4.4.5.2 artikuluan eta hurrengoetan barneratutako erabilerak hornidura- eta ekipamendu-erabilera modura berrizendatzea proposatzen da.

Edozein kasutan, Plan Zuzentzailean interes publikoko erabilera modura sartze hutsarekin ez da baztertuko LHL Legearen 28.5. artikuluan jasotzen den eskakizuna, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik interes publikokotzat berariaz jotzeari buruzkoa. Une horretan, lurzoru

⁵ Nekazaritza eta Basozaintzako LAP planaren 42. artikuluan hurrengoak barneratzen dira: gune zoologikoak, kirol instalazioak, ekipamendu soziokulturalak (kultura edo artearen sustapena), aisialdirako ekipamenduak (jolas-parkeak, aterpetxeak, etab.), hirugarren mailako erabilerak (ostalaritza, alojamendu turistikoak, aterpetxeak), osasun ekipamenduak, erlijiozkoak (ermitak, etab.), zerbitzu publikoetakoak edo aisialdiko baratzekoak.

urbanizaezinean jarduera jakin hori txertatzeko premia dagoen ala ez balioetsi ahal da berariaz.

Aurreikusitako interes publikoko erabileren irismen eta eremuari buruz

Alegazioan bertan adierazten den moduan, LPP planean udalaz eta eskualdez gaindiko ekipamenduak identifikatzen dira. LPP planean ez bezala, Plan Zuzentzailean Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren xehetasunezko antolamendu bat finkatzen da, eta hori lehenesten da udal hirigintza-plangintzaren aurretik (LHL legeko 15. artikulua). Hori dela eta, ezinbestekoa da bertan, era berean, landa ingurunean ezarri beharreko erabileren araubidea finkatzea, tokiko maila batean ere.

Hala ere, haren balizko irismena kontuan hartuz, 4.4.5.11 artikuluan aipamen bat gaineratzea proposatzen da, hiri-inguruetatik hurbil dauden lurzoruetan kokatu beharko direla adieraztekoa.

Aurretiaz dagoen azalera eraikia % 15 handitzeko aukerari buruz

Hornidura- eta ekipamendu-erabilerak zilegitzeko xedez, lurzoru urbanizaezinean haiek finkatzea beharrezkotzat jotzen denean, Plan Zuzentzailean azalera eraikia % 15era arte handitzeko aukera aurreikusten da. Aurreko alegazioetan jaso den moduan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuak ez du aplikagarritzat jotzen esku-hartze mota horretarako LHL Legearen 30. artikuluan aurreikusitakoa.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

Haatik, E.2 epigrafearen baitan jasotako eraikuntza-erabilerak (aloramendu turistikoko, ostalaritzako eta campingeko establezimenduen erabilera) interes publikoko erabileren artean barneratzea proposatzen da. Ez nahasteko xedez, E.1 epigrafearen baitan barneratzen den erabileren multzoa Hornidura- eta Ekipamendu-erabilera modura berrizendatzea proposatzen da. Horrek eragina izango luke artikulua hauetan:

- 4.2.1.1 (3.E.1 atala):
 - *E. Eraikuntza-erabilerak:*
 - *E.1. ~~Interes publikoko erabilera~~ Hornidura- eta Ekipamendu-erabilerak:*
- 4.4.5.1 (2.a atala):
 1. *Erabilera hauen artean honakoak bereizten dira:*
 - a. *E.1. ~~Interes publikoko~~ hornidura- eta ekipamendu-erabilera.*
- 4.4.5.2 (titulua eta 1. eta 3. atalak):

4.4.5.2 artikulua- Hornidura- eta Ekipamendu-erabilerak ~~Interes publikoko erabilera~~. Araubide orokorra. E.1.

 1. *Erabilera honetan sartzen dira landa ingurunean kokatu beharreko eta eraikinetan oinarritutako interes publikoko ekipamenduak eta hornidurak, horien xedea denean hurrengo artikuluetan aipatzen diren helburuetakoren bat lortzea, jasangarritasunerako ikerkuntzan eta hezkuntzan ekarpena egitera edota Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren antolamendu eta landa-garapenera begira.*
 2. (...)
 3. *Halaber, eta jarduerak lortu ahal izatearren, eraikin horiek beren izaerari berari dagozkion ~~ekipamendu, hornidura eta~~ erabilera bateragarri guztiak, hurrengo artikuluetan zehatz-mehatz arautuko direnak, hartu ahal izango dituzte.*

- 3.3.3.12 (3.e.i. atala):
- e. Igerileku-erabilera osagarri eta lotu bat ezartzea:
 - i. Erabilera nagusia hornidura eta ekipamenduetan, ~~Eraikuntza~~ eta turismo-establezimenduetan, ostalaritza-establezimenduetan eta campingetan ~~oinarritutako interes publikoko ekipamenduetan~~ baldin bada, 4 x 15 m-tik beherako neurriak edukiko ditu, eta erabilera publikoko igerilekuen osasuneko araubideari buruzko 32/2003 eta 208/2004 Dekretuetan edo horiek ordezkutzen dituen arauan ezarritakoaz arautuko da.
- 3.4.1.9 (1.c atala):
- c. ~~Interes publikoko~~ hornidura- eta ekipamendu-erakinetan eta alojamendu turistikoko establezimenduetan, ostalaritza-establezimenduetan eta campingetan: soto solairua (SS) edo erdisotoa (ESS), beheko solairua (BS), goiko bi solairu (1S eta 2S) eta estalki azpiko solairua (EAS).
- 5.2.3 (4.c atala):
 - c. ~~Interes publikoko~~ hornidura- eta ekipamendu-erakinak txertatzeko beharrezkoak diren zehaztapenen xehatzea, Plan honetan horiek arautzen diren baldintzetan. Horiek behin betikoz onartzeak berekin ekarriko du Plan Berezian Sistema-Eremu, Erkidegoko Ekipamenduetako Zona (T4.ECR) modura barneratzen diren lurzoruak berriro kalifikatzea.

Gainera, 3.2.2.6 artikuluko 1. atala horrela berridaztea proposatzen da:

1. ~~Kokatzen direneko lurzoruaren titulartasunetik eta kalifikaziotik harago, Plan honetako IV. Tituluan interes publikokotzat jotako erabilerak identifikatzen dira, interes publikokotzat hartuko dira IV. Tituluan hornidura- eta ekipamendu-erabilera modura identifikatutako erabilerak, eta alojamendu turistikoko, ostalaritzako eta campingeko establezimendu modura identifikatuak. Halaber, interes publikokotzat hartuko dira arloko araudian halakotzat jotako erabilerak.~~
Edozein kasutan, erabilera horiek txertatu ahal izateko, guztien kasuan ezinbestekoa izango da Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik interes publikokotzat berariaz jotzea.

Zerbitzu publikoetako ekipamendu bereziei dagokienez, 4.4.5.11 artikuluko 2.b atala berridaztea proposatzen da:

4.4.5.11 artikulua.- Zerbitzu publikoen ekipamendu berezia. E.1.9.

(...)

1. Plan honetan horrela kalifikatutako lurzoruetan soilik txertatu ahal izango da:
 - (...)
 - b. Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Trantsizioko Landa-paisaia Zonak (T1.PRT), nekazaritzako gutxienekoaren gainerako lurzatietan edo Udal Hirigintza Planqintzak Antolatzeako Eremu (UHPA) modura kalifikatutako lurzoruen alboko edo hurbilekoetan.
 - (...)

[Ñ Alegazioa:](#)

[1.- Alegazioaren laburpena](#)

Adierazten da Plan Zuzentzailean aurreikusitako alojamendura turistikoko erabilera guztiak txertatzearen aurreikuspena ez dela egokia, lurzoru urbanizaezinean. Horrekin lotuta, adierazten da landa-turismoak izan ezik, gainerako alojamendu turistikokoak landa ingurunean sakabanatutako hirigune txikietan txertatu beharko liratekeela.

Gainera, adierazten da txaleten tipologia ez litzatekeela baimendu behar erabilera hauek txertatzea, plangintzarekin bat ez datozela ulertzen delako, eta ez dutelako beren mantenua aitzakiazat hartuta erabilera horiek txertatzea justifikatzen duen ondare historiko edo kulturalaren izaera.

Adierazten da ez litzatekeela handitzeko portzentaje orokor bat aurreikusi behar, eta kasu bakoitza xehetasunez aztertu beharko litzatekeela, LHL Legearen 35. artikuluan aurreikusten denaren arabera.

Adierazten da 4.4.5.19 artikuluan nekazaritza-abeltzaintza ustiategi batekin lotutako landa hotelari buruz jasotzen den erabilera kendu egin beharko litzatekeela, turismoaren araudian modalitate hori barneratzen ez delako.

Campingei dagokionez, 4.4.5.21 artikuluko 6.a atalean aurreikusten den 0,30 m²/m²ko eraikigarritasunaren irismena zehazteko eskatzen da. Halaber, Plan Zuzentzailean jarduera mota horiek hartzeko egokiak diren lurzoruen gaineko azterketa egiteko (irisgarritasunarekin edota zerbitzuekin lotutako alderdien arabera) eta kasu bakoitza xehetasunez aztertzeo aukera izatearen premia adierazten da. Beste hainbeste adierazten da joan-etorrian diren auto-karabanak eta karabanak hartzeko eremu bereziei dagokionez.

2. Analisia eta inguruabarrak

Alojamendu turistikoak landa inguruneke lurzoru urbanizaezinean kokatzeko aukerari buruz

Aurreko alegazioari dagokionez aipatu den moduan, Basozaintzako LAP planetik hartu da erabilera publikoko eta gizarte-intereseko erabileren araubideari dagokiona informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean; besteak beste, 42. artikuluko 2.e atalean alojamendu turistikoak barneratzen dira. Basozaintzako LAP planaren aplikazio-eremuan udal plangintza orokorrean (2.3 artikulua) hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarri modura sailkatzen ez diren lurzoru guztiak sartzen direla ikusirik, Plan Zuzentzaileko aurreikuspena zuzena dela uler daiteke. Beste hainbeste uler daiteke Turismo Legearen aurreproiektuan landa inguruneari buruz esaten dena (49.2 artikulua) ikusirik.

Erabilera horiek txalet tipologiako eraikinetan txertatzeari buruz

199/2013 Dekretuan, beste alderdi batzuen artean, landa-turismo, landetxe, landa-hotel, landa-apartamendu eta landa-aterpetxe turistiko modalitateak zehazten dira (3. eta 4. artikulua). Horrekin lotuta, adierazten da landa-turismoko establezimenduetan mendiko arkitektura tradizionalak edo landa inguruneari berez dagozkionak jarraitu beharko direla; landetxeke establezimenduak kokatzen direneko landa inguruneari berez dagozkion ezaugarriko arkitektura duten eraikinetan garatu beharko direla; eta beste hiru establezimenduak eskualdeko edo zonaldeko ohiko arkitektura tradizionalarekin bat datozen eraikinetan kokatu behar direla.

Alegazioan txaletaren tipologia kentzeko premiari buruzko arrazoiak egokitzat jotzen ez badira ere, L alegazioan eta 199/2013 Dekretuan aurreikusten denari jarraikiz, txalet tipologiako eraikinetan landetxe eta landa-hotel erabilerak txertatzeko aukera baztertzea proposatzen da.

Handitze orokorraren aukera ezartzeko aukerari buruz

Txosten honetan zehar adierazi den moduan, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Zerbitzuaren arabera LHL Legearen 30.3 artikuluan ezartzen den zehaztapena ez da aplikagarria bere erabilera alda dezaketen eta haren garapenerako aurretik dagoen azalera eraikia baino azalera handiagoa beharko luketen Eraikinen gainean egiteko eraberritzeko esku-hartzeen kasuan.

Baserrietan landetxe eta landa-hotela erabilerak (plaza kopurua ezberdina da bietan) orokorki hartzeko ahalmena aztertzeo ikerketen ondotik, handitzeko azalera jakin bat ezartzeko premia zegoela ondorioztatu zen, turismoari buruzko araudian baimentzen diren edukiera ahalmenak berme guztiakin gauzatzeko moduan.

Nekazaritza-abeltzaintza ustiategiarekin lotuta 4.4.5.19 artikuluan jasotzen den hotel-erabilerari buruz

4.4.5.19 artikulua arabera horrelako alojamenduak dira nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bati lotutako hotel-establezimenduaren modalitate espezifiko bat izan dezaketenak. Gainera, adierazten da, establezimendu hauen gehienezko edukiera turismoari buruzko araudian ezarria izango dela.

Artikulu horretan aipatzen den alojamendu mota landa-hotela bada ere, informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailea eratzen zen bitartean, landa-hotel bat txertatzea ahalbidetzeko artikulu espezifiko bat sortzea erabaki zen, ibilbide jakin bat (5 urte eskatzen dira) zuen nekazaritza-abeltzaintza jarduera batekin lotuta egoteagatik landa-hoteletarako baimendutakoak baino plaza gehiago izatea justifikatuta izan zezakeena; betiere, turismoari buruzko araudian horrela baimentzen bada.

Artikuluak taxutzen ziren bitartean, interesgarritzat jo zen landa-turismoaren eskalatik haragoko alojamendu turistikoko jarduerak bultzatzea, landa-hotelekin bateragarri izanik, lagungarri izan zitezkeenak landa antolamendu eta garapenerako, landa-turismoan baino dimentsio handiagoko nekazaritza-abeltzaintza jarduera hotel-erabilerarekin uztartzearen bidez.

Turismoari buruzko araudian ez da adierazten landa-hotelak nekazaritza-abeltzaintza jarduera batekin lotuta egon behar diren ala ez. Horrenbestez, ez da egokia adieraztea Plan Zuzentzailean azaldu behar ez denik erreferentziazko araudian barneratzen ez delako; haatik, kontuan izan behar da araudian gaur egun baimentzen den edukia gainditzen duen landa-hotel bat gauzatu ahal izateko, edozein kasutan, ezinbestekoa izango dela alde aurretik hartara egokitzea, eta udalaz gaindiko hainbat administrazioak eta hainbat elkarte aurkeztutako alegazioetan erreparatuz, aipatutako artikulua kentzea eta turismoari buruzko hurrengo legean landa ingurunean gaur egun baimendutakoak baino dimentsio handiagoko landa-hotel edo antzeko modalitateko alojamendu turistikoak ezartzeko aukera proposatzeko eskatzea proposatzen da, betiere, nekazaritza-abeltzaintza ustiategi batekin lotuta egonik.

Joan-etorrian diren auto-karabanak hartzeko camping eta eremu bereziei buruz

Alegazioan, 4.4.5.21 artikuluko 6. atalean jasotzen den eraikigarritasunari buruz, egiten den aipamena errete bat da, izan ere, altua izatea gorabehera, erabilera kolektiboko instalazioak eskusiboki aipatu beharrean, Eraikin guztiei buruzkoa izan beharko litzateke aipamena, hots, hala erabilera kolektiboko instalazioei buruzkoa nola aterpetxe finkoei buruzkoa. Atal hori aldatzea, gehienezko eraikigarritasuna 0,30 m²/m²tik 0,20 m²/m²ra murriztea eta erabilera kolektiboko instalazioei eta aterpetxe finkoei buruzkoekin bat etorriko dela adieraztea proposatzen da.

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailearen aplikazio-eremuan ez da, berariaz, camping kokapen zehatza identifikatu. Hori horrela da egiaztatu delako indarreko Plan Zuzentzailean horretarako aurrekusi ziren lurzoruak ez direla garatu 23 urte hauetan zehar. Horrela, hiri-lurzoruarekin alderatuz lurzoru urbanizaezina kudeatzeko modua ezberdina dela egiaztatu da, tokiko jardueretarako. Hori dela eta, dokumentu berrian instalazio mota horiek txertatzeko eskatzen den gutxieneko azalera murriztearen alde egiten da, modu horretan, haren ezarpen-eremua ahalbidetuz.

Haatik, lurzoru urbanizaezina hobeto kudeatzen dela bermatzeko mekanismoak baliatzea erabaki da paisaia babestu eta balizko lur-mugimenduak murrizteko, kokapen zehatzaren identifikazio sinplea baino. Horretarako, lurzati batez besteko malda gehienezkoak eta beharrezkoa den zerbitzu-maila arautzeko zehaztapenak finkatu dira.

Edozein kasutan, txertatu ahal izateko ezinbestekoa izango da Plan Berezi bat eratzeari, ingurumenaren ebaluazioari buruzko atalean ingurumenarekin lotutako alderdiak aztertuko dituen, eta Planean bertan mugikortasunarekin edo zerbitzuekin lotutako alderdiak ere aztertuko dituen. Gainera, edozein kasutan, ezinbestekoa izango da alde aurretik Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik interes publikokotzat jotzea.

Joan-etorrian diren auto-karabanak hartzeko eremu berezien kasuan, informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean jarduera mota horiek dimentsio txikiko azaleretan sortzea proposatzen zen, gehienez 8 plaza izanik, biztanlegune kontsolidatuetan zehar (ikus C alegazioa) sakabanatuta, edo nekazaritzako gutxienekoaren gainetiko lurzatietan trantsizioko landa-paisaia modura kalifikatutako eta hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarrien alboan kokatutako lurzoruetan. Horrela, paisaia oztopatzen duten auto-karabanak aparkatzeko eremu handiak, zerbitzu eta hornidurei dagokienez Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinerako neurrigabekotzat jotzen den bolumena behar dutenak, ekiditea da helburua.

Biztanlegune kontsolidatuen kalifikazioa (T3.NPC) desagertuta eta landa guneeetan hornidura edo ekipamendu berriak zehaztea ezinezkoa dela kontuan hartuz (LHL Legearen 29.6 artikulua), mota horretako erabilerak trantsizioko landa-paisaia modura kalifikatutako lurzoruetan txertatu ahal izango lirateke soilik. Hori dela eta, lurzoru mota horretarako aurreikusitako erregulazioa mantentzea eta, gainera, kalifikazio horren barnean bizitegi-eraikin bat duten (eska daitezkeen zerbitzu eta sarbide guztiekin batera) 2.000 m²tik gorako lurzatietan haiek kokatzeko aukera gaineratzea proposatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da. Dena den, partzialki onestea** proposatu da.

Zehazki, 4.4.5.15 eta 4.4.5.16 artikulua aldatzea aurreikusten da, erabilera horiek txalet tipologiako eraikinetan txertatzeko aukera baztertzeko:

4.4.5.15 artikulua.- Landetxea. E.2.2.

1. Landetxetzat hartzen dira prezio bidez alojamendu-zerbitzua, mantenuarekin edo gabe, eskaintzen duten establezimenduak, baldin eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremu edo zona jakin batzuetan kokatutako eraikinetan badaude.
2. Landetxe-modalitatea bakar-bakarrik lehendik dauden eta erabilera baimendu, toleratu edo iraungia duten eraikinetan garatu ahal izango da. Eraikin horiek bat etorri beharko dira, ~~etxebizitza-bloke tipologia txalet eta etxebizitza-bloke tipologia~~ salbuetsita, Plan honetako III. Tituluko 4. Kapituluko 2. Sekzioan identifikatutako edozein tipologiarekin, eta Gunearen Babeserako, edo Trantsizioko Gainkategoriatan, edo Interes Kulturalako Eremuan dauden lurzoruetan kokatu beharko dira, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Eremu horretarako ezarritako baldintzetan.

4.4.5.16 artikulua.- Landa-hotela. E.2.3.

1. Landa-hotelak dira lehendik dauden eta erabilera baimendu, toleratu edo iraungia duten eraikinetan kokatutako establezimenduak, horiek dauden lurzoruak honakoak badira:
 - a. Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuaren Trantsizioko Landa-paisaia Zona (T1.PRT).
 - b. Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremua (T3).
 - c. Erkidegoko Ekipamenduko Zonako Sistema-Eremua (ECR).
 - d. Interes Kulturalako Eremua (N5).
2. Eraikin horiek bat etorri beharko dira, ~~etxebizitza-bloke tipologia txalet eta etxebizitza-bloke tipologia~~ salbuetsita, Plan honetako III. Tituluko 4. Kapituluko 3. Sekzioan identifikatutako edozein tipologiarekin.
3. Hotel-establezimendutzat hartuko dira ostatua, jangela-zerbitzuz zein gabe, eta beste zerbitzu osagarri batzuk eskaintzen dituztenak eraikin bat osorik edo horren parte independente bat okupatuz, dependentziek osotasun homogeen bat osatzen dutela bere erabilera eskusiboko sarrera, igogailu eta eskailerez, horrelako establezimenduak erregulatzen dituen araudiak jasotzen dituen baldintzak betez.
4. 102/2001 Dekretuak edo honen ordezkari arauak ezartzen duenaren arabera arautuko dira landa-hotelak.

Halaber, 4.4.5.19 artikulua kentzea proposatzen da:

~~4.4.5.19. artikulua.- Beste ostatu-mota batzuk. E.2.6.~~

- ~~1. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiatogi bati lotutako hotel establezimendu bat har dezaketen ostatuak dira. Establezimendu hauon gehienezko edukiora turismoari buruzko araudian ezarria izango da.~~
- ~~2. Jarduera hau lehendik dauden eta erabilera baimendu, toleratu edo iraungiak dauzkaten eraikinetan ezartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:~~
 - ~~a. Hotel jarduerak lehendik dagoen nekazaritza edo abeltzaintzako jarduera baten osagarria izan behar du, gutxienez azken bost urtean zehar.~~
 - ~~b. Aurretiaz dauden eraikinak hartzeko lurzatiak Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremu (T1), Bizitegi kokaleku Nuklearren Eremuko Biztanlegune Kontsolidatuko Zona (T3.NPC) edo Erkidegoko Ekipamenduko Zonako Sistema Eremu (T4.ECR) modura kalifikatutako lurzoruetan egon beharko dira.~~
 - ~~c. Eraikin horiek bat otorri beharko dira, txalet eta etxebizitza bloke tipologiak salbuetsita, Plan honetako III. Tituluko 4. Kapituluko 3. Sekzioan identifikatutako edozein tipologiarekin.~~
 - ~~d. Hotel establezimendu zerbitzuak ematen dituzten eraikinak egotea, bat edo batzuk, guztien artean multzo arkitektoniko bat osatzen dutela.~~
 - ~~e. Gainera, horiek txertatzeko, ezinbestekoa izango da beharrezkoak diren zehaztapen guztiak finkatzen dituen Plan Bereziki bat idatzi eta onartzea Plan honetako V. Tituluan ezarriarekin bat.~~
 - ~~f. Establezimendu-mota honen ozaugarri espezifikoak direla eta, horrelakoak ezartzeko behar den garapen-tresnak sestrapean garaje eta biltegi erabiloretarako eraikitzeko aukera jaso ahal izango du; ora berean, sestra gaineko solairuen lerrokadura gainditzan duten berariazko lerrokadura batzuk aurreikusi ahal izango ditu horretarako.~~

Campingei dagokienez, 4.4.5.21. artikuluko 6.a. atala aldatzea proposatzen da:

4.4.5.21 artikulua.- Kanpinak. E.2.8.

(...)

6. Dena den, zehaztapen hauek bete beharko dira:
 - a. Erabilera kolektiboko eta aterpetxe finko instalazioak hartzeko lurzatiaren gehienezko eraikigarritasuna 0,20 ~~0,30~~ m²/m²koa.
- (...)

Joan-etorrian diren auto-karabanak eta karabanak hartzeko eremu bereziei dagokienez, 4.4.5.23 artikuluko 4. atala aldatzea proposatzen da.

4.4.5.23 artikulua.- Iragaitzazko autokarabanak eta karabanak hartzeko eremu bereziak. E.2.10.

(...)

4. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Lurzoru Urbanizaezinaren eremuan joan-etorrian diren auto-karabanak eta karabanak hartzeko Eremu bereziak finkatu ahal izango dira soilik haueetan:
 - a. Eraikinak dituzten, eta Plan honetan Trantsizioko Landa-paisaia Zona (T1.PRT) modura Biztanlegune Kontsolidatuko Zona (T3.NPC) edo Erkidegoko Ekipamenduetako Zonako Sistema Eremu (T4.ERC) modura kalifikatutako lurzoruetan dauden 2.000 m²tik gorako lurzati hartzaileetan.
 - b. Plan honetan Trantsizioko Landa-paisaia Zona (T1.PRT) modura kalifikatutako eta Udal Hirigintza Plangintzak Antolatzeko Eremu (UHPA) modura kalifikatutako

lurzoruen alboan edo hurbil dauden lurzorueta kokatutako nekazaritzako gutxienekoaren gainteko lurzatieta.

O Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiagunearekin lotuta ez dagoen familia-bizitegi erabilerari dagokionez, adierazten da 5.2.3 artikuluko 4.e atalean Plan Bereziari buruz egiten den aipamenean plangintza orokorra ere aipatu egin beharko litzatekeela.

Halaber, eskatzen da lurzati hartzailearen gutxieneko azalera bat ez finkatzeko eta, kasu bakoitza landa gunearen zona (T3.NR) bakoitza zehaztu eta mugatzen duen tresnarekin arautzeko.

Azkenik, adierazten da gehiegizkotzat jotzen dela familiabakarreko eta bi familiako etxebizitzetarako eskatzen den gutxieneko okupazioa.

2. Analisia eta inguruabarrak

B alegazioan adierazi den moduan, Bizitegi Kokaleku Nuklearren Eremuei buruzko 2.3.3.3 artikuluko 2. atalaren lehen puntuan adierazten denez, Landa Guneetako eremuetako (T3.NR) mugaketa *aldatu egin ahal izango da HAPO plana edo dagokion Plan Berezia onartuta*. Haatik, balizko interpretazio okerrak ekidin ahal izateko xedez, 5.2.3 artikuluko 4.e atalean plangintza orokorrari buruzko aipamen zehatza gaineratzea proposatzen da.

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean eraikin berriak hartzeko 1.500 m²ko gutxieneko lurzati bat ezartzea aurreikusten da, Bizkaiko Foru Aldundiak landa gune modura jotzea eragin duen elementuaren inguruan eraikin metaketa handiagoa bermatu ahal izateko. Horri buruz adierazi behar da bizitegi nuklearren eremuetan barneratzen diren lurzati bategen besteko azalera 1.436,98 m²koa dela, eta eremu horietan oso-osorik dauden lurzati 1.403,52 m²koa, eta LHL legean ez dela baimentzen lurzoru urbanizaezinean hirigintza-partzelaziorik gauzatzea. Edozein kasutan, alegazioan proposatzen den neurriarekin informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean barneratzen den helburu bera lortu nahi dela ulertzen da. Alegazioa onartzea proposatzen da.

Gutxieneko okupazio bati buruzko eskakizunari dagokionez, adierazi behar da helburua biosfera erreserbako paisaia lausotuko ez duten eraikinak bermatzea besterik ez dela, oinean 180 m²tik gorako okupazioak dituen eta bi solairuko altuera gehi estaldura azpiko solairuz osatuta dagoen arkitektura tradizional batekin. Haatik, halako zehaztapenak landa gunearen zona xehatzeko tresnan bertan ere ezar daitezkeela uste da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzen** jotzen da **eta partzialki onestea proposatu da**.

5.2.3 artikuluko 4.e ataleko berridaztea proposatzen da:

5.2.3 artikulua. Plan Bereziak.

(...)

4. *Plan hau garatzeko bidean, plan bereziak aurreikusten dira, gutxienez honakoetarako:*

(...)

e. *Bizitegi-kokapen Nuklearren Eremuetako Landa Guneetako Zonak (T3.NR) garatzea ahalbidetuko duen araudi bat zehazteko beharrezkoak diren zehaztapenak xehatzea.*

Plan Berezi horietan, legez eska daitekeen dokumentazioarekin batera, aurretiaz dauden Eraikinak hartzeko lurzati kokapena, etxebizitza-eraikin berriak hartzeko moduko lurzati kokapena, Landa Gunearen perimetroaren mugaketa eta 3.5.3.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera eraikin berri guztietan, modu berean, aplikagarri

den itxitura-tipologiaren araudia jaso beharko da. Zehaztapen horiek guztiak, era berean, udal plangintza orokorrerako tresnaren bidez ere zehaztu aha lizango dira.

Hurrengo araudia ezartzen da, Landa Guneak garatzeko idatzi beharreko Plan Berezi guztietan bete beharko dena:

- i. Eraikin berriak eraikin berriak hartzeko lurzatiak gehienez 50 metroko distantziara egon behar dira bizitegi-kokaleku nuklearra itxuratzen duten eraikinak biltzen diren espazio publikoaren erdigunetik gehienez zein distantziara egon behar duten finkatu beharko da.
- ii. Lurzati hartzaileen kasuan gutxienez 5 metroko tartea izan beharko da bide publikoarekiko ~~eta, gutxienez, 1.500 m² ko azalera izan beharko dute.~~
- iii. Lurzatiaren gutxieneko azalera finkatuko da.
- iv. Bizitegi-eraikin berrien kasuan okupaziorako gutxieneko azalera finkatuko da, landa gunean dauden bizitegi-eraikinetako batez bestekora egokitze xedez.
- v. Lurzati hartzailearen barnean eraikitako azalera ezingo da 400 m² baino handiagoa izan, bitzita bakarreko etxebizitzan kasuan, berriz, ezta 600 m² baino handiagoa ere bitzita biko etxebizitzan kasuan.
- vi. Eraikinetik mugetara eta udal-titularitate publikoko errepidera gutxienez 5 metroko tartea egongo da.

Gainera, 4.4.5.26 eta 4.4.5.27 artikuluetan gutxieneko okupazioari buruz egiten diren aipamenak kentzea proposatzen da.

4.4.5.26 artikulua.- Bizitza bakarreko etxebizitza isolatua. E.3.1.

1. Lurzati hartzaile batean familia-unitate batentzako bizilekua izateko den eraikin isolatuan kokatzen den etxebizitza-erabilera da.
2. Plan honen ondorioetarako, erabilera hau txertatu ahal izango da soilik Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremuetako Landa Guneetako Zona (T3-NR) modura kalifikatutako lurzoruetan kokatutako lurzatietan egindako oin berriko esku-hartzeen bidez. Erabilera hori hartuko duen eraikina hartzeko lurzatiak Landa Gunearen xehetasunezko antolamendua barneratzen duen Plan Bereziaren zehaztu beharko dira Plan honetako V. Tituluan horri buruz adierazitakoaren arabera.
- ~~3. Erabilera hau hartzen duen eraikinak gutxienez 150 m²ko okupazioa edukiko du.~~
4. Era berean, familiaren bizitegi-erabileraren mota hau berrezarri ahal izango da, eraberritzeko esku-hartzeen bidez, 4.4.5.25 artikuluan adieraziarekin bat erabilera hori iraungi den lehendiko eraikinetan.

4.4.5.27 artikulua.- Bizitza biko etxebizitza isolatua lurzati hartzaile bakarrean. E.3.2.

1. Lurzati hartzaile batean bi familia-unitaterentzako bizilekua izateko den eraikin isolatuan kokatzen den etxebizitza-erabilera da.
2. Plan honen ondorioetarako, erabilera hau bakar-bakarrik oin berriko esku-hartzeen bidez ezarri ahal izango da:
 - a. Bizitegi-kokaleku Nuklearren Eremuetako Landa Guneetako Zona (T3-NR) modura kalifikatutako lurzoruetan kokatutako lurzatietan egindako oin berriko esku-hartzeen bidez.
Erabilera hori hartuko duen eraikina hartzeko lurzatiak landa gunearen xehetasunezko antolamendua barneratzen duen Plan Bereziaren zehaztu beharko dira.
~~Erabilera hau hartzen duen eraikinak gutxienez 300 m²ko okupazioa edukiko du.~~
 - b. Bizitza bakarreko baserrietan, errota, dorretxe eta etxe tradizioaletan dauden bitzita bakarreko etxebizitza isolatuak zatitzeko esku-hartzeen bidez. Edonola ere, eraikin

hauek baimendu edo toleratu egoeran egon beharko dute, sekula ez ordea ondoren aipatzen diren egoeretan:

- i. Antolamenduz kanpoko egoeran.*
- ii. Errepideetako eraikuntza-lerroaren barnean.*
- iii. Gune Gainkategorian barneratutako kalifikazioen barnean, Arkitektura Ondareko Zonak (N5.1) izan ezik, betiere, bere arkitektura- edo arkeologia-ezaugarriak kontuan hartuz, hori ahalbidetzen duen babes-maila izanez gero.*

P Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Alegazioa biztanlegune kontsolidatuan dauden erabilerak baimendutako erabilera modura hartuko direla ezartzen duen zehaztapenari buruzkoa da.

2. Análisis eta inguruabarrak

C alegazioan adierazitakoaren ildotik, biztanlegune kontsolidatuen kalifikazioa beste eremu batean aintzatetsi eta Plan Zuzentzaile honetan hari buruzko aipamena kentzeko egokitasunari buruzko gogoeta plazaratzea proposatzen da. Kalifikazio horretan zeuden eraikinak toleratutzat hartuko dira Plan Zuzentzailearen ondorioetarako, eta plangintzan adierazten denaren aurkakoak izango dira LHL legearen ondorioetarako hartako kalifikazio berrien arabera, betiere, horretarako baldintzak betetzen badituzte, baimendutako erabilerei buruzko zehaztapenekin bat datozen erabilerak ez badira.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa bat dator C alegazioan jasotakoarekin.

Q Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Adierazten da 4.4.5.38 artikuluan barneratzen diren zerbitzu-erabilerak etxebizitzari dagokionez bateragarri eta osagarri modura gaineratu beharko lirakekeela.

2. Análisis eta inguruabarrak

Alegazioa onartzea proposatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea proposatu da**.

4.2.1.1 artikulua aldatzea eta zerbitzu-erabilera E.4.6 epigrafearekin lotzea proposatzen da, eta 4.4.5.38 artikuluko 4. atala berridaztea ere proposatzen da.

4.4.5.38 artikulua.- Zerbitzu-erabilerak. E.5.

(...)

4. Erabilera hau soilik bizitegi erakoarekin bateragarri modura txertatu ahal izango da Erabilera hori har dezakeen eraikina, erabilera modura txertatzekotan, eta Plan honetan banatzeko esku-hartzei dagokienez ezarritako baldintzak errespetatu beharko dira, eta aplikatu ostean soilik espazio hutsak okupatuko dira. Hots, jatorrizko etxebizitzetarako edo etxebizitza matrizeetarako erreserba aurreikusitakoan hutsik geratutako beheko solairuko azalera soilik okupatu ahal izango da: sukaldeko espazioaz gainera, egongela eta komunikazio-eskailera, logela nagusi bat, bainugela oso bat, galdara ipintzeko, egurra pilatzeko eta arropa zabaltzeko gutxienez 12 m² izango dituen espazio bat, eta etxebizitza

bakoitzeko gutxienez 12 m² izango dituen baterako espazio bat laborantzarako materialak eta lanabesak gordetzeko. Lehen solairuan ezingo dira okupatu jatorrizko etxebizitzari dagozkion espazioak.

R Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Bizitegi nuklearren eremuetan dauden Eraikinei dagokienez, adierazten da horietan handitzeko esku-hartzeak gauzatu ahal izango direla soilik landa guneari buruzko zehaztapen berriekin bat badatoz.

2. Analisia eta inguruabarrak

Alegazioa onartzea proposatzen da.

Biztanlegune kontsolidatuei buruzko alegazioan jasotzen denari dagokionez, C alegazioan jasotakoa aipatu behar da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea proposatu da**.

4.6.1 artikuluko 3. atala aldatzea proposatzen da:

4.6.1 artikulua.- Lehendik dauden eta erabilera baimenduak dauzkaten Eraikuntzetan erabilera aldatzea ez dakarten esku-hartzeak.

(...)

3. Bizitegi Kokaleku Nuklearren Areetan -T3- familiaren bizitegi-erabilerak hartzen dituzten lehendiko eraikinen kasuan, baimendutako eraikuntzako esku-hartzeak eraiste eta berreraikitzeari, edo zaharberitze, kontserbatze, apaintze, finkatze eta eraberritzeari lotuak izango dira. ~~Kasu hauetan, eraikin hauetan eraiki gabeko eta soberako azalera erabili ahal izango da haiek gauzatzea ahalbidetu zuen Plan honen aurreko hirigintza araudian aurreikusitakoaren arabera.~~

S Alegazioa

1.- Alegazioaren laburpena

Adierazten da aurretiaz dauden eta erabilera toleratuak dituzten Eraikinetan aurreikusitako esku-hartzeak ez direla aintzatesten erabilera aldatu gabe LHL Legearen 101. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

2. Analisia eta inguruabarrak

LHL Legearen 101. artikuluan, 3. atalean, Eraikinak hirigintza-antolamenduaren kontrako modura sailkatzen dira; horien artean antolamenduz kanpokoak, hirigintza-plangintzaren aurkakoak eta xehetasunezko antolamendurik gabe dauden eremu edo sektoreetan aurretiaz daudenak bereizten dira.

Artikulu horretan bertan, 4. atalean, adierazten da, hirigintza-plangintzan zehaztuko direla Eraikin honetan onargarri diren jarduera eta erabilerak, eta 5. atalean zehazten da esku-hartze jakin batzuk ez direla zilegi izango antolamenduz kanpoko eraikinetan.

Plan Zuzentzailearen 3.2.2.2 artikuluan adierazten denez, hirigintza ondorioetarako, erabilera toleratuetara bideratutako Eraikinak, Plan honetan edo aplikagarri den arloko beste edozein

arautan haiek desagertzea aurreikusten ez bada edo horretarako epe bat finkatzen ez bada, plangintzaren aurkakotzat hartuko dira.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

T Alegazioa

1.- Alegazioaren laburpena

Adierazten da Plan Zuzentzaileak Natura Sarearen Dekretua bete behar duela.

2. Analisia eta inguruabarrak

Izapidean den Dekretuaren helburua, Natura Sarearena bezalaxe, artadi kantauriarrak, kostaldeko zonaldeak eta padurak, ibai-sarea eta estuarioak babestea da. Hori dela eta, eta nahasketak ekidite aldera, KBE eremua arautzen duen Dekretuan barneratzen den erregulazioa, beharrezko aldaketak eginda, EKEG egitamuaren onartzeko Dekretuan barneratu da. KBE eremuaren mugaketa, helburuak eta jarraibideak indarrean mantentzen dira kudeaketa-agiriak onartzeko Dekretuan.

EKEG egitamuaren proposamenak kostaldea, artadia, ibai-sarea eta estuarioa babesteko zehaztapenak barneratzen ditu KBE eremua baino askoz ere eremu zabalago batean, izan ere, gune zona ez ezik, KBE eremutik haratago doazen babes-zonak barneratzen ditu.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/02
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa.

Proposatzailea / alegatzailea
identifikatzea

Erakundea / Entitatea Urdaibaiko Biosfera Erreserba
Zerbitzua Natura Ingurunearen eta Ingurumen
Plangintzaren Zuzendaritza

Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Proposamenaren / alegazioaren kodea 82

EUSKO JAURLARITZA - KULTURA ONDAREAREN
ZUZENDARITZA ARKEOLOGIA ZERBITZU TEKNIKOAK

ALEGAZIOAK ANALIZATZEA ETA HORIEI ERANTZUNA EMATEA

A Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Antolamenduko kategorien barnean (N5.2) Kultura Ondareari buruzko 7/90 legetik eratorritako arkeologia-babes mota ezberdinen artean bereizketa egiteko eskatzen da. Halaber, adierazten da jarraitzeko esku-hartzeak bereiz daitezela, zonetan edozein esku-hartze burutuz gero.

Zerrenda berriki arkeologia-katalogoetan gaineratutako elementuekin osatzeko eskatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

2.3.1.5 artikuluko 2. atalean Kalifikatutako Kultura Ondasunak eta Inbentariatutako Zonak barneratzen dira arkeologia ondasunen zonetan (N5.2).

Proposatutako alegazioa onesteak proposatzen den arauzko testuaren ulermena zailtzea ekar dezake. Zona bat arkeologia-presuntzio modura deklaratzeko ez du esanahi hartako eremuan burutzeko esku-hartzeak murriztu behar direnik eta, horrenbestez, artikuluetan zona horietan erabilera jakin batzuk gauzatzeko aukera adierazi beharko litzatekeela uler daiteke. Haatik, N5.2 zonetan, arkeologia-presuntzio modura deklaraturako zonetako inguruabarrak aintzatesteke, espresuki zenbait erabilera baimentzeko aukerak interes arkeologikoko gisa kalifikatuta eta inbentariatutako Ondasunetan komenigarria ez den eragin bat ekar dezake berekin.

Hori dela eta, arkeologia ondareko zonetan arkeologia-presuntzio modura deklaraturako zonak ez barneratzea proposatzen da espresuki. Dena den, egokitzat jotzen da Plan Zuzentzailearen kultura ondarearen katalogoan zona horiek barneratzea.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea** erabaki da.

2.3.1.5 artikuluko 2. ataleko bigarren puntua aldatzea proposatzen da:

2.3.1.5 artikulua. Interes Kultureko Eremua (N5).

(...)

2. *Antolamendu-azpikategoria:*

- N5.1, *Historia eta Arkitektura Ondareko Zonak. Kalifikatu edo inbentariatutako ondasun higiezinak dira.*
- N5.2, *Arkeologia Ondareko Zonak. Arkeologia Ondarearekin bat datozen Kalifikatutako ~~eta Zonak~~ eta Inbentariatutako Kultura Ondareak dira. 5/1989 Legearekin bat, haitzuloetako arkeologi aztarnategi edo aztarrenen Zona (AA) eta aire libreko arkeologi aztarnategi edo aztarrenen Zona (ALA) bereizten dira.*

Arkeologia-presuntzio modura deklaraturako zonak Dekretuaren Bigarren Xedapen Gehigarrian aipatzen den kultura ondarearen zerrendan jasoko diren arren, ez dira kalifikazio honetan barneratzen.

B Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Laster deklaratu egingo diren arkeologia-elementuak barneratzea eta, kautelazko moduan, 7/1990 Legeko 45.4 artikuluan ezartzen den babes-araubidea ezartzea gomendatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Plan Zuzentzailearen I. eranskinean (1.1.3 artikulua) barneratuko den kultura ondarearen zerrendan kalifikaturako eta inbentariatutako arkeologia-ondareen eta onarpen-datan arkeologia-presuntzio modura deklaraturako zonen zerrenda jasoko da, eta baita Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean barneraturako elementuak ere.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

C Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Itsasadarra dragatzeko eragiketetan edo itsasaldien eragina duten zonetan egiteko edozein lur-mugimenduetan beti ager daitezkeen aztarnak behar bezala kudeatzea bermatzeko arkeologia-kontrola burutu dadila proposatzea gomendatzen da.

2.- Azterketak eta gogoetak

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailearen 4.4.6.1 artikuluan trantsizioko urekin lotutako dragatu eta isuriak jasotzen dira.

Aipaturako artikulua 3.d atalean adierazten denez, dragatu edo isurtzeko eragiketetan arkeologia arloko aurkikuntzetan bereziki erreparatuko da eta, hala badagokio, eskumeneko administrazioei aurkikuntza horien berri eman beharko zaie berehala. Haatik, egokitzat jotzen da alegazioa aintzat hartzea.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea** erabaki da.

4.4.6.1 artikuluko 3. ataleko d puntua berridaztea proposatzen da:

4.4.6.1 artikulua.- Dragatzeak eta isurketak trantsizioko uretan. F.1.

(...)

3. Ezinbestekoa baldin bada sakonera falta dela-eta Muruetako ontziolan eraikitzen diren ontziak ezin direlako atera, ezintasun hori behar bezala arrazoitu beharko da, azterketa tekniko bidez; eta eskura diren teknika onenak bilatuko dira, ontzia inolako dragatze- zein isurtze-lanik egin beharrik gabe atera ahal izatearren. Azterketa horietatik ondorioztatzen bada dragatze-lanen bat egin behar dela, lan horiek ahalik eta txikienak izango dira (erauzi/isuritako sedimentuari eta draga daitezkeen eremuari dagokienez), eta ontziolako ontzi bat estuariotik zehar itsasora atera ahal izateko sakonera-behar puntualari erantzungo diote bakarrik. Jarduera horiek N.1.5 zonako trazatura mugatuko dira (meandro-itxurako hustubide nagusia) eta ubide nagusiaren aldameneko betetzeko ubidetan ez dute eraginik izango. Zehaztapen hauek aplikatuko dira:

(...)

- d. Arreta berezia jarriko da ~~arkeologia-aurkikuntzetan eta~~ I. eranskinean ezarritako elementu gakoan eta natura ondareko habitaten gainean dragatzeko edo isurtzeko eragiketetan sorraraz daitezkeen balizko eraginetan. ~~hala badagokio, eskumeneko administrazioei aurkikuntza horien edo eragin horien berri emanaz berehala, arduraz joka dezaten. Halaber, dragatzeko egin beharreko eragiketa guztietan arkeologia-kontrol sistematikoak burutuko dira.~~
Hala badagokio, eskumeneko administrazioei aurkikuntza horien edo eragin horien berri eman beharko zaie berehala, arduraz joka dezaten.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/02
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Erakundea / Entitatea Urdaibaiko Biosfera Erreserba Zerbitzua Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila Proposamenaren / alegazioaren kodea 87
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	EUSKO JAURLARITZA KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARITZA HISTORIA ETA ARKITEKTURA ONDAREAREN ZERBITZU TEKNIKOAK

[ALEGAZIOAK ANALIZATZEA ETA HORIEI ERANTZUNA EMATEA](#)

[A Alegazioa:](#)

1.- Alegazioaren laburpena

1.1.3 artikuluan barneratzen diren kalifikatutako eta inbentariatutako elementuen zerrendan, Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dagoen Behin-behineko Inbentarioarekin bat etorritik EAEko Monumentutzat jotzeko proposatuta dauden elementuak nahiz dagozkion udal katalogoetan barneratzearen ondorioz hirigintza-babesa duten elementuak ere barnera daitezela gomendatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, 60.2. eta 76. artikuluetan, hirigintza-antolamenduak babesteko natura ondareen edo ondare artifizialen katalogoa arautzen da. Plan Zuzentzailean, Gune Gainkateariaren barnean, Interes Kultureko Eremuan, alde batetik historia eta arkitektura ondareko zonak (N5.1) eta, beste alde batetik, arkeologia ondareko zonak (N5.2) identifikatzen dira. Bietan 7/1990 Legearen arabera kalifikatutako eta inbentariatutako ondare higiezinak barneratzen dira.

Plan Zuzentzailearen I. Eranskinean barneratutako den kultura ondarearen zerrendan (1.1.3. artikulua) aurreko lehen zatian adierazitako kalifikatutako eta inbentariatutako ondareen zerrenda jasoko da, eta baita Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean (aurrerantzean UBEL) barneratutako elementuak ere.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

B Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

2.3.1.5 artikuluko 2. atalean, N.5.1 zonekin lotuta, egiten den deskribapenetik "higiezinak" hitza kentzea proposatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Alegazioa onartzea proposatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea** erabaki da.

2.3.1.5 artikuluko 2. atala aldatzea proposatzen da:

2.3.1.5 artikulua. Interes Kultureko Eremua (N5).

(...)

1. Antolamendu-azpikategoria:

- *N5.1, Historia eta Arkitektura Ondareko Zonak. Kalifikatu edo inbentariatutako ondasun higiezinak dira.*

C Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

2.3.1.3 artikuluan Ereñoko marmol gorriko Harrobiko ondare-balioak barneratzeko proposatzen da.

2.- Azterketak eta gogoetak

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailearen 2.3.1.3 artikuluko 2. atalean Kantera gorriko ekipamendu-zonari dagokion eremua identifikatzen da eta haren garapenerako plana garatu ahal izateko tresna bat onartzeko premia adierazten da. Dokumentu hori eratu eta onartzeko espazioko ondare-balioak kontuan hartuko direla ulertzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Horretarako eratuko den garapen-dokumentuan alegazioan aipatutakoa kontuan hartuko dela ulertzen da.

D Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

N5.1 zonen inguruan babes-zona batzuk (B5) ezartzeko eskatzen da.

2.- Azterketak eta gogoetak

Historia eta arte ondareko zona modura (N5.1) identifikatutako zonak, gehienetan, Eraikinekin datoz bat. Elementu horien inguruan orla erako zona bat ezartzea zehaztugabeegia da, izan ere, ezinezkoa da irizpide homogeen bat finkatzea.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

E Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

3.3.3.2 eta 3.3.3.6 artikuluetan "katalogatu" hitzaren ordez "kalifikatu" hitza proposatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Alegazioa onartzea proposatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea** erabaki da.

3.3.3.2 artikuluko 5. atala aldatzea proposatzen da:

3.3.3.2 artikulua. Eraikuntzako esku-hartze motak.

(...)

5. *IV. Tituluaren arabera beren kultura balioagatik Eraikin kalifikatu edo inbentariatuetan ~~edo katalogatuetan~~ gauza daitezkeen eraikuntzako esku-hartzeak edo, are, horretarako proposatutako eraikinak, beren erregulaziorako eskumenak dituzten arloko araudi eta organismoetan aurreikusitakora egokituko dira.*

Halaber, 3.3.3.6 artikuluko 1. atalean "katalogatu" hitzaren ordez "kalifikatu" hitza proposatzen da.

3.3.3.6 artikulua.- Arkitektura, kultura edo historia aldetiko balioa duten, edo ondare eraikiaren alderdi interesgarri bat diren Eraikuntzetan eraikiari ahalik eta zorrotzen lotzea dakarten esku-hartze motak.

1. *Arkitektura, kultura edo historia aldetiko balioa duten, edo ondare eraikiaren alderdi diren Eraikinak Eusko Jaurlaritzak ondare ~~kalifikatu katalogatu~~ edo inbentariatu modura ezarritakoaren arabera arautuko dira, edo Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jarduera babestuei buruzko abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuan edo hura ordezkatzeko duen araudian jasotako birgaitze zientifiko edo kontserbartzailen esku-hartzeetarako aurreikusitakoaren arabera.*

(...)

F Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Baserri, etxe tradizional, errota, dorretxe eta jauregi tipologiako Eraikin guztien kasuan, banatzeko esku-hartzeetarako, esku-hartzea beti egitura eroalearen mantenuarekin, tipologia bakoitzari berez dagozkion gainerako espazio funtzionalen antolaketaekin eta fatxadaren osaera orokorarekin bateragarri izatera baldintzatzeko baldintza ezartzea, eta barnetik erabat edo partzialki hustu dadila debekatzea proposatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Plan Zuzentzailean banatzeari buruzko eraikuntzako esku-hartze mota bat barneratzeko erabakia hartzeko, lau ikerketa hartu dira erreferentzia modura. Lehenik eta behin, bizitegi-eraikinen inbentarioa aztertu eta eguneratu egin zen Plan Zuzentzailea eratzeko. Bertan jasotzen dira lurzoru urbanizaezinean dauden 2.193 bizitegi-eraikinak. Horietako % 26,27 txalet eta etxebizitza kolektiboko tipologiarekin datoz bat, eta gainerakoak 1950. urtearen aurretiko eraikinen tipologiarekin. Gainera, inbentarioan eraikinen kalifikazioak aipatzen dira.

Inbentarioan agertzen diren datuen arabera, LPP planean aipatzen diren kalifikazioetan (landa gunea edo Nekazaritza-Abeltzaintza babesa eta Landazabala - indarreko Plan Zuzentzaileko A1, A2, A3 eta SRC zonekin edo proposameneko T1.A1 eta T1.PRT zonekin letorke bat) 1950. urtearen aurretiko 1.222. eraikin daude (baserriak LPP planaren terminologian). LPP planean baserri bakoitzeko, gehienez, 4 etxebizitza aurreikusten dira. Horrenbestez, banatzeko esku-hartzearen ondotik 4.888 etxebizitza aterako lirateke.

Arestian aipatu den moduan, bigarrenik 1950. urtearen aurretiko bizitegi-eraikinen tipologia ezberdinak aztertu ziren, eta bakoitzean hutsik geratutako espazioa eta espazio huts horietan etxebizitza berriak hartzeko gaitasuna balioetsi zen. Ondorioztatu zenez, aurretiaz zegoen etxebizitza kopurua (eta jabetza-erregistroan jasotzen zirenak) bikoiztu egin zitekeen, eta familiabakarreko baserri eta errota erako bizitegi-eraikinetarako, gehienez, bi etxebizitza ezarri ziren, eta lau etxebizitzako gehienezko kopurua finkatu zen bi familiako baserrien, etxe tradizionalen, dorretxeen eta jauregien kasuan. Nabarmendu behar da LPP planean lau etxebizitzako gehienezko kopurua ezartzen dela, erregistroan adierazitako etxebizitza kopurua kontuan izan gabe, eta Plan Zuzentzaileari dagokionez, berriz, informazio hori erabakigarria da bi etxebizitzatan edo lau etxebizitzatan banatu ahal izateko. Ikerketa horretan, aurkeztutako alegazioan barneratutakoekin lotutako alderdiak hartu ziren kontuan, 3.3.3.10 artikuluan barneratutako zehaztapenen araubidea ekarri zutenak.

Beranduago, udalerrri mailako azterketa burutu zen, itsasadarraren bi ertzetan erreferente diren bi udalerritan (Busturia eta Kortezubi), lurraldea banatuta etxebizitza kopurua bikoizteak izan zezakeen eragina ikusteko. Ondorioztatu zenez, aurretiaz dauden zerbitzuek egungo eskaeraren bikoitzari aurre egiteko adinako karga-gaitasuna zuten.

Azken ikerketa baliagarri izan da eraikitako ondareari irtenbide bat emateko premia aitortzeko, hura desagertzea nahi ez bada. Ikerketa horretan F alegazioan aipatu diren datuen jatorri izan diren lurzoru urbanizaezinean abandonatuta zeuden eraikinak eguneratu dira.

Horren guztiorren ondotik, Plan Zuzentzailean jasotzen den proposamena ondorioztatu da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzat jotzen da eta ezestea** erabaki da.

G Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

3.3.3.12 artikuluan babesari eta kultura ondareen aldameneko espazioetarako erregulazio espezifikuari heltzeari buruzko aipamen zehatza gaineratzea proposatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Alegazioa onartzea eta, 3.3.3.12 artikuluan kalifikatu eta inbentariatutako kultura ondareei buruzko aipamen berariazkoa gaineratzea proposatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea** erabaki da.

3.3.3.12 artikuluan 4. atal bat gaineratzea proposatzen da.

3.3.3.12 artikulua. Eraikuntzarako lurzati hartzaileen barnealdeko urbanizazio-obretarako esku-hartzeak.

(...)

4. Kalifikatu eta inbentariatutako ondareak hartzeko lurzatiaren barnean gauzatzeko urbanizazio-lanei dagozkion esku-hartzeak arloko araudiak baimendutakoekin etorriko dira bat. Araudi horretan inolako zehaztapenik ezartzen ez bada, Plan honetan ezarritakoa aplikatuko da.

H Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Natura ondarea eraberritzeko esku-hartzeak kultura ondarea mantentzearekin bateragarriak izan beharko direla ezar dadila eskatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Alegazioa onartzea proposatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea** erabaki da.

4.3.2.1 artikuluko 2. atala berridaztea proposatzen da:

4.3.2.1 artikulua.- Ingurumena lehengoratzea. A.2.

(...)

2. Erabilera hau Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremu osoan dago baimenduta eta, hala badagokio, kultura ondarea mantentzearekin bateragarri izateko beharrezkoak diren neurriak hartuz gauzatu beharko da.

I alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Interes kultureko eraikinen kasuan, instalazio fotovoltaikoak eta fototermikoak txertatzea lehenesteko premia ezar dadila eskatzen da, haien ikusizko eragina murrizteko irtenbide berritzaileen bidez.

2. Analisia eta inguruabarrak

4.4.4.26 artikuluko 2.b atalean lurzati hartzailean plakak jartzeko aukera aurreikusten da jadanik, eraikinaren estalkiaren partez, betiere, alde aurretik, eguzki-orientazioarekin edo arkitekturarekin lotutako arrazoiekin justifikatuta badago. Alegazioan egiten den eskariari erantzuteko aipatutako aipamen hori aski dela ulertzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat** jotzen da. Dena den, **ezestea proposatzen da**, dagoeneko aurreikusi egiten delako.

J Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

4.4.5.14 artikuluko 3.b atalean araudia eta eskumeneko kultura organoak aipa daitezela eskatzen da, Kultura Sailak ezartzeko hitzen partez.

2. Analisia eta inguruabarrak

Alegazioa onartzea proposatzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea** erabaki da.

4.4.5.14 artikuluko 3.b atala aldatzea proposatzen da:

4.4.5.14 artikulua.- Nekazaritza-turismoa. E.2.1.

(...)

- b. *Jarduera erabilera baimendu, toleratu edo iraungitako eraikinetan kokatuz gero, eraikin horiek baserriaren tipologiarekin bat etorri beharko dira, Plan honetan hura zehazten den baldintzetan. Gainera, eraikina Gune Babeseko edo Trantsizioko Gainkategorian, edo Interes Kultureko Eremuan barneratutako lurzoruetan kokatu beharko da, aipatu eremurako araudiak eta kultura arloan eskumenekoak diren organoek Kultura Sailak ezarritako baldintzetan.*

K Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

4.4.5.25 eta 4.4.5.26 artikuluetan birgaitze zientifiko eta kontserbartzailerako esku-hartzeak gainera daitezela eskatzen da, Historia eta Arkitektura Ondareko Zonetan (N5.1) ere iraungitako familia-bizitegi erabilera berrezarri ahal izateko.

2. Analisia eta inguruabarrak

N5.1 zonetan barneratutako eraikinetan ere eraberritzeko esku-hartzeak burutu daitezkeela ulertzen da. Horrenbestez, era berean, esku-hartze horien bidez iraungitako erabilera berrezarri ahal izango litzateke.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzen** jotzen da. Dena den, **ezestea proposatzen da**, aipatutako artikuluan dagoeneko aurreikusi egiten delako.

L Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

Erabilera aldatzea ez dakarten eta Gune Gainkategorian kokatutako erabilera toleratuko Eraikinetan burutzeko esku-hartzeen artean (4.6.3 artikulua), kontserbazioko eta apaindurako esku-hartzeaz gain, araudiak eta eskumeneko kultura organoek aurreikusitakoak barnera daitezela eskatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

4.6.3 artikuluko 1.a atalean babes bereziko zonetarako, Urdaibaiko Biosfera Erreserba Babestu eta Antolatzeari buruzko uztailaren 6ko 5/1989 Legean sartzen direnak, barneratzen diren esku-hartzeen araubidea, hartako 13. artikuluan jasotakoa da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **desegokitzen jotzen da eta ezestea** erabaki da.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/06 (epea kanpo)
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Erakundea / Entitatea Urdaibaiko Biosfera Erreserba Zerbitzua Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 80-90
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitararako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia.

ALEGAZIOAK ANALIZATZEA ETA HORIEI ERANTZUNA EMATEA

A Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

4.4.4.1 artikuluari dagokionez, adierazten da beti ez dela posible altzairu eta egur bidezko euste-hesi mistoak erabiltzea. Horrenbestez, "teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak diren kasuetarako" mugatzeko eskatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Ohartarazpena egokitzen da.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Alegazioa **egokitzen da eta onestea** erabaki da.

4.4.4.1 artikulua.- Alderdi orokorrak.

2. Plan honek, Sekzio honetan jasotako azpiegitura edo instalazio batzuen oin berriko ezarpenerako zein horiek handitu edo konpontzeko, Plan Berezi bat onartzea aurreikusten du. Garapen-tresna horrek kasuan kasuko azpiegitura edo instalazioa egiteko beharrezko proiektuen irismena zehazteko balioko du. Garapenerako tresna hori Plan honetako V. Tituluan eta hurrengo ataletan horri buruz adierazitakoaren arabera izango da eta izapidetuko da:

(...)

- b. Foru-errepideak edo udal-titularitate publikoko bideak konpontzeko edo oin berriko esku-hartzeak garatzeko proiektu edo tresnen kasuan, proposamenak, gainera, hainbat zehaztapen jasoko ditu ondoko alderdi hauei buruz:
 - i. Bide-azpiegituretako euste-hesiak mistoak izan beharko dira, hau da, altzairua eta egurra konbinatu beharko dira, teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez den kasuetan izan ezik. Ildo honetatik, egungo sarean dauden elementuak birjartzen direnean, ezaugarri horiek dituzten euste-hesiak jarri beharko dira. Bizikleta edo oinezkoentzako ibilbide bat bide-saretik bereizteko babes-elementuak jarri behar direnean, ezingo da hormigoizko elementu aurre-fabrikaturik ipini.
 - ii. Kasuan kasuko legedi sektorialari jarraikiz bide-sarean jarri behar diren soinu-pantailek gutxienez azaleraren % 40 eduki beharko dute paisaiaren bista-jarraitasuna ahalbidetzen duten elementu gardenez tratatuta.

(...)

B Alegazioa:

1.- Alegazioaren laburpena

4.4.4.5 artikuluari dagokionez, bide horien zabalera 4,5 metrora areagotzeko eta materialean katalogora nahasketa bituminosoko akaberak gaineratzeko eskatzen da.

2. Analisia eta inguruabarrak

Kasu askotan adierazitako zabalera eta materialak gehiegizkoak izan daitezke eta ingurunearen mantenuarekin bateraezina den lurzoruaren eraldaketa bat eskatzen du. Horregatik, egokitzen da alegazioa soilik partzialki onestea, beharrezko salbuespenekin.

3.- Ondorioak eta proposamenak

Partzialki ezestea proposatzen da.

4.4.4.5 artikulua.- Lotura-bidea. D.1.4.

(...)

6. Bizikleten eta oinezkoen erabilera bizia aurreikusita dagoen bideen kasuan, bide horien zabalera 4,5 metrora arte areagotzeko aukera aztertu ahal izango da, Gune eta Gune Babeseko Gaiakategiaz kanpo. Halaber, kolore gorri edo berdeko nahasketa bituminosoko akaberak azter daitezke. Haien ezarpenerako proiektuan justifikatuko da neurri horien premia.

(...)

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/02
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Organismoa / Erakundea: Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 96
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	NABARNIZKO UDALA

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

BI-3242 foru errepidetik gertuan dauden zonei (hurrengo irudian markatzen dira) esleitutako kalifikazioa aldatzeko eskatzen da Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako (T1.A1) balio agrologiko handiko zona kalifikaziora, haiek basozaintzako aprobeixamendutik babestu ahal izateko xedez.

B Alegazioa:

A Alegazioa egokitzen jo ostean, T1.A1 kalifikazioan azienda ukuiluratzeko instalazioak eta lehen eraldaketarako eta abeltzaintzako produktuen salmentarako instalazioak txertatzea baimentzeko eskatzen da.

C Alegazioa:

EKEG egitaman erabilera jakin batzuek, zehazki baso-erabilerak eta baso-pistak irekitzekoak udal lizentzia behar dutela adieraz dadila eskatzen da.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean, Trantsizioko Gainkategoriaiko kalifikazioen artean, alegazioko xede diren lurzoruak, nagusiki, Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako trantsizioko landa-paisaia zona (T1.PRT) eta baso eremuetako % 30-45 bitarteko maldak dituen baso zona (T2.F1) modura kalifikatzen dira. Bi kalifikazioetan baimendurik dago basozaintzako aprobetxamendua (4.4.3.21. artikuluko 12.b.iii atala).

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako paisaia mantendu eta berreskuratzea da Plan Zuzentzailearen helburu nagusietako bat. Horretarako, eta nekazaritza jarduna bultzatzeko xedez, alegazioa onestea proposatzen da.

B Alegazioa:

Balio agrologiko handiko Zonak (T1.A1) bat datoz nekazaritza-potentzialaren ikuspegitik lurzoru onenak dauzkaten zonekin. Lurzoru horien ezaugarriak dira propietate fisiko eta kimiko bikainak izatea, emankorrak izatea, nahiz erabilerrazak eta irisgarriak izatea. Nekazaritza-alorrerako zona estrategikoak dira. Horregatik, zona horiek mantendu eta babesteari lehentasuna ematen zaio beste erabilera batzuen aurrean.

C Alegazioa:

Dekretu honen helburua ez da udal lizentziaren baitakoak diren egintzak adieraztea. Haatik, araudiak eskatutako baimenak eskuratzeko premiari buruzko aipamen orokor bat egitea komeniko litzateke.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **egokitzen** jotzen da **eta onestea proposatu da**.

B Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzen** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

C Alegazioa:

Partzialki ezestea erabaki da.

4.4.3.21 artikulua.- Baso-erabilera. C.4.1.

(...)

1. Zuhaitzak moztu eta landatzeko baimen-eskaerak foru-sail eskudunean aurkeztuko dira. Basozaintzako aprobetxamenduak baimentzeko unean, Plan hau aplikatzearen ondorioz, aprobetxamendu horiek ingurune naturalean edo aurretiaz dauden azpiegituretan eragin ditzaketen kalteak gutxitzeko behar diren neurriak ezarriko dira. Halaber, indarreko araudiaren arabera beharrezkoak diren lizentzia edo baimen guztiak eskatuko dira (...)

4.4.3.23 artikulua.- Baso-pistak. C.4.3.1.

1. Bide publikotik baso-ustiategira iristeko zein ustiategiaren beraren barnean erabiltzeko bideak dira.
2. Arau hauek jarraitu beharko dira:
 - a. Zura ateratzeko lehendik dauden bideez bestelako batzuk zabaldu behar direnean, jabeak edo baso-kudeatzaileak kontsulta egin beharko dio, aurrez, Bizkaiko Foru

Aldundiaren Mendi Zerbitzuari, eta dagokion baimena eskatu. Halaber, indarreko araudiaren arabera beharrezkoak diren lizentzia edo baimen guztiak eskatuko dira (...).

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/01
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Erakundea / Entitatea Urdaibaiko Biosfera Erreserba Zerbitzua Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 100
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	Busturiako Udala.

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

Euskara egiturazko, kontserbazioko, garapen iraunkorreko eta laguntza logistikoko helburuen artean sar dadila eskatzen da, eta baita adierazleen artean gainera dadila ere.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

Izapidean den Dekretuan, helburuetan euskara kontuan hartu da, hura kultura ondare inmaterialen parte den aldetik. Haatik, egokitzat jotzen da aipamen zehatzago bat egitea.

Garapen iraunkorreko helburuei dagokienez, aipatu behar da berriki Unescok Mab 2015-2025 Programaren Estrategia eta Limako Ekintza Plana onartu dituela. Horietan Biosferako Erreserbak Garapen Iraunkorreko Helburuak (NBE erakundeko estatu kideek onartutako Garapen Iraunkorreko Helburuak) betetzeko lagungarri diren eredutzat planteatzen dira. Inguruabar hori, garapen iraunkorreko helburuei dagokienez jasotako alegazio ezberdinak eta 258/1998 Dekretuaren bidez onartutako (1998ko urriaren 21eko EHAA, 200 zk.) Urdaibaiko jarduera sozioekonomiko egokitzapen eta garapenerako programa (PADAS) berrikusteko premia aintzat hartuta, egokiagotzat jotzen da 1.3.1 artikuluko C atalean (NBE erakundeak onartutako Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak) barneratutako garapen iraunkorreko helburu modura aipatzea eta, ondoren, zehaztea PADAS programa berrikusten denean. Horrenbestez, atal honetan ez da euskarari buruzko aipamen zehatzik egingo.

Oso egokitzat jotzen dira adierazleei buruz egindako ekarpenak. Adierazleekin lotuta alegazio asko jaso direnez, eta 1.3.2 artikuluan adierazten den moduan, adierazleen proposamena irekia dela eta adierazleen gaia jorratzen denean haiek ordeztu edo osatzeko aukera izango dela kontuan hartuz, egokitzat jotzen da egungo testua mantendu eta une horretan azterketa orokor bat egitea.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Alegazioak **egokitzat** jotzen dira eta, aurrez adierazitakoa kontuan izanik, **partzialki onestea** erabaki da horrela:

1.3.1 artikulua. Helburu orokorrak.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburu orokorrak honakoak dira:

(...)

1.3.1 artikulua. Helburu orokorrak.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburu orokorrak honakoak dira:

A) EGITURAZKO HELBURUAK.

(...)

- 2) *Ingurumen-, ekonomia-, gizarte- eta hizkuntza-alderdiak jasotzea erabakiak hartzeko unean, etorkizuneko belaunaldien beharrak hipotekatzeke.*

(...)

B) KONTSERBAZIO-HELBURUAK

- 6) *Interes artistiko, arkitektoniko, historiko, arkeologiko, etnografiko, dokumentuzko, bibliografiko, hizkuntzazko edota zientifikoa duten interes kulturalako ondare guztiak (material eta immaterialak) osatutako Kultura ondarearen babesa, hedapena eta sustapena bultzatzea. Euskarazko toponimia erabiltzearen alde egingo da.*

C) GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba lagungarri izango da Nazio Batuek onartutako Agenda 2030 dokumentuan barneratutako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) lortzeko:

1. helburua: Pobreziari amaiera ematea bere adierazpen guztietan mundu osoan.

2. helburua: Gosearekin amaitzea, elikadura segurtasuna amaitzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.

3. helburua: Bizitza osasuntsua eta ongizatea bermatzea adin guztietan.

4. helburua: Hezkuntza inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoa bermatzea eta ikasteko aukerak sustatzea guztientzat eta adin guztietan.

5. helburua: Genero berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortzea.

6. helburua: Pertsona guztientzako ura eta saneamendua eskura izango direla eta modu iraunkorrean kudeatuko direla bermatzea

7. helburua: Energia merke, ziuerra, jasangarri eta modernoak guztien eskura izango dela bermatzea.

8. helburua: Hazkunde ekonomiko jarraitu, inklusibo eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina ere.

9. helburua: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta iraunkorra sustatzea eta berrikuntza bultzatzea

10. helburua: Herrialdeen arteko zein herrialdeen barneko desberdintasunak murriztea.

11. helburua: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.

12. helburua: Kontsumo eta ekoizpen jasangarriko ereduak bermatzea.

13. helburua: Klima aldaketa eta bere eraginei aurre egiteko neurri urgenteak hartzea.

14. helburua: Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatu eta erabiltzea, betiere garapen jasangarria helburu.

15. helburua: Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestu, berrezarri eta bultzatzea, basoak modu iraunkorrean kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiarazi eta iraultzea eta aniztasun biologikoaren galera etetea.

16. helburua: Garapen jasangarriko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztiek justizia eskura izatea bermatzea, eta erakunde eraginkor, arduratsu eta inklusiboak sortzea maila guztietan.

17. helburua: Garapen Iraunkorrerako exekuzio baliabideak indartzea eta munduko aliantza biziberritzea

Helburu horiek berrikusi eta zehaztu egingo dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako jarduera sozioekonomikoen egokitzapen eta garapenerako programa onartzen duen irailaren 29ko 258/1998 Dekretua berrikusten denean.

D) LAGUNTZA LOGISTIKOAREN HELBURUAK:

- 2) Urdaibaiko gizarte-, natura-, kultura- eta hizkuntza-ondareari dagokionez interpretazioa, balioan jartzea eta jasangarritasunean oinarritutako heziketa sustatzea, horretarako beharrezkoak diren baliabide didaktikoak eskainiz. Jasangarritasunaren arloko hezkuntzarako behar diren ekipamendu eta materialak sortzea sustatzea.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/02
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa.

**Proposatzailea / alegatzailea
identifikatzea**

Organismoa / Erakundea: Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza

Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Proposamenaren / alegazioaren kodea 102

KORTEZUBIKO UDALA

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Biztanleei eta EKEG egitamuak eragindako eraikin eta lurretako jabedunen eta udal mailako nahiz udalaz gaindiko haien antolamenduari buruzko xehetasunezko errolda bat presta dadila eskatzen da, bakoitzarengan eragina duten erabakien berri indibidualki emateko eta Erreserbaren kudeaketa iraunkorrean haien inplikazio aktiboa lortzeko xedez.

B Alegazioa:

Arkitektura ondareen kudeaketari buruzko irizpide orokor batzuk proposatu, 6. Kapituluaren ezartzen diren moduan, eta arkitektura ondarearen inguruan proposatutako esku-hartze ezberdinei buruzko araudia sinplifikatu behar dela ulertzen da.

C Alegazioa:

Erabilera ezberdinak ezartzeko mekanismoak finka daitezela eta baimendutako instalazioak jardueren tamainara egoki daitezela eskatzen da.

D Alegazioa:

Eraikinak birgaitzea ahalbidetzeko funtsezko jarraibideak eragindako baserritarrekin adostea proposatzen da, arkitektura eta ingeniariaren tradizionalarren irudi, osaera eta estetikara egokituz. Proposatutako araudia sinplifikatzea proposatzen da, gehiegizkoa eta alderdi batzuetan kontraesankorra dela ulertzen baita.

E Alegazioa:

Eraikinetan energia berriztagarriak erabiltzeari eta energia-efizientziari dagokienez, erkidegoko eta estatuko araudi espezifikokoan dagoeneko zehazten diren alderdietan esku hartu ez dadila eskatzen da.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

EKEG egitamua onartzen duen Dekretu-proiektua izapidetzean herritarren partaidetzarako hiru prozesu burutu dira, EKEG egitamuaren proposamena idatzi aurretik. Horien bitartez herritarren nahiz administrazioen iritzia jaso ahal izan da.

Orobat, testua ulertu ahal izateko herritarren eskura jarritako bitartekoak (besteak beste, informazio-saioak eta kontsulta pertsonalatuak) azpimarratu behar dira.

Izapidean Xedapen Orokorrek eratzeko prozesua zehazten duen abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako prozedura jarraitu da eta, era berean, kontuan hartu da Urdaibaiko Biosfera

Erreserbari buruzko 5/1989 Legean, zehazki, 15. artikuluko bigarren lerroaldean xedatutakoa, eta normalean ematen dena baino epe luzeagoa eman zaie entzunaldi publikoko izapiderako eragindako udalerriei eta Bizkaiko Foru Aldundiari. Horrenbestez, entzunaldirako emandako epea legez ezarritakoa izan da.

B eta D Alegazioak

Ondarea behar bezala kudeatu eta teknikariei eta herritarrei segurtasun juridiko handiagoa emateko, ezinbestekotzat jo da xehetasunezko testu bat eratzea, arloko araudia ere aipatzen duena, hura errazago aplikatzeko.

Izapidean den Dekretuan barneratzen den proposamena eratzeko partaidetzazko hiru prozesu burutu dira teknikari, zientzialari, herritar eta udalekin. Gainera, lan-bilkura ugari egin dira administrazio ezberdinetako teknikariek. Horren guztiorren ondorioz, ekarpen hauek jasotzen dituen testuari hasierako onarpena eman zaio, eta testua ahalik eta gehien hedatu da informazio-epean zehar, beste behin, haren eraketan partaidetza handia ahalbidetzeko xedez.

C Alegazioa:

Erabilera berriekin lotutako oin berriko Eraikinak nahiz aurretiaz dauden Eraikinetan erabilera berriak txertatzeko aukera EKEG egitamuaren proiektuan arautzen dira (4. KAPITULUA. LURRALDEAREN ETA HARTAKO BALIABIDEEN APROBETXAMENDU IRAUNKORRA), 5/1989 Legeko helburu eta xedeari nahiz EKEG egitamuaren proiektuan ezarritako helburuei (1. artikulua) jarraikiz. Txertatzeko erabilerei eta erabilera horiekin lotutako Eraikinen tamainari buruzko erregulazioa finkatzerako garaian, lurraldean aurretiaz dauden erabilerak eta bertan ezar daitezkeenak hartu dira kontuan, betiere, erabilera horiek txertatzeko aukerarekin hauek burutzeko edo burutu nahi diren eremuetako ingurumen eta kultura arloko balioak errespetatzen badira. Baimendu edo toleratzen diren Eraikinetako gehienezko dimentsioei dagokienez, erabilera mota bakoitza garatzeko gaur egungo eraikuntzako premiei dagokion errealitatearekin datoz bat eta, era berean, lurzoru urbanizaezina okupatzeko aukerari dagokion proportzionaltasun jakin batekin.

E Alegazioa:

Proposatutakoa ezinbestekoatzat jotzen da, hala Urdaibaiko Biosfera Erreserba modura finkatutako helburuak betetzeko, nola arloko Europako Jarraibideekin lerrokatzeko.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Alegazioak **desegokitzat** jotzen dira **eta ezestea erabaki da.**

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/01
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa.

Proposatzailea / alegatzailea
identifikatzea

Erakundea / Entitatea Urdaibaiko Biosfera Erreserba
Zerbitzua Natura Ingurunearen eta Ingurumen
Plangintzaren Zuzendaritza

Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Proposamenaren / alegazioaren kodea 104

Ajangizko Udala.

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Landa guneeetan eraikin berriak elementu metatzaitetik 100 metrora kokatu ahal izatea, eta ez 50 metrora, eskatzen da.

B Alegazioa:

Hiru Azienda Larri Unitate (AzLU) hartzeko portxe eta etxolen eraikuntzarako proiektua ezinbestekoa dela adieraz dadila eskatzen da.

C Alegazioa:

Landa guneeetako lurzati hartzaileetan maldei eta bidearen pareko tarteari dagokienez eskatzen diren betekizunak murriztea planteatzen da.

D Alegazioa:

Baserriaren banaketarekin baterako espazioak mantentzeko zailtasuna planteatzen da.

E Alegazioa:

4.4.3.13 artikuluan araututako instalazioetan mugetarako distantzia jakin bat eska dadila eskatzen da.

F Alegazioa:

Euskara egiturazko, kontserbazioko, garapen iraunkorreko eta laguntza logistikoko helburuen artean sar dadila eskatzen da, eta baita adierazleen artean gainera dadila ere.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Alegazio honi erantzuteko, kontuan izan behar da horri buruz Bizkaiko Foru Aldundiaren Hirigintza Zerbitzuaren O alegazioan jasotakoa.

B Alegazioa:

5.1.4 artikuluko 2.a.iii atalean proiektu bat aurkeztea zein kasutan ez den beharrezkoa adierazten da, Plan honen aplikazioaren ondorioetarako. Hura barneratzen da udal hirigintza-araudi batzuetan jasotzen ez diren alderdi batzuk argitzeko borondatez. Haatik, zehaztapen horiek barneratzen dituzten araudiak dituzten udalen kasuan araudia aplikatzean gerta daitezkeen nahasketak ekidite aldera, egokitzat jotzen da hura kendu eta udal hirigintza-araudiari heltzea.

C Alegazioa:

Plan Zuzentzailean Eraikina hartzen duen lurzatiak % 20ko batez besteko malda izateari buruz agertzen den eskakizunaren (3.5.1.2 artikuluko 2. atala eta 4.4.5.25 artikuluko 6. atala) arrazoia da alde zuzenetik topografia eraberrituta gure paisaia eraldatzeko aukera ekiditea.

Halere, alegazioari jarraikiz, ulertzen da beste irtenbide batzuekin ere helburu hori berma daitekeela, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren eremuko lurzati askotan Eraikinak gauzatzeko aukera gehiegi hipotekatu gabe. Horregatik, eta ahalik eta lur-mugimendu gutxien bermatzeko xedez, gehienezko batez besteko maldari buruzko eskakizuna Eraikinaren okupazio-eremuan eta bere perimetrotik 5 metrora soilik arautzea proposatzen da.

Bide publikoarekiko lurzatiaren aurrealdeari dagokionez, adierazi behar da hura zehaztearen helburua titulartasun publikoko errepidetik sarbide zuzenik ez duten lurzatietan Eraikinak gauzatu ahal izatea ekiditea dela.

D Alegazioa:

3.3.3.10 artikuluko 4.a atalean ezartzen denez, banaketa jabetzaren banaketa horizontala izango da. Horrela, etxebizitza-eraikineko hiri jabetza gehienetan gertatzen den moduan, banaketaren ostean higiezinaren titularrak bere etxebizitzaren eta baterako elementuen portzentaje jakin baten jabedun izatea aurreikusten da. Elementu horiek jabetza horizontaleko estatutu batzuekin, derrigorrez betetzekoak, arautuko dira.

E Alegazioa:

515/2009 Dekretua aplikatzekoa da instalazio mota hauen kasuan. Aipatutako dekretuaren I. eranskinen III. kapituluko 6. atalean alegazioan aipatzen diren distantziak finkatzen dira. Alderdi hori argitzeko xedez, artikulua berridaztea proposatzen da:

F Alegazioa:

Izapidean den Dekretuan, helburuetan euskara kontuan hartu da, hura kultura ondare inmaterialen parte den aldetik. Haatik, egokitzat jotzen da aipamen zehatzago bat egitea.

Garapen iraunkorreko helburuei dagokienez, aipatu behar da berriki Unescok Mab 2015-2025 Programaren Estrategia eta Limako Ekintza Plana onartu dituela. Horietan Biosferako Erreserbak Garapen Iraunkorreko Helburuak (NBE erakundeko estatu kideek onartutako Garapen Iraunkorreko Helburuak) betetzeko lagungarri diren eredutzat planteatzen dira. Inguruabar hori, garapen iraunkorreko helburuei dagokienez jasotako alegazio ezberdinak eta 258/1998 Dekretuaren bidez onartutako (1998ko urriaren 21eko EHAA, 200 zk.) Urdaibaiko jarduera sozioekonomiko egokitzapen eta garapenerako programa (PADAS) berrikusteko premia aintzat hartuta, egokiagotzat jotzen da 1.3.1 artikuluko C atalean (NBE erakundeak onartutako Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak) barneratutako garapen iraunkorreko helburu modura aipatzea eta, ondoren, zehaztea PADAS programa berrikusten denean. Horrenbestez, atal honetan ez da euskarari buruzko aipamen zehatzik egingo.

Oso egokitzat jotzen dira adierazleei buruz egindako ekarpenak. Adierazleekin lotuta alegazio asko jaso direnez, eta 1.3.2 artikuluan adierazten den moduan, adierazleen proposamena irekia dela eta adierazleen gaia jorratzen denean haiek ordeztu edo osatzeko aukera izango dela kontuan hartuz, egokitzat jotzen da egungo testua mantendu eta une horretan azterketa orokor bat egitea.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

D alegazioa salbuetsita, gainerako alegazioak **egokitzat** jotzen dira eta, aurrez adierazitakoa kontuan izanik, **partzialki onestea** erabaki da horrela:

A Alegazioari dagokionez:

5.2.3 artikulua. Plan Bereziak.

(...)

5. Plan hau garatzeko bidean, plan bereziak aurreikusten dira, gutxienez honakoetarako:

(...)

f. Bizitegi-kokapen Nuklearren Eremuetako Landa Guneetako Zonak (T3.NR) garatzea ahalbidetuko duen araudi bat zehazteko beharrezkoak diren zehaztapenak zehatzea.

Plan Berezi horietan, legez eska daitekeen dokumentazioarekin batera, aurretiaz dauden Eraikinak hartzeko lurzatiaren kokapena, etxebizitza-eraikin berriak hartzeko moduko lurzatiaren kokapena, Landa Gunearen perimetroaren mugaketa eta 3.5.3.1 artikuluan zehaztutakoaren arabera eraikin berri guztietan, modu berean, aplikagarri den itxitura-tipologiaren araudia jaso beharko da. Zehaztapen horiek guztiak, era berean, udal plangintza orokorrerako tresnaren bidez ere zehaztu aha lizango dira.

Hurrengo araudia ezartzen da, Landa Guneak garatzeko idatzi beharreko Plan Berezi guztietan bete beharko dena:

- i. Eraikin berriak eraikin berriak hartzeko lurzatiak gehienez 50 metroko distantziara egon behar dira Tresnarekin distantziak ezarri beharko dira bizitegi-kokaleku nuklearra itxuratzen duten eraikinak biltzen diren espazio publikoaren erdigunetik gehienez zein distantziara egon behar duten finkatu beharko da.
- ii. Lurzati hartzaileen kasuan gutxienez 5 metroko tartea izan beharko da bide publikoarekiko ~~eta, gutxienez, 1.500 m² ko azalera izan beharko dute.~~
- iii. Lurzatiaren gutxienezko azalera finkatuko da.
- iv. Bizitegi-eraikin berrien kasuan okupaziorako gutxienezko azalera finkatuko da, landa gunean dauden bizitegi-eraikinetako batez bestekora egokitzeko xedez.
- v. Lurzati hartzailearen barnean eraikitako azalera ezingo da 400 m² baino handiagoa izan, bizitza bakarreko etxebizitzaren kasuan, berriz, ezta 600 m² baino handiagoa ere bizitza biko etxebizitzaren kasuan.
- vi. Eraikinetik mugetara eta udal-titularitate publikoko errepidera gutxienez 5 metroko tartea egongo da.

B Alegazioari dagokionez:

5.1.4 artikuluko 2.a.iii ataleko bigarren puntua aldatzea proposatzen da:

5.1.4 artikulua. Plana gauzatzeko proiektu eta jardueri buruzko txostenak emateko prozedura. Alderdi orokorrak.

(...)

2. Eskaerarekin batera honakoak joango dira:

a. Gauzatu nahi den jarduketaren definiziorako behar den dokumentazio teknikoa, formatu digitalean:

iii. Plan honetan adieraziaren ondorioetarako, erakuntza-ekintza batek ez du proiekturik beharko, baldin eta:

- *Eraikuntza bateko kontserbazioko eta apaindurako esku-hartzeetan sartzen diren obrak badira, betiere egitura-elementuei, hala nola petral, habetzan edo estalkiko gailurrei, eragin gabe.*
- *Udal hirigintza-araudiak horrela zehazten duenean. ~~Ataripe bat egiteko oin berriko esku-hartze bat bada, horren xedea delarik lanabesak eta makineria txikia gordetzeko eta landare-espezieen laborantza eta autokontsumorako instalazioak edo gehienez ere 3 azionda larri unitateri aterpea emateko instalazioak jartzea.~~*

C Alegazioari dagokionez:

3.5.1.2 artikuluko 2. atala aldatzea proposatzen da:

3.5.1.2 artikulua. Eraikuntzako araubidea. Lurzati-unitate, eraikuntzaren lurzati hartzaile, lurzati lotu eta barruti osoaren definizioa.

2. Eraikuntzaren lurzati hartzailea: Lurzati hartzailea da barruti osoa eratzen duen eta Eraikuntza bat edo batzuk dauzkan edo eduki ditzakeen lur-azalera oro. ~~Unitatean sartzen dira, halaber, landaketak, zuhaiztiak eta unitate barneko urbanizazio-lanak.~~ Gainera, lurzatiak gutxienez bide publikorako 25 m-ko aurrealdea eduki beharko du, ~~eta % 20tik beherako batez besteko malda.~~ Lurzati hartzailearen barnean, Eraikina lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko gutxienez, bost metroko perimetro batean.

4.4.5.25 artikuluko 6. atala aldatzea proposatzen da:

4.4.5.25 artikulua.- Familiaren bizitegi-erabilera. E.3 Alderdi orokorrak.

(...)

6. *Eraikina hartzen duen lurzatiak, erabilera ezarri aurretik, ur- eta argindar-zuzkidurako zerbitzuak eta kanpo-argiteria eduki beharko ditu, bide publikora ematen duen gutxienez 5 metroko alde batekin batera. Oin berriko esku-hartzeen bidez txertatzen diren familiako bizitegi-erabileren kasuan, ~~lurzatiaren batez besteko malda % 20tik beherakoa izan beharke da,~~ eraikina lurraren malda % 20tik beherakoa den edozein zonatan gauzatu ahal izango da, Eraikinaren okupazioarekiko gutxienez, bost metroko perimetro batean.*

E Alegazioari dagokionez:

4.4.3.13 artikuluko 1. atala berridaztea proposatzen da:

4.4.3.13 artikulua.- Abeltzaintza-jardueratik deribatutako produktuak arazteko instalazioak. C.2.2.3.

1. *Simaurtegi-instalazioak eta minda-deposituak dira. Edozein kasutan, 515/2009 Dekretuaren arabera arautuko dira.*

F Alegazioari dagokionez:

1.3.1 artikulua. Helburu orokorrak.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburu orokorrak honakoak dira:

(...)

1.3.1 artikulua. Helburu orokorrak.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburu orokorrak honakoak dira:

A) EGITURAZKO HELBURUAK.

- (...)
- 3) Ingurumen-, ekonomia-, gizarte- eta hizkuntza-alderdiak jasotzea erabakiak hartzeko unean, etorkizuneko belaunaldien beharrak hipotekatzeko.
- (...)

B) KONTSERBAZIO-HELBURUAK

- 7) Interes artistiko, arkitektoniko, historiko, arkeologiko, etnografiko, dokumentuzko, bibliografiko, hizkuntzazko edota zientifikoa duten interes kultureko ondare guztiekin (material eta immaterialak) osatutako Kultura ondarearen babesa, hedapena eta sustapena bultzatzea. Euskarazko toponimia erabiltzearen alde egingo da.

C) GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba lagungarri izango da Nazio Batuek onartutako Agenda 2030 dokumentuan barneratutako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) lortzeko:

1. helburua: Pobreziari amaiera ematea bere adierazpen guztietan mundu osoan.
2. helburua: Gosearekin amaitzea, elikadura segurtasuna amaitzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.
3. helburua: Bizitza osasuntsua eta ongizatea bermatzea adin guztietan.
4. helburua: Hezkuntza inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoa bermatzea eta ikasteko aukerak sustatzea guztientzat eta adin guztietan.
5. helburua: Genero berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortzea.
6. helburua: Pertsona guztientzako ura eta saneamendua eskura izango direla eta modu iraunkorrean kudeatuko direla bermatzea
7. helburua: Energia merke, ziarra, jasangarri eta modernoa guztien eskura izango dela bermatzea.
8. helburua: Hazkunde ekonomiko jarraitu, inklusibo eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina ere.
9. helburua: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta iraunkorra sustatzea eta berrikuntza bultzatzea
10. helburua: Herrialdeen arteko zein herrialdeen barneko desberdintasunak murriztea.
11. helburua: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. helburua: Kontsumo eta ekoizpen jasangarriko ereduak bermatzea.
13. helburua: Klima aldaketa eta bere eraginei aurre egiteko neurri urgenteak hartzea.
14. helburua: Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatu eta erabiltzea, betiere garapen jasangarria helburu.
15. helburua: Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestu, berrezarri eta bultzatzea, basoak modu iraunkorrean kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiarazi eta iraultzea eta aniztasun biologikoaren galera etetea.
16. helburua: Garapen jasangarriko gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztiek justizia eskura izatea bermatzea, eta erakunde eraginkor, arduratsu eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17. helburua: Garapen Iraunkorrerako exekuzio baliabideak indartzea eta munduko aliantza biziberritzea

Helburu horiek berrikusi eta zehaztu egingo dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako jarduera sozioekonomikoen egokitzapen eta garapenerako programa onartzen duen irailaren 29ko 258/1998 Dekretua berrikusten denean.

D) LAGUNTZA LOGISTIKOAREN HELBURUAK:

- 3) *Urdaibaiko gizarte-, natura-, kultura- eta hizkuntza-ondareari dagokionez interpretazioa, balioan jartzea eta jasangarritasunean oinarritutako heziketa sustatzea, horretarako beharrezkoak diren baliabide didaktikoak eskainiz. Jasangarritasunaren arloko hezkuntzarako behar diren ekipamendu eta materialak sortzea sustatzea.*

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/02
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Organismoa / Erakundea: Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 106
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	FORUKO UDALA.

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Foruko hiri-lurzoruaren iparraldeko zona osatzen duten lurzatiak kartografikoki doitu eta Udal Hirigintza Plangintzak Antolatze Eremuaren (UHPA) kalifikaziora doitzeko eskatzen da. Gernika-Markina Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialaren azken onarpenerako dokumentuan horrelakotzat hartzen da grafikoan.

B Alegazioa:

Tenería Vascongada fabrikaren mugaketa fabrika hartzen duen lurzati osora doitzeko eskatzen da. Kulturako sailburuaren 2007ko abenduaren 11ko Aginduan Foruko udal barrutiko landa-katastroko 007 industrialdeko 006. zenbakidun lurzati osoa Kultura Ondare modura kalifikatzen da, Monumentu kategoriarekin Euskal Kultura Ondarearen Inbentario nagusian.

C Alegazioa:

Tenería Vascongada fabrikaren alboko lurzatiak Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako trantsizioko paisaia-zona modura (T1.PRT) edo Sistema-eremuetako erkidegoko ekipamenduetako zona modura (T4.ECR) kalifikatuta gera daitezela eskatzen da.

D Alegazioa:

Foruko 004. industrialdeko 154. eta 155. zenbakidun lurzatiak, hilerria eta Foruko Udaleko brigadaren biltegiko zona bat hartzen dituztenak, osorik Sistema-eremuko erkidegoko ekipamenduetako zona modura (T4.ECR) kalifikatzea proposatzen da.

E Alegazioa:

Foruko udal barrutiko landa-katastroko 007. industrialdeko 531. zenbakidun lurzatian kokatutako "Kalabria" izeneko zaharren egoitza Sistema-eremuko erkidegoko ekipamenduetako zona modura (T4.ECR) kalifika dadila eskatzen da.

F Alegazioa:

Sistema-eremuko erkidegoko azpiegitura eta zerbitzuak hartzera bideratutako zona modura (T4.IS) kalifikatutako eremu eta eraikin guztiak lekutzen diren lurzatiari dagozkion jabetza-mugetara egoki daitezela eskatzen da. Eredu modura, Foruko ur depositua iradokitzen da, Foruko udal barrutiko landa-katastroko 003. industrialdeko 442. zenbakidun lurzatian kokatzen dena.

G Alegazioa:

Jabetzaren mugetan dagoen "Ereñozarreko Gaztelua" izeneko zonan sistema-eremuko erkidegoko ekipamenduetako zonaren (T4.ECR) kalifikazioa areagotzeko eskatzen da, bide-lotura bat finkatu ahal izateko, hala ekialdera nola mendebaldera.

H Alegazioa:

Gaur egun "Bolialde" eremuak jasotzen duen arkeologia ondareko zonaren (N.5.2) kalifikazioa aldatzea eskatzen da, landa-paisaia zonara (T1.PRT) eta zerbitzuetako azpiegituren zonara (T4.IS).

I alegazioa:

Foruko "Landaberde ekialde" izeneko eta Gernika-Lumoko hiri-lurzoruaren mugakide den hiri-zonako hegoaldeko zonaldea Udal Hirigintza Plangintzak Antolatzeke Eremu (UHPA) modura edo, ezin bada, trantsizioko landa-paisaia zona modura (T1.PRT) kalifika dadila eskatzen da, Gernikatik Bermeora doan BI-2235 errepidearen eskuineko ertzean, Dia supermerkatuaren parera arte.

J Alegazioa:

Hegoaldean Gernika-Lumo udal barrutiarekin muga egiten duen Fielato eremua sistema-eremuetako erkidegoko ekipamenduetako zona modura (T4.ECR) kalifika dadila eskatzen da.

K Alegazioa:

Foruko udal barrutiko landa-katastroko 004. industrialdeko 187., 188., 189., 191., 192. eta 193. zenbakidun lurzatiak, Foruko hiri-lurzoruaren hego-mendebaldeko zonan kokatuak eta ibai sarearen babes zona (B4.1) modura kalifikatuak, trantsizioko landa-paisaia zona (T1.PRT) izatera pasa daitezela eskatzen da.

L Alegazioa:

BI-2235 foru errepidean zehar, Foruko UHPA eremuko lurzoruen eta Gernika-Lumo artean, B4.1 modura kalifikatutako eremuak murriztu eta T1.PRT kalifikaziora pasa daitezela eskatzen da.

M Alegazioa:

Urbaruagako Landa Gunearen mugaketa egoki dadila eskatzen da, T3.NR kalifikazioaren mugaketara 007. industrialdeko 452. zenbakidun lurzatia gaineratuz.

N eta Ñ Alegazioak:

Arnotxerri eta Baldatikako biztanlegune kontsolidatuko T3.NPC mugaketak egoki daitezela eskatzen da.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Alegazioaren xede den zona indarreko Plan Zuzentzailean OPU modura kalifikatuta dago, eta "B motako " kokaleku-sistema modura mugatuta dago (dentsitate ertain-baxuko 30-50etx/biz bizitegi erako okupazioarekin muga egiten duen eremua) Gernika-Markina Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (aurrerantzean, LPP) behin betikoz onartzeko martxoaren 1eko 31/2016 Dekretuaren arabera.

Hori dela eta, lurzoru horiek berriro kalifikatu eta Udal Hirigintza Plangintzak Antolatzeke Eremu (UHPA) modura kalifika dadila eskatzen da.

B Alegazioa:

Alegazioan jasotzen den moduan, Foruan (Bizkaia) dagoen Tenería Vascongada fabrika Monumentu kategoriarekin inskribaturik dago Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian, Kulturako sailburuaren 2007ko abenduaren 11ko Aginduz. Agindu horretako I. eranskinean jasotzen denez, mugaketa-eremua fabrika hartzen duen lurzatiaren jabetza-mugak zehaztutakoa da.

Alegazioa onestea eta alegazioan Udalak proposatutako eremua Historia eta Arkitektura Ondareko Zona modura kalifikatzea proposatzen da.

C Alegazioa:

Alegazioaren xede den Tenería Vascongada fabrikaren alboko lurzatiak itsasadarraren babeserako eremu modura (B1) daude kalifikatuta. Eremu horien helburua gune zonen oinarritzko kontserbazioa babes zonetako ingurumenari dagokion garapen iraunkorarekin integratzea da. Zona horietan burutzen diren jarduerak gune zonetako jardueren osagarri izan behar dira, eta ez dira, inolaz ere, hura kontserbatzearekin lotutako helburuak oztopatu behar.

D Alegazioa:

Alegazioa onestea eta Foruko 004. industrialdeko 154. eta 155. zenbakidun lurzatiak, oso-oso, T4.ECR modura barneratzea da.

E Alegazioa:

Zonak duen antropizazio maila ikusita, alegazioa onartzea proposatzen da. Haatik, aurretiaz dauden elementuak ikusirik, bizitegi-eremua sistema-eremuko erkidegoko ekipamenduetako zona modura (T4.ECR) kalifikatzea eta ibai sarearen babeserako zonaren eremua (B4.1) bizitegiaren iparraldera doan bide publikoko eremura murriztea proposatzen da. Halaber, ibai sarearen eremua (N4) berriro mugatzea proposatzen da.

F Alegazioa:

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean sistema-eremuko erkidegoko azpiegitura eta zerbitzuak hartzerantz bideratutako zonak (T4.IS) kokapenaren eta ezaugarrien arabera

mugatu dira. Horretarako, zona horien izaera eta kokapena aztertu dira, eta egiaztatu denez, kasu askotan, instalazioa hartzeko lurzatiak ingurune fisikoari dagozkion beste erabilera batzuk ditu edo izan ditzake. Horrenbestez, kalifikazio honen barnean jarduerara bideratutako zona soilik sartzea erabaki da.

G Alegazioa:

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean z moduko kalifikazioa aurreikusten zen.

Plan Zuzentzailearen dokumentazio grafikoa sistema-eremuko erkidegoko ekipamenduetako kalifikazioaren (T4.ECR) barnean Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinean dagoeneko jardunean dauden ekipamendu eta hornidurak sartu dira. Haatik, kalifikazio berean, Urdaibaiko Dorrearen edo Ereñozarreko Gazteluaren ingurunea, nahiz eraikina bera ere sartzen dira.

Dokumentuan gainerakoan adierazten denarekin koherentzia mantentze aldera, ingurune horri kalifikazio hori kendu eta nekazaritza-abeltzaintza eta landazabaleko Intereseko eremuetako trantsizioko paisaia-zona modura (T1.PRT) kalifikatzea proposatzen da, izan ere, kalifikazio horretan Plan Zuzentzailean barneratzen diren interes publikoko erabilera eta jarduerak ere gauza daitezke, Plan Berezi baten bidez.

H Alegazioa:

Uztailaren 1eko 146/2003 Dekretuaren bidez Foruko (Bizkaia) Erromatarren Herrixkako Arkeologi Zona Kultura Ondare kalifikatu zen, Monumentu Multzo kategoriarekin. Plan Zuzentzailean arkeologia ondareko zona modura kalifikatu da aipatutako dekretuak mugatutako eremua.

I alegazioa:

Alegazioaren xede den eremua itsasadarraren babeserako eremu modura (B1) dago kalifikatuta. Eremu horien helburua gune zonen oinarrizko kontserbazioa babes zonetako ingurumenari dagokion garapen iraunkorarekin integratzea da. Zona horietan burutzen diren jarduerak gune zonetako jardueren osagarri izan behar dira, eta ez dira, inolaz ere, hura kontserbatzearekin lotutako helburuak oztopatu behar.

J Alegazioa:

“Fielatua” izeneko lurzati ibaiaren babeserako zona (B4.1) eta ibai sarearen eremu (N4) modura dago kalifikatuta. Haatik, lurzoru horien antropizazio maila eta haietako ezaugarri bereziak ikusirik, Gune eta Gune Babesa Galkategorietan barneratutako zonak berriro mugatzea proposatzen da.

K Alegazioa:

Alegazioaren xede diren lurzatiaren eremua ibai sarearen babeserako zona (B4.1) modura dago kalifikatuta. Eremu horien helburua gune zonen oinarrizko kontserbazioa babes zonetako ingurumenari dagokion garapen iraunkorarekin integratzea da. Zona horietan burutzen diren jarduerak gune zonetako jardueren osagarri izan behar dira, eta ez dira, inolaz ere, hura kontserbatzearekin lotutako helburuak oztopatu behar.

L Alegazioa:

BI-2235 Foru errepidearen eskuineko ertzaren alboko eremua, Foruan eta Gernika-Lumon, udal hirigintza plangintzak antolatutako eremu (UHPA) modura kalifikatutako zonen artekoa, tramotan, ibai sarearen babeserako zona (B4.1) eta ibaiaren babeserako eremu (B1) modura dago kalifikatuta. Bere helburua gune zonen oinarrizko kontserbazioa babes zonetako ingurumenari dagokion garapen iraunkorarekin integratzea da.

Haatik, alegazioa, Eraikinak barneratzen dituzten zenbait eremuren antropizazio maila eta babeserako elementuekiko haiek agertzen duten distantzia ikusirik, iparralderago dagoen zonan, Foruko UHPA eremuaren alboan, eskaera aintzatestea proposatzen da.

M Alegazioa:

Urberuagako Landa Gunerako proposatutako mugaketa onestea proposatzen da. Edozein kasutan, adierazi behar da, Plan Zuzentzailean, 2.3.3.3. artikuluan, dagoeneko aurreikusten dela landa guneeetako mugaketa aldatu egin ahal izango dela HAPO plana edo dagokion Plan Berezia onartuta, betiere, horrek gunee eta guneearen babes Gainkategorietan barneratutako lurzoruetan eraginik ez badu.

N eta Ñ Alegazioak:

Udalaz gaindiko administrazio ugari aurkeztutako alegazioak kontuan hartuz, bizitegi nuklearren eremuetako biztanlegune kontsolidatuen kalifikazioa (T3.NPC) kendu egin da. Horrenbestez, ez dagokion alegazioak aintzatestea.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea proposatu da.**

B Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea proposatu da.**

C Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da.**

D Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea proposatu da.**

E Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea proposatu da.**

F Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da.**

G Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da.**

H Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da.**

I alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da.**

J Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat jotzen da. Dena den, partzialki onestea** proposatu da.

K Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da.**

L Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **proposatutako eremu osoan**; dena den, **partzialki onestea proposatu** da.

M Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea proposatu da**.

N eta Ñ Alegazioak:

Ez dagozkio.

URDAIBAICO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAICO BIOSFERAREN ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA.
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/02
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa.
	Organismoa / Erakundea: Urdaibaiko Biosferaren Erreserbari Zerbitzua Entitatea Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 107
	MUXIKAKO UDALA
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Ariatzako biztanlegunearen hegoalderantz dagoen aparkaleku.zona bat berriro kalifikatzeko eskatzen da.

B Alegazioa:

Kurtzero zonaldean, udal hirigintza plangintzak antolatzeko lurzoru (UHPA) modura, Muxikako HAPO planaren hasierako onarpenerako dokumentuan aurreikusten zen bizitegi-sektore bat jaso dadila eskatzen da. Halaber, hainbat ekipamendu barneratzea eskatzen da, behin betikoz onartu gabeko HAPO planaren dokumentuan ere jasotzen zirenak. Gauza bera adierazten da

indarreko Plan Zuzentzaileak ECR modura kalifikatutako eta informazio publikora eramateko dokumentuan barneratzen ez den zona bati dagokionez.

C Alegazioa:

HAPO planaren bertsio berrienean (2014ko urria) udalerriko landa guneei buruzko 2/2006 Legerako egokitzapena gauzatu da, kartografia ondorioetarako kontuan har daitekeena.

D Alegazioa:

Kurtzero zonan UHPA zona (Zubieta Errotako erabilera anitzeko udal eraikinaren atzealdea) handitzeko eskatzen da, udal lurzatiak barneratu eta ekipamenduen zona apur bat arintzeko.

E Alegazioa:

Zugaztieta zonan B4.1 zonaren kalifikazioa berrikus dadila eskatzen da. Zona horretan, halakotzat kalifikatutako zenbait lurzati eremu horietako babesaren xede diren errekastoen ertzeetatik urrun daude.

Bestalde, 4.4.5.21.3 artikuluan finkatutako maldaren parametroa alda dadila eskatzen da, malda % 15etik % 35era areagotuz.

F Alegazioa:

Lurbizik aurkeztutako alegazioak baitaratu dira. Hurrengo atalean horietako bakoitzaren deskribapena eta xehetasunezko azterketa burutzen da:

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

Alegazioaren xede diren lurzoruak Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako Balio Agrologiko Handiko Zona (T1.A1) modura daude kalifikatutako informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailearen. Eremu horien ezaugarriak dira propietate fisiko eta kimiko bikainak izatea, emankorrak izatea, nahiz erabilerrazak eta irisgarriak izatea, eta nekazaritzaren sektorerako estrategikotzat hartzen dira. Haatik, alegazioaren xede diren lurzoruen antropizazio maila ikusirik, eta Ariatzako biztanleguneko auzotarrek, elizara hurbiltzen diren eliztarrek eta biztanlegune horretan bertan dagoen auzoko txokoaren erabiltzaileek maiz erabiltzen dituztela kontuan hartuta, berriro kalifikatu eta sistema-eremuko erkidegoko ekipamenduetako zona modura (T4.ECR) kalifikatzea proposatzen da.

B Alegazioa:

Plan Zuzentzailearen eremua udal hirigintza-plangintzan (1.1.1 artikuluko 2. atala) Urbanizaezin modura sailkatutako Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzorua da. Horri dagokionez, 2.1.3 artikuluan adierazten denez, lurzoru urbanizaezinean sartzen dira hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarriko hirigintza-sailkapenetan barneratzen ez diren lur guztiak. Bestalde, udal hirigintza-plangintzan hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarri modura sailkatutako lurzoruak Udal Hirigintza Plangintzak Antolatzekeo Eremuen (UHPA) epigrafean identifikatzen ditu Plan Zuzentzaileak (2.1.2 artikulua).

Hots, Plan Zuzentzailean ez dira sailkatzen Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoruak. Aitzitik, udal hirigintza-plangintzak lurzoru urbanizagarri modura sailkatutako lurzoruak arautu eta sailkatzen dira. Horregatik, eta bizitegi-sektorea alegazioan aipatzen den Kurtzero zonan barneratzen zuen udal hirigintza-plangintza (HAPO) behin betikoz onartuta ez dagoenez, ez da barneratu. Gauza bera gertatzen da HAPO planean barneratzen ziren ekipamenduekin, hots, plan hori behin betikoz onartuta ez dagoenez, haiek ez barneratzea erabaki da.

Bestalde, Muxikan Ariatzako ECR zonaren kalifikazioa kendu egin da zonan eremu berri bat txertatu edo zonifikatu delako erkidegoko ekipamenduetako beharrezkoak diren zonalde publiko edo pribatuak (eraikinekin edo gabe) mugatzeko. Eta Urdaibaiko EKEG egitامua funtzionamenduan denetik, 25 urte baino gehiagotik, hura garatzeko inolako asmorik ez delako izan. Hori dela eta, etorkizuneko plangintzari begira zuzenbide perfektu, aldagaitz eta baliagarri ez dagoela erabaki da.

C Alegazioa:

Plan Zuzentzailean, 2.3.3.3 artikuluan, dagoeneko aurreikusten da landa guneeetako mugaketa aldatu egin ahal izango dela HAPO plana edo dagokion Plan Berezia onartuta, betiere, horrek gune eta gunearen babes Gainkategorietan barneratutako lurzoruetan eraginik ez badu.

Horrenbestez, oraindik behin betikoz onartzeke dagoen HAPO planaren dokumentuan 2016ko otsailean Bizkaiko Foru Aldundiak onartutako inbentarioan landa gune modura jotako Muxikako bizitegi-kokaleku nuklearretarako proposatutako mugapenak kontuan hartu ahal izango dira, babes bereziko eta eta babes lurzoruetan eragina duten lurzoruetako mugaketa izan ezik, behin HAPO plana behin betikoz onartzen denean.

D Alegazioa:

Udalak UHPA zona handitzeko proposamenak eragina du Urdaibaiko Ibai Sarearen Ereму (N4), ibaiaren babes (B4.1) eta Tokiko Basoen Ereму (B6) modura kalifikatutako lurzoruetan. Lurzoru horietan Dekretuaren proposamenean emandako kalifikazioa mantenduko da.

Urdaibaiko Ibai Sarearen Eremuaren (N4) kasuan, helburua aniztasun biologikoa eta ekosistemak zaintzea da. Zona horietan gauzatu ahal daitezkeen jarduerak ikerketa arlokoak eta ingurunearekin harmonia betean diren aprobetxamendu tradizionaleri dagozkionak dira.

Bestalde, Ibaiaren Babes Eremuaren (B4.1) eta Tokiko Basoen Eremuaren (B6) helburua gune eremu horien kontserbazio alorreko integrazioa ahalbidetzea da babes zonetako ingurumen iraunkorraren garapenarekin.

E Alegazioa:

Alegazioan aipatutako lurzatiak ibaiaren babes (B4.1) modura daude kalifikatuta. B4.1 zona horietan, Ibai Sarearen Babes Ereмуko Ibai Sarearen Babeserako Zonetan (B4) natura- eta paisaia-intereseko eremuak daude edo egon daitezke, haiek mantendu edo lehengoratzeko bermatzeko babes-neurriak eska ditzaketanak. Behin alegazioa aztertuta, T1.PRT kalifikaziora aldatzeko aukera dagoela ikusten da, hori izanik zonak egun duen egoerara ondoen egokitzen den kalifikazioa.

Bestalde, Eraikinak hartzeko lurzatiak batez besteko malda jakin bat izatearen Plan Zuzentzaileko eskakizunaren arrazoia da, ahal den heinean, aurretiko topografia bidezko eraberritzearekin gure paisaia eralda dadila ekiditea. % 35eko malda duten lurzoruetan egindako eraikuntzako edozein esku-hartzek paisaian eragin kaltegarria izango lukeela ulertzen da.

F Alegazioa:

- **Nekazaritzako Politika Legean barneratutako definizioak gaineratzea proposatzen da.**

Haatik, ez da beharrezkotzat jotzen araua aplikatzeko, eta dokumentua argiagoa izan dadin 4.4.3.5 artikuluko 3.a.i atalean nekazaritza arloko araudia berariaz aipatzea proposatzen da.

- **Nekazaritza ekologikoari, lurzoru artifizial bihurtzeari eta bizikleta eta oinezkoentzako bideei buruzko adierazleak gainera daitezela eskatzen da.**

Oso egokituz jotzen dira adierazleei buruz egindako ekarpenak. Adierazleekin lotuta alegazio asko jaso direnez, eta 1.3.2 artikuluan adierazten den moduan, adierazleen proposamena irekia dela eta adierazleen gaia jorratzen denean haiek ordeztu edo osatzeko aukera izango dela kontuan hartuz, egokituz jotzen da egungo testua mantendu eta une horretan azterketa orokor bat egitea.

- **Biztanlegune kontsolidatuko zonak kentzea proposatzen da.**

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko legearen 29.1 artikuluan arabera, landa gunea baserriz osatutako multzo bat da, nortasuna ematen dien herri gune baten inguruan bilduta dagoena, eta gutxienez sei baserri eta gehienez hogeita bost dituena. Horrenbestez, sei baserri baino gutxiagoko edo hogeita bost baserri baino gehiagoko multzoak ez lirateke landa gunetzat hartu behar, ezta sei eta hogeita bost baserri arteko multzoak, nortasuna ematen dien herri gune baten inguruan bilduta ez badaude.

Plan Zuzentzailean Landa Guneko Zona modura kalifikatzen da soilik (2.3.3.3 artikuluko 2. ataleko lehen lerroaldea) Bizkaiko Foru Aldundiak 2016ko otsailean onartutako landa guneen inbentarioan barneratzen diren baserri multzoak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 29.7 artikulua eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea garatzeko premiazko neurrien gaineko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 7. artikulua). Inbentario honek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean adierazitakora egokituko liratekeen 41 baserri multzo identifikatu ditu Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan.

Haatik, 1993. urtetik indarrean den Plan Zuzentzailean Biztanlegune Eremuetakoak barneratzen dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinerako kalifikazioen artean. 67. artikuluan horrela definitzen da kalifikazio hori:

Bata bestetik hurbil dauden eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Babes eta Antolaketari buruzko 5/1989 Legea indarrean sartu zenean egon zeuden nekazal eta egoitza-erakinez osatutako eremuak dira eta gune bat eratzen dute.

Haien helburu nagusia lurraldeko ekoizpen-jarduerak burutzeko beharrezkoak diren eraikinak barneratzea da, ingurune naturalaren eragin-indar negatiboa gutxituz.

Hirigintzari buruzko legeriaren ondorioetarako, Egitamu Gidari honi jarraikiz kalifikatutako biztanlegune eremuak lurzoru ez urbanizagarri modura sailkatuko dira.

Indarreko Plan Zuzentzailearen IV. Eranskinean, lurzoru ez urbanizagarriaren zonifikazioari buruzkoan, behin betikoz antolatutako eta mugatutako biztanleguneak (NR) eta hala ez daudenak (NS) bereizten dira.

1993. urtean onartutako Plan Zuzentzaileak elkarrengandik hurbil zeuden 73 nekazal eta egoitza-erakin gune identifikatu ziren; horietako 49 behin betiko antolamendu eta mugaketarik gabe (NS) kalifikatu ziren eta 24 behin betikoz antolatu eta mugatuak (NR). Beranduago, 2003. urtean, Plan Zuzentzailea aldatu zenean, IV. eranskinean 77 gune identifikatu ziren. Horietako 18 behin betiko antolamendu eta mugaketarik gabe (NS) kalifikatu ziren eta 59 behin betikoz antolatu eta mugatuak (NR).

Adierazi den moduan, landa guneen inbentario honek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean adierazitakora egokituko liratekeen 41 baserri multzo identifikatu ditu Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremuan. Horietako 39 indarreko Plan Zuzentzaileak behin betikoz antolatu eta mugatutako (NR) gune modura kalifikatutako biztanleguneei dagozkie eta bi (Kanala Sukarrietan eta Gautegiz-Arteaga, eta Akorda Ibarrangelun) antolamendu eta mugaketarik gabeko (NS) guneei.

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzaileak, 2.3.3.3 artikuluko 2. atalaren bigarren lerroaldean jasotzen den moduan, indarreko Plan Zuzentzailearen 67. artikulua arabera, biztanlegune bat osatzen duten gainerako 36 eraikin-eremuak Biztanlegune Kontsolidatutako Zona modura identifikatzen ditu.

Hots, informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean, Biztanlegune Kontsolidatutako Zona azpikategoria identifikatzean (II. Tituluko 3. kapitulua), lurraldearen errealitate bat aitortu baino ez da egiten, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren lurraldea antolatzekeo tresnak (Plan Zuzentzailea) dagoeneko halakotzat identifikatua duela 23 urtetik. Errealitate hori horretarako berariazko kalifikazio batekin konfiguratzeko delako adierazten denean, gainera, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 53.4.a artikuluan xedatutakoari egiten zaio erreferentzia. Bertan adierazten denez, lurzoruaren kalifikazioan, lurraldea antolatzekeo tresnetan haietarako aurreikusitako kategoriak gaineratzeaz harago, plangintza orokorrean egokituz jotako antolamenduaren azpikategoriak barneratu ahal izango dira. Horri dagokionez, oroitarazi behar da Plan Zuzentzailea, aldi berean, lurraldearen antolamendua finkatzeko tresna ere badela (LAG eta LPP) eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezinaren hirigintza-plangintzaren gainera lehenestekoa dela (UBEL legearen 15. artikulua).

Informazio publikora eramateko Plan Zuzentzailean, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 28.1.a artikuluan barneratzen den zehaztapenaren arabera⁶, berariaz adierazten da (2.3.3.3 artikuluko 2. atalaren bigarren lerroaldeko ii. azpiatala) Plan Zuzentzaileak (edo hura garatzeko tresnek) mugatutako biztanlegune kontsolidatutako zonetan (T3.NPC) ez dela nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiagunearekin lotuta ez dauden etxebizitza-bizitegien oin berririk eraikitzea baimenduko.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 28.4.a artikuluan adierazten denez, arrisku hori dago, baldin eta bizitegi eraikin bat egiteak eragiten baldin badu udal plangintzak ezarritako distantzia parametroen barruan bizitegi erabilerako gutxienez lau eraikin egotea. Bizitegi-eraikin bat eraikitzea aurreikusten ez denez, nekazaritza eta abeltzaintzaren ustiagunearekin lotutakoez aparte (Trantsizioko Landa-paisaia Zonetan -T1.PRT- ere baimenduak), Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeari so biztanlegunerik osatzeko arriskurik ez dagoela ulertzen da. Are gehiago dagoeneko biztanlegune bat denean, kasu honetan, kontsolidatua.

Adierazi behar da, Plan Zuzentzailearen helburua Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lurzoru urbanizaezin guztien landa izaera ziurtatu eta mantentzea dela. Horretarako, lurzoru berriak antropizatu eta eraldatu beharrean, aurretiaz dagoen eraikin ondarea berrerabiliz, lurzoru urbanizaezin batean egon beharreko hornidura eta ekipamenduak txertatzearen alde egiten da, aurretiaz dauden bizitegi-kokaleku nuklearretatik hurbil egon behar direnak, ingurumen arloko arazoak direla medio, zerbitzuetatik gertu egoteko edo lurzoruaren eraldaketa-maila aintzat hartuz. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legean hornidura edo ekipamendu horiek landa guneetako zonetan kokatzea baimentzen ez bada ere (29.6 artikulua), beste kalifikazio batzuetan kokatzea baimentzen da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 28.5.a artikulua eta 105/2008 Dekretuaren 4.2. artikulua). Plan Zuzentzailean horiek lurraldean dauden bizitegi-kokaleku nuklearren beste azpimultzora bideratzea proposatzen da nagusiki; hau da, Biztanlegune Kontsolidatuen Nukleoetara (T3.NPC), izan ere, Urdaibaiko lurzoru urbanizaezinen barnean dauden eremu antropizatuenak eta zerbitzu gehien hartzen dituztenak direla uste da.

Aurrekoa gorabehera, eta halako irismena duen kalifikazio bat Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremurako soilik sortzea eztabaidagarria izan daitekeela ikusirik, eta administrazio eta elkarte ezberdinek planteatutako alegazio ugariak kontuan hartuta, kalifikazio hori kentzea eta lurraldean egon badagoen errealtate bat (landaren gunearen ereduarekin bat ez datozen bizitegi multzoak) identifikatzeko balizko premiari eta landa ingurunean finkatu beharreko hornidura eta ekipamenduak jartzeko kokaleku egokiari buruzko gogoeta egitea proposatzen da, autonomia erkidego osoko lurralde-eskala batean.

- **Iraungitako erabilerari dagozkion definizioak zehazteko eskatzen da.**

Ez da beharrezkotzat jotzen araua aplikatzeko.

- **Itxiturei buruzko 3.3.3.2 eta 3.3.3.13 artikulua zuzentzea proposatzen da.**

Alegazioan aipatzen diren artikuluek ez dute eraginik itxituren ezaugarrietan. Ikus, era berean, aurkeztutako dokumentuan 7. alegazioari emandako erantzuna.

⁶ **28. artikulua**— Erabilerak eta jarduerak.

1.– Lurzoru urbanizaezina bere osotasunean:

a) Ez da egokia hirigintza eduki edo helburua duten ekitaldien, erabileren edo jardueren euskarria izateko. Izan ere, aukeratutako lurzoru okupatzeko ereduaren arabera, desegokiak dira. Espresuki debekatuta dago eraikuntza berriak egitea, helburua etxebizitzak egitea bada.

Aurreko lerroaldeko arau horrek ez du eragotziko, dena den, baratzezaintza edo abeltzaintza ustiagune ekonomiko bat etxebizitza gisa erabiltzeko baimena ematea jabe eta kudeatzaileari, eta bere familia unitateari. Horretarako, beharrezkoa duela frogatu beharko du, eta etxebizitza ustiaketa horri lotuta geratuko da, funtzionalki eta era iraunkorrean.

- **Lurzatiaren kontzeptuari buruzko zehaztapenak Elkarlotutako lurzatietan, bakoitza 7.500etik beherakoa izanik, instalazioak kokatzeko aukera (alegazioaren 10. puntuarekin lotuta)**

Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 23. artikuluan adierazten denez, laborantzarako gutxieneko unitate modura ulertzen da landa lursail batek laborantzarako funtsezko lanak errendimendu egokiz gauzatu ahal izateko, ekoizpenerako bitarteko arrunt eta teknikoak erabiliz, izan behar duen azalera. Halaber, adierazten denez, Autonomia Erkidegoen ardura izango da beren lurralde-eremuko udalerrri, zonalde edo eskualde bakoitzean laborantzarako gutxieneko unitatearen hedapena zehaztea.

Hori aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko nekazaritza ustiaguneak arautu eta EAeko eskualdeetako eta Lurralde Historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituen uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan 0,75 hektareako (7.500 m²) azalera bat finkatu zen, sekain-lur nahiz sail ureztaturako, Bizkaiko Lurralde Historikoaren kasuan.

Plan Zuzentzailean araudi horretan ezarritakoa hartzen da oinarritzat.

- **Baso-sartzearen antzeko itxiturak kokatzeko aukera fruten laborantzarako (itxitura sare zinegetikoaz lehen 15 urtetan).**

3.5.3.1 artikuluko 2.b. atalean agertzen den deskribapena ez da behar bezain zehatza eta, horrenbestez, litekeena da 4.4.3.21 artikuluko 8. atalean aurreikusitakoaren alderaketa sortzea. Alegazioa egokitzeak jotzea erabaki da.

- **Nekazaritza ekologikoko jarduera ingurumena lehengoratzeko modura gaineratzea.**

Bi jarduera ezberdin dira. Beraz, ez dagokion gaineratzea.

- **Ustiategi berrietan nekazaritza ekologikoko jarduerak soilik baimentzea.**

Ez da egokitzeak jotzen inposatzea. Aitzitik sektorea ingurumena gehiago errespetatzen duten eredu inguruan prestatu eta sentsibilizatzeko lana da egin behar dena.

- **Aldaketak instalazio eta zerbitzuetako materialetan eta bizitegi-erabilera banatzeari buruzko aipamena 4.4.3.3 artikuluan.**

Alegazioa egokitzeak jotzen da.

- **Nekazaritzako instalazioen azalera eta bolumena.**

Oso zailtzat jotzen da instalazio bakoitzak, etorkizunean benetan izango dituen premiekin lotuta, izan behar duen dimentsio egokia zein den aztertu eta balioestea. Hori dela eta, gehiengoak finkatzearen alde egin da.

- **Lehen eraldaketako eta salmentako (nekazaritza eta abeltzaintza) instalazioak: kokapen berean nekazaritza ustiagune batekin elkarlotzeko, definizioa aldatzeko, gehienezko azalera areagotzeko eta aparkalekuaren premia baztertzeko premia.**

Izapidean den Dekretuan proposatutako testuarekin lurraldean diren mota honetako jardueren ezaugarriari erantzuten zaiola eta HAPO planaren helburuak behar bezala betetzen direla ulertzen da.

- **Laborantza hidroponikoak eta landare apaingarrien haztegiak degradatutako lurzoruetara, negutegi gehienezko azalera murriztea**

Laborantza hidroponikoari buruzko proposamena ezetsi egiten da, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Natura Ingurune Sailak egindako alegazioari erreparatu ostean. Alegazio horrekin Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetan laborantza

hidroponikoa onartzea eskatzen da, adieraziz sistema horiek baliabideen birziklapen eta birzirkulaziorako eta kudeaketa iraunkorrerako elementu eta ekipamendu guztiekin hornituta daudela.

Haatik, kontuan hartu behar da, zenbaitetan, laborantza hidroponikoak berekin ekar dezakeela lurzorua iragazgaizteko lanak egiteko premia zolata edo antzekoekin. Lan horiek ekiditeko premia azpimarratzen da nekazaritzari dagokionez balio handikoa den lurzoruaren ahalmen edafologikoa mantentze aldera. Horrenbestez, 4.4.3.6 artikuluko laugarren atala aldatu eta horrela geratu da:

(...)

4. Oin berriko horrelako instalazioak eraiki ahal izango dira lurzoruaren kalifikazioak honakoak badira:
 - a. Zelai eta laborantza Zonak (N3.4).
 - b. Trantsizioko Landa-paisaia Zonak (T1. PRT).
 - c. Nekazaritza-Abeltzaintza eta Landazabaleko Intereseko Eremuetako balio agrológico handiko Zonak (T1.A1) ~~lurzorurik gabeko laborantzakoak salbuetsita (hidroponikoak)~~, betiere, horiek gauzatzeko ez bada beharrezkoa zolatak ezarri edo lurzoruak iragazgaiztea.

Landare apaingarrietako haztegi-titularrak nekazariak izatea eskatzen da. Horrenbestez, egokia da horien ekoizpena negutegien kalifikazio bera duten lurzoru-egitea.

- **Perretxikoen nekazaritza ekoizpena: beharrezko azalera justifikatzeko premia**

Oso zailtzat jotzen da instalazio bakoitzak, etorkizunean benetan izango dituen premiekin lotuta, izan behar duen dimentsio egokia zein den aztertu eta balioestea. Hori dela eta, gehiengoak finkatzearen alde egin da.

- **Abeltzaintzako jarduerari buruzko erregulazioari dagozkion zehaztapenak: nekazaritzakoak baino lurzati txikiagoak izatea eta zerbitzuak baitaratzeko premia kentzea**

Nekazaritza Ustiategiak Modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legearen 23. artikuluan adierazten denez, laborantzarako gutxieneko unitate modura ulertzen da landa lursail batek laborantzarako funtsezko lanak errendimendu egokiz gauzatu ahal izateko, ekoizpenerako bitarteko arrunt eta teknikoak erabiliz, izan behar duen azalera. Halaber, adierazten denez, Autonomia Erkidegoen ardurak izango da beren lurralde-eremuko udalerrri, zonalde edo eskualde bakoitzean laborantzarako gutxieneko unitatearen hedapena zehaztea.

Hori aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko nekazaritza ustiaguneak arautu eta EAEko eskualdeetako eta Lurralde Historikoetako laborantzarako gutxieneko unitateak zehazten dituen uztailaren 8ko 168/1997 Dekretuan 0,75 hektareako (7.500 m²) azalera bat finkatu zen, sekain-lur nahiz sail ureztaturako, Bizkaiko Lurralde Historikoaren kasuan.

Plan Zuzentzailean araudi horretan ezarritakoa hartzen da oinarritzat.

Auto hornidurarako aukerari dagokionez, alegazioa egokitzen jotzen da.

- **4.4.3.13. artikuluan 515/2009 Dekretuari buruzko aipamena mantendu eta xehetasunak kentzea, eta nekazaritzari buruzko araudiarekin beste zenbait bat etortze**

515/2009 Dekretua aplikatzeko da halako instalazioetan. Haatik, dokumentua argiagoa izan dadin egokitzen jotzen da alegazioa onestea.

- **Simaurraren erabilera ez debekatzea, ur hartunea profesionalentzat soilik**

Simaurrari dagokionez, adierazi behar da, Bizkaiko Foru Aldundiak egindako alegazioa kontuan hartuz, dagokion artikulua horrela idaztea proposatzen dela:

4.4.3.2. artikulua.- Nekazaritzako erabilera. C.1.1.

2. Jarduerarekin bateragarriak diren jarduerak direnean, ondoko laborantza-praktika hauek baimenduko dira:
 - a. Ureztatzeko ura ateratzea: horretarako ezinbestekoa izango da urari buruzko araudiak eskatzen duen emakida.
 - b. Sailak simaurtu eta ongarritzea eta horietan landare-osasunerako produktuak erabiltzea.
 - i. Trantsizio Gainkategorian Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako jardueratik datozen nitratoek eragindako kutsadura jasateko arriskua ez duten guneetan aplikatzeko Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodea onartzen duen ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuan ezarriari jarraituko zaio. Gune Babesaren Gainkategorian aipatutako ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuan ezarritako gomendioak derrigorrez betetzekoak izango dira. Gune Gainkategorian ~~edozein kasutan~~, ez da ongari nitrogenatuen erabilera baimenduko. ~~Gune eta Gune Babesa Gainkategorietan.~~

Gaur Egun Urdaibaiko Biosfera Erreserban dauden nekazaritzako jardueren portzentaje oso handi bat nekazari profesionalak burutzen ez dituztela kontuan hartuz, ez da egokitzat hartzen ur harguneari buruzko alegazioa aintzatestea.

- **Lehen sektorearekin lotutako industria jarduerak**

Ez da ulertzen aurretiaz dauden Eraikinetan lehen eraldaketako nekazaritza elikagaietako industriak testuan ezarritako baldintzetan txertatzearen ondorioz eragin kaltegarriak sorrarazten denik. Basozaintzako LAP planak eta Gernika-Markina LAP planak baimendutako erabilera bat da.

- **Aisialdiko baratzeak hiri-lurzoruan edo nakezaritza erabilera profesionala onartzen ez den lurzatietan**

Auto hornidurarako eta aisisladirako lan didaktiko garrantzitsua betetzen dute.

- **Etxebizitza-erabilearekin lotutako lanabesen etxolak: autokontsumoari eta negutegiek zolata artifizialik eta hornidura elektrikorik izango ez dutela dioen aipamena kentzea**

Alegazioa egokitzat jotzen da.

- **Abandonatutako nekazaritza lurak berrerabiltzeko Plan bat gaitzea nekazaritza profesionalera bideratzeko**

Ez da HAPO planaren berezko helburua. Beharrezkoak diren arloko planetako zehaztapenak baztertu egin dira.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

A Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat** jotzen da **eta onestea proposatu da**.

B Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

C Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

D Alegazioa:

Alegazioa **desegokitzat** jotzen da **eta ezestea erabaki da**.

E Alegazioa:

Alegazioa, kalifikazioa aldatzeari dagokionez **egokitzat** jotzen da eta **partzialki onestea proposatzen da**. Haatik, baimendutako malda areagotzeari dagokionez, **desegokitzat jotzen da eta ezestea proposatzen da**.

F Alegazioa:

Alegazioa egokitzat jotzen da partzialki eta eta puntu batzutan onestea proposatu da.

4.4.3.3 artikuluko 2b atala berridaztea proposatzen da:

4.4.3.3 artikulua.- Nekazaritzako erabilerarekin lotutako instalazioak. Araubide orokorra.

2. Instalazioak gauzatzeko unean, bai oin berriko instalazioak izan bai lehendik dauden eta erabilera baimendu, toleratu edo iraungiak dauzkaten Eraikuntzetan erabilera aldatuz izan, bete egin beharko dira, ondorengo artikuluetan xehatzen diren zehaztapenez gain, ondoko baldintza orokor hauek:

a. Ustiategiak Nekazaritza Ustialekuen Erroldan jasota egon behar du.

b. Nekazaritza arloan eskumena duen Foru Sailaren baimena izan behar da, haietako titularrak pertsona nekazariak direla egiaztatze aldera, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legearekin bat etorritz. Horretarako, hori gauzatu aurretik, ezinbestekoa izango da Nekazaritza arloan eskumena duen Foru Sailaren aldeko txosten bat igortzea.

(...)

3.5.3.1 artikuluko 2b atala berridaztea proposatzen da:

3.5.3.1 artikulua.- Araubide orokorra.

(...)

2. Itxiturak honelakoak izango dira:

(...)

b. Zurezko hesiak, sare zinegetikoz hornituak eta arantzarik gabeko alanbrez, 1,8 m-tik beherako altuerakoak.

4.4.3.3 eta 4.4.3.10 artikuluetan aldaketa hauek proposatzen dira:

4.4.3.3 artikulua.- Nekazaritzako erabilerarekin lotutako instalazioak. Araubide orokorra.

(...)

4. Nekazaritzako erabilerarekin lotutako oin berriko instalazioen diseinuan, ondoko zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

a. Teilatu-hegalaren gehienezko altuera 5,00 m-koa izango da, eta 6,50 m-koa gailurrarena.

b. Isurialde biko estalkiz egin beharko dira, isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda dutela. Akabera kolore gorrikoa izango da eta teila zeramikoko kurbatuaren antzeko itxurakoa edo misto gorria.

c. Fatxada-itxiturek zurezko akabera eduki beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua. Debeekatuta dago hormigoizko blokez egitea akabera, pintatuta egon zein ez egon.

d. Jartzen diren arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.

e. Beheko solairua eta lehen solairu edo solairuarteak eduki ahal izango dituzte.

5. Kasu guztietan, erabilera txertatu aurretik, lurzati hartzaileak ura, energia elektrikoa eta kanpoko argiteria hornitzeko zerbitzuak izan behar ditu mugara arte; zerbitzu horiek ez baditu, jariatze-urak, energia berriztagarriak, metagailuak edo bestelako bitarteko autonomo batzuk atzeman edo aprobeztatzuz horni daitezke. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2. artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira.

(...)

4.4.3.10 artikulua.- Abeltzaintzako erabilerarekin lotutako eraikinak. Araubide orokorra.

(...)

2. Egiten diren instalazio berriek, hurrengo artikuluetan azaltzen diren zehaztapenez gain, ondoko baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

(...)

- h. Abeltzaintzako instalazio hauen diseinuan, oro har, ondoko zehaztapen hauek hartu beharko dira kontuan:

- i. Teilatu-hegalaren gehienezko altuera 5,00 m-koa izango da, eta 6,50 m-koa gailurrarena.
- ii. Isurialde biko estalkiz egin beharko dira, isurkiek gutxienez % 30eko eta gehienez % 45eko malda dutela. Akabera kolore gorrikoa izango da eta teila zeramikoko kurbatuaren antzeko itxurakoa edo misto gorria.
- iii. Fatxada-itxiturek zurezko akabera eduki beharko dute, edo zuriz pintatutako zarpiatua. Debehatuta dago hormigoizko blokez egitea akabera, pintatuta egon zein ez egon.
- iv. Jartzen diren arotzeriak zuriak edo marroiak izango dira.
- v. Beheko solairua eta lehen solairu edo solairuartera eduki ahal izango dituzte.

(...)

5. Kasu guztietan, erabilera txertatu aurretik, lurzati hartzaileak ura, energia elektrikoa eta kanpoko argiteria hornitzeko zerbitzuak izan behar ditu mugara arte; zerbitzu horiek ez baditu, jariatze-urak, energia berriztagarriak, metagailuak edo bestelako bitarteko autonomo batzuk atzeman edo aprobeztatzuz horni daitezke. Jarduera txertatu aurretik sare orokorrerako loturarik ez badago, hondakin-urak 4.1.2. artikuluan ezarritako moduan hustu beharko dira. Era berean, lurzati hartzaileak batez beste % 25etik beherako malda eduki beharko du. % 12 baino gehiagoko malda duten zonetan lur-mugimenduak egitea dakarten eraikuntza-proiektuak garatzeko prestatzen diren azterketa teknikoek lurzorua egonkortasunaren eta higagarritasunaren gaineko inpaktu negatiborik ez dagoela bermatzeko neurriak definituko dituzte.

4.4.3.13 artikuluko 1. atala berridaztea proposatzen da:

4.4.3.13 artikulua.- Abeltzaintza-jardueratik deribatutako produktuak arazteko instalazioak. C.2.2.3.

2. Simaurtegi-instalazioak eta minda-deposituak dira. Edozein kasutan, 515/2009 Dekretuaren arabera arautuko dira.

4.4.5.39 artikuluko 3.a atala berridaztea proposatzen da:

4.4.5.39 artikulua. Lanabesak eta makineria txikia biltegitratzeko eta landare-espeziaren hazkuntza eta autokontsumorako (E.6).

(...)

3. Landareen landaketa eta autokontsumurako instalazioak, natura baliabideen aisialdiko ustiapenarekin lotutakoak, hezetasuna, tenperatura eta landareen landaketa ahalbidetzeko ingurumen arloko beste zenbait faktore modu iraunkorrean mantentzeko barrutiak izango dira, material gardenekin estali eta babestuak altifizialki. Horrelakoak ezartzeko zehaztapenak honakoak izango dira:
- a. Lur gainean paraleloan jarritako arku-erdiz itxuratutako instalazioak izango dira, eta gehienez ere 36 m²ko azalera eraikia izango dute. Plastikoen gardenekin estaliko dira, eta aurretiaz dagoen lurraz gain ez dute beste lurzorurik izango, ezta inolako zimendu edo zolatarik ere, eta hornidura elektrikoa ere ez.

URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUAREN ALEGAZIOEN ERANTZUNA.

Espediente-kodea	12038
Proiektua	URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO PLANA ONARTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA
Sail sustatzailea/k	Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
Zuzendaritza sustatzailea	Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
Alegazioen sarrera-eguna	2016/06/01
Alegazioen izapidea	Informazio publikoa. Erakundea / Entitatea Urdaibaiko Biosfera Erreserba Zerbitzua Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza
	Saila/ Ingurumen eta Lurralde Politika Saila
	Proposamenaren / alegazioaren kodea 109
Proposatzailea / alegatzailea identifikatzea	Bermeoko Udala.

1.- ALEGAZIOEN LABURPENA

A Alegazioa:

Quad eta motoen erabilera arautu dadila eskatzen da, debekatutako lekuak adieraziz eta abiadura mugatuz.

B Alegazioa:

4.4.3.23 artikuluan lur-mugimenduak eskatzen dituzten baso-pistak irekitzeko hirigintza-lizentzia ezinbestekoa dela adieraz dadila eskatzen da.

C Alegazioa:

Erabilera Publikoko Mendietan ehiza debekatzea planteatzen da.

D Alegazioa:

Patronatuaren txostenak lotesleak izatea planteatzen da.

E Alegazioa:

Hizkuntza ondarearen babesari buruzko 1.3.1 eta 1.3.2 artikulua alda daitezela eskatzen da.

2.- AZTERKETAK ETA GOGOETAK

A Alegazioa:

5/1989 Legearen 1. artikulua kontuan hartuz, planteatutako alegazioa egokitzat jotzen da kontuan hartuz ibilgailu horien zirkulazioa ez arautzeak eragin kaltegarriak izan dezakeela fauna eta floraren gainean eta, azken finean, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako ekosistema guztietan.

B Alegazioa:

Dekretu honen helburua ez da udal lizentziaren baitakoak diren egintzak adieraztea. Haatik, araudiak eskatutako baimenak eskuratzeko premiari buruzko aipamen orokor bat egitea komeniko litzateke.

C Alegazioa:

Erabilera Publikoko Mendien erregulazioa Mendietako Foru Arauan jasotzen da.

Plan Zuzentzailean jasotzen denez, debekatuta dago belatz handiaren habia egiteko zonetatik 500 m-ko erradioan ehiza xeherako posturik jartzea. Horretaz gain, gaur egun daudenak birkokatu edo baztertzeko jarduerak aurreikusten dira; eta kontuan hartuko dira sektorearen araudiak ezartzen dituen muga osagarriak, zehazki Mundakako Itsasadarreko Ehiza Babeslekua handitzen duen otsailaren 9ko 5/1999 Foru Dekretuak eta Urdaibain ehiza kontrolatuko zona bat sortzen duen abenduaren 28ko 7148/2006 Foru Aginduak ezarriak.

D Alegazioa:

Patronatuaren txostenak derrigorrezkoak dira, baina ez lotesleak. Txosten horiek eskumeneko administrazioak baimena eman aurretik eskatu (eskumeneko administrazioak baimena emateko edo sustatzaileak partikulariki) eta igorri (Patronatuko organo ezberdinek) behar dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren (UBE) eremuaren barnean zenbait esku-hartze burutzeko. Patronatuaren txostenak lotesleak izateari dagokionez, alegazioan adierazten den moduan, Patronatuaren txostenak (V. Tituluko 1. kapituluan arautzen direnak nagusiki) derrigorrezkoak dira, baina ez lotesleak. Horrek esanahi du berez ez dutela eskumeneko administrazioa behartzeko ahalmenik, hots, ez dute izaera hertsagarriak. Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko 5/89 Legean aldean bi herenen artean desadostasuna dagoenean proiektuak itzultzeko aukerari buruz jasotzen den aurreikuspenak (18. artikuluko 3.h atala) ez du esanahi horiek lotesleak direnik. Horrela adierazi du jurisprudentziak, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 352/2015 sententzia berrian. Haatik, Patronatuaren txostenek, araudiaren interpretazio modura eta Patronatua Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremua babesteko araubidearen berme-emaile izanik, balio kualifikatua dute hala eskumeneko administrazioentzat nola sustatzaileentzat, izan ere, jakin badakite Patronatuaren txostenetan adierazten dena haustea Urdaibaiko Biosfera Erreserbari buruzko legea urratzea dela, eta

horrek legezko aginduak urratzearen ondoriozko isunak dakartza (5/89 Legearen 26. eta hurrengo artikulua).

E Alegazioa:

Izapidean den Dekretuan, helburuetan euskara kontuan hartu da, hura kultura ondare inmaterialen parte den aldetik. Haatik, egokitzat jotzen da aipamen zehatzago bat egitea.

Garapen iraunkorreko helburuei dagokienez, aipatu behar da berriki Unescok Mab 2015-2025 Programaren Estrategia eta Limako Ekintza Plana onartu dituela. Horietan Biosferako Erreserbak Garapen Iraunkorreko Helburuak (NBE erakundeko estatu kideek onartutako Garapen Iraunkorreko Helburuak) betetzeko lagungarri diren eredutzat planteatzen dira. Inguruabar hori, garapen iraunkorreko helburuei dagokienez jasotako alegazio ezberdinak eta 258/1998 Dekretuaren bidez onartutako (1998ko urriaren 21eko EHAA, 200. zk.) Urdaibaiko jardura sozioekonomiko egokitzapen eta garapenerako programa (PADAS) berrikusteko premia aintzat hartuta, egokiagotzat jotzen da 1.3.1 artikuluko C atalean (NBE erakundeak onartutako Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak) barneratutako garapen iraunkorreko helburu modura aipatzea eta, ondoren, zehaztea PADAS programa berrikusten denean. Horrenbestez, atal honetan ez da euskarari buruzko aipamen zehatzik egingo.

Oso egokitzat jotzen dira adierazleei buruz egindako ekarpenak. Adierazleekin lotuta alegazio asko jaso direnez, eta 1.3.2 artikuluan adierazten den moduan, adierazleen proposamena irekia dela eta adierazleen gaia jorratzen denean haiek ordeztu edo osatzeko aukera izango dela kontuan hartuz, egokitzat jotzen da egungo testua mantendu eta une horretan azterketa orokor bat egitea.

3.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Alegazioak **desegokitzat jotzen dira eta ezestea erabaki da, A, B eta E alegazioen inguruan adierazitakoa salbuetsita.**

A Alegazioa:

Alegazioa **egokitzat jotzen da eta onestea erabaki da.**

4.4.2.18 artikulua. Automobilismo eta motoziklismoarako zirkuituak Kirol edo aisiarako motordun ibilgailuen zirkulazioa B.2.5.

1. Automobilismo, motoziklismo edo kirol edo aisiarako antzeko jardueretarako kotxe, moto edo quad bidezko zirkulazioa da automobilismo edo motoziklismoaren jarduna horretarako egokitutako lurretan motordun ibilgailuetarako zirkuitu espezifikotan.
2. Plan honetan Erkidegoko (Aisia) Ekipamenduetako Zonako Sistema Eremu modura (T4.ECR) kalifikatutako lurretan zirkuitu iraunkorrak txertatzea baimentzen da, eta ezinbestekoa izango da dagokion garapenerako lanabesaren edo Plan Bereziaren bidez arautzea. Edonola ere, arau hauek ezartzen dira:
 - a. Lurzatiaren barnean, osasun zerbitzuarako instalazio desmuntagarriak gauzatzea soilik suposa dezake.
 - b. Erabilera abian jartzeko, ez da beharrezkoa lurzatiari inolako azpiegiturarik, ibilbideak prestatzeko lanetatik haragokorik, gehitzea; lan horiek, baina, ezingo dute, inolaz ere, bideetan zoru berririk botatzea edo bideak profilatzea eragin.
 - c. Gehienez 20 m²ko zona bat identifikatu beharko da, bertan egin ahal izatearren bai ibilgailuak martxan jartzeko lanak, olio aldaketak edo gasolina botatzea esaterako, bai ibilgailuetako larrialdiko konponketak. Zona hau lurzorua edo urak ez kutsatzeko beharrezko bitartekoz prestatuko da.
2. Baso-pisten, landa-bideen eta udal edo foru titulartasuneko errepideen eremutik at motordun ibilgailuen zirkulazioa debekaturik dago Ez dira, inolaz ere, Gune (N) Galkategorian baimenduko.

3. Ezingo da 30 kilometro ordutik gorako abiadura gainditu.
4. Kasu berezietan, Plan honetan Trantsizioko Landa-paisaia Zona (T1.PRT) Baso Eredu (T2) Bizitegi-kokaleku Nuklearretako Eredu (T3) eta Sistema-eremu (T4) modura kalifikatutako lurzoruetatik igarotzen diren pista edo landa-bideetatik lehiaketak antolatzea baimenduko da. Horretarako, lehiaketa jokatu aurretik dokumentazio hau barneratuko duen dokumentu bat aurkeztu beharko da Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Zuzendari/Kontserbatzaileak txostena eman dezan:
 - a. Eskatzailearen datuak.
 - b. Lehiaketak zeharkatuko duen eremuaren oineko planoak, gutxienez 1/500 eskalakoak.
 - c. Ibilbideen luzetarako sekzioen planoak.
 - d. Lehiaketaren aurretiko urteko ortofotoa, horren gainean ibilbidea irudikatzearen.
 - e. Lehiaketan parte hartuko duten ibilgailuak eta bisitarienak aparkatzeko zonaren identifikazioa.
 - f. Partaideentzat beharrezkoak diren osasun zerbitzuak hartzeko instalazio desmuntagarrien deskribapena.
 - g. Ekitaldia antolatzen den lekuan egon daitezkeen eta interesgarri diren natura elementuak babesteko neurriak identifikatzea.
5. Azpiegitura ugari buruzko sistema-eremuetan indarreko legerian ezarritako erregulazioari jarraituko zaio.
(...)

B Alegazioa:

Partzialki ezestea erabaki da.

4.4.3.23 artikulua.- Baso-pistak. C.4.3.1.

3. Bide publikotik baso-ustiategira iristeko zein ustiategiaren beraren barnean erabiltzeko bideak dira.
4. Arau hauek jarraitu beharko dira:
 - b. Zura ateratzeko lehendik dauden bideez bestelako batzuk zabaldu behar direnean, jabeak edo baso-kudeatzaileak kontsulta egin beharko dio, aurrez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuari, eta dagokion baimena eskatu. Halaber, indarreko araudiaren arabera beharrezkoak diren lizentzia edo baimen guztiak eskatuko dira (...).

E Alegazioa:

1.3.1 artikulua. Helburu orokorrak.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren helburu orokorrak honakoak dira:

A) EGITURAZKO HELBURUAK.

- (...)
- 4) Ingurumen-, ekonomia-, gizarte- eta hizkuntza-alderdiak jasotzea erabakiak hartzeko unean, etorkizuneko belaunaldien beharrak hipotekatzeko.
(...)

B) KONTSERBAZIO-HELBURUAK

- 8) Interes artistiko, arkitektoniko, historiko, arkeologiko, etnografiko, dokumentuzko, bibliografiko, hizkuntzazko edota zientifikoa duten interes kulturalako ondare guztiekin (material eta immaterialak) osatutako Kultura ondarearen babesa, hedapena eta sustapena bultzatzea. Euskarazko toponimia erabiltzearen alde egingo da.

C) GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK.

Urdaibaiko Biosfera Erreserba lagungarri izango da Nazio Batuek onartutako Agenda 2030 dokumentuan barneratutako Garapen Iraunkorreko Helburuak (GIH) lortzeko:

1. helburua: Pobreziari amaiera ematea bere adierazpen guztietan mundu osoan.
2. helburua: Gosearekin amaitzea, elikadura segurtasuna amaitzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.
3. helburua: Bizitza osasuntsua eta ongizatea bermatzea adin guztietan.
4. helburua: Hezkuntza inklusibo, ekitatibo eta kalitatezkoa bermatzea eta ikasteko aukerak sustatzea guztientzat eta adin guztietan.
5. helburua: Genero berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea lortzea.
6. helburua: Pertsona guztientzako ura eta saneamendua eskura izango direla eta modu iraunkorrean kudeatuko direla bermatzea
7. helburua: Energia merke, ziuerra, jasangarri eta modernoa guztien eskura izango dela bermatzea.
8. helburua: Hazkunde ekonomiko jarraitu, inklusibo eta jasangarria sustatzea, baita guztientzako enplegua, enplegu produktiboa eta lan duina ere.
9. helburua: Azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta iraunkorra sustatzea eta berrikuntza bultzatzea
10. helburua: Herrialdeen arteko zein herrialdeen barneko desberdintasunak murriztea.
11. helburua: Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.
12. helburua: Kontsumo eta ekoizpen jasangarriko ereduak bermatzea.
13. helburua: Klima aldaketa eta bere eraginei aurre egiteko neurri urgenceak hartzea.
14. helburua: Ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak modu jasangarrian kontserbatu eta erabiltzea, betiere garapen jasangarria helburu.
15. helburua: Lurreko ekosistemen erabilera iraunkorra babestu, berrezarri eta bultzatzea, basoak modu iraunkorrean kudeatzea, desertifikazioaren aurka borrokatzea, lurren degradazioa geldiarazi eta iraultzea eta aniztasun biologikoaren galera etetea.
16. helburua: Garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztiek justizia eskura izatea bermatzea, eta erakunde eraginkor, arduratsu eta inklusiboak sortzea maila guztietan.
17. helburua: Garapen Iraunkorrerako exekuzio baliabideak indartzea eta munduko aliantza biziberritzea

Helburu horiek berrikusi eta zehaztu egingo dira Urdaibaiko Biosfera Erreserbako jarduera sozioekonomikoen egokitzapen eta garapenerako programa onartzen duen irailaren 29ko 258/1998 Dekretua berrikusten denean.

D) LAGUNTZA LOGISTIKOAREN HELBURUAK:

- 4) Urdaibaiko gizarte-, natura-, kultura- eta hizkuntza-ondareari dagokionez interpretazioa, balioan jartzea eta jasangarritasunean oinarritutako heziketa sustatzea, horretarako beharrezkoak diren baliabide didaktikoak eskainiz. Jasangarritasunaren arloko hezkuntzarako behar diren ekipamendu eta materialak sortzea sustatzea.